

A. ARZELUS

eta

A. M^a

LABAYEN



98.

**belaunaldiko
antzerkilariak**

A. Arzelus eta A. M^a Labayen

98 belaunaldiko antzerkilariak

Eugenio Arocena



A. Arzelus



A. Mª Labayen

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
SARRERA	5
1.- OMENDUTAKO EGILEEK XURGATUTAKO	
ANTZERKI GIROA	6
Berriztatzea 1875-1000	8
Berriztatzearen txertatzea 1900-1930	13
Aro osatzailea 1930-1936	21
ANDER ARZELUS	23
1938-1943 Espetxeko epean idatzitako lanak	29
Sormenezko produkzioaren azterketa	29
GIBELAUNDI	33
NESKAMEAREN MARMARRAK	51
ANTONIO M ^a LABAYEN TOLEDO	55
Antonio M ^a Labayenen antzerkia aztertzen	57
1.- Antzerki hastapenak 1920-1936	58
2.- Lehen samina 1936-1965	61
3.- Itsumenaren samina 1965-1980	67
4.- Epilogo	73
PETRIKILLO	77
DOMENJON DE ANDIA	101

BIBLIOGRAFIA	165
Antonio M ^a Labaienen liburu eta artikuluak	
Antzertiari buruz	165
Antonio M ^a Labayenen antzerkiak	167
Itzulpenak	168
Argitaratu gabeak	168

AURKEZPENA

XVI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK ospatzen ditugun aurtengo honetan, oraintxe dela 100 urte, euskal antzerkigintzaren garai oparo batetako adierazle ditugun bi euskal antzerki idazle izango ditugu omenduak, Ander Arzellus eta Antonio Maria Labayen.

Bi idazleak Gipuzkoarrak ditugu, Ander Arzellus Donostian jaioa (1898-1949) eta Antonio Maria Labayen (1898-1994) berriz Tolosan jaioa.

Antonio Maria Labayenek idatzi zituen antzerki lanak ugariak ziren, antzerki lanak, antzerkiari buruzko idazlan eta hainbat itzulpen egin zituen. Egile ezagun honek, Labayenek, 1990.garren urtean izan zuen bere omenalditxoaz Azpeitian ospatzen diren Antzerki Topaketen barruan. Nolanahi ere, aurtengoan bi egile hauek beren jaiotzaren 100.garren urtemuga ospatzen dutenez, biak nahi izan ditugu gure omenaldi honetan biltzea beraien bizitza eta lana bide batez gogora ekarriaz.

Liburu honetan bi idazle hauen lanik atsegin eta interesgarrienak bildu eta argitara ematea nahi izan dugu, Ander Arzellusen *GIBELAUNDI* elkarrizketa atsegiña, argitaratu gabea, eta *NESKAMEAREN MARMARRAK* elkarrizketa bikaina. Bestalde, Antonio Maria Labayenen antzerki lanen artetik drama historiko bat bildu dugu, *DOMENJON DE ANDIA* antzerki lana eta *PETRIKILLO* irri antzerkia. Euskal Antzerki Topaketa hauetan egiten dugun galde-erantzunen Irrati Lehiaketan parte hartuko duten gaztetxoek lan bikain eta atseginak izango dituzte zalantzarik gabe beren irakurketarako. Gaur egungo gaztetxoek, garai artako euskal antzerkigintzaren ezagutza zertxobait osatzeko berriz, Eugenio Arozenak egin digu sarreratxobat ere

bildu dugu. Donostiako eta Tolosako udaletxeen eta Kutxaren laguntzari esker Azpeitiko Udalak argitara ematen duen liburu honen irakurketak guzti hau ezagutarazten lagunduko digu.

Nekane Larrañaga
KULTURA ZINEGOTZIA

SARRERA

Urte honetan bi antzerkilari ospetsuren, A. Arzelus eta A. M^a Labayen jaiotzaren ehun urte betetzea ospatzen denez azpeitiarrok asmo bikainez, Euskadiko XVI. Euskal Antzerki Topaketetan goraipatu nahi dituzte, hainbat ekintza antolatuz. Hots liburuxka hau ekintzetako bat izanik.

Liburu honen osaketa lau ataletan banatzen da:

- 1.- Omendutako egileek xurgatutako antzerki giroa,
- 2.- Bibliografiak,
- 3.- Sormenezko produkzioaren azterketa,
- 4.- Antzerki lanak.

Aurrera jarraitu baino lehenago 3. atala "Sormenezko produkzioaren azterketa"n erabiliko ditudan iritzien argitasuna eskaini nahi dut.

Gaur egun antzerki testua zehaztea zurrumbilo ikaragarri batean erortzea da, gaurko antzerkilariok edozein testuetaz baliatzen baitira. Telefonoko Gida testutzat hartuaz antzezkiak prestatzen da. Honak adierazten dit gaur eguneko antzerkilariantzat edozein testu baliagarri dala.

Omentzen ari garen antzerkilari hauen lanak aztertzeko, modu klasiko eta arrazoiduna erabiliaz emango diot begirada: Alde batetik estetika eta bestetik egituraren alorra ikuituaz.

Estetika esparrua zabala da eta leku jakin batzuetara mugatuko dut, hiru zutabetan oinarrituaz: Gatazka, Kolorea eta Erritmoa.

Gatazka. Esan dezaket gatazkarik gabe antzerkia ezinezkoa dela eta adierazpen hau areagotzen da, testua antzezkiaren ardatza bihurtuaz.

tzen denean. Ezin pentsa daiteke testu dramatikorik pertsonaia edo pertsonaien bizitzaren kontakizunean eztabaida edo konfliktorik ez badago. Antzerki munduan gaur egun ezagutzen den "protagonista-Antagonista" izatearen arrazoia da gatazka.

Kolorea. Aurreneko Gatazka ezagutu eta aztertu behar dugu. Gatazkaren funtsa aurkitu eta ondoren bi indarren oreka mantendu. Antzekizuneko unean ikuslegoa bereganatzeko gatazkaren oreka, konfliktorekin bi aldeena, ezin bestekoa da.

Erritmoa. Antzerkiaren izaeran erritmoak garrantzi handia du, gestu batean ala antzekizunaren "Klimax" a nahi badugu erritmoa ezin bestekoa zaigu aurreneko bi zutabeak bizidunak egiten baiditugu.

Zutabe bakoitzak zeregina du testu dramatikoan eta nola ez antzekizuna taularatzen danean.

Egitura alorra aztertzerakoan, egitura klasikoetara makurtuko naiz, adibidez: Traxedia, Irriantzerkia, Historikoak, eta abar.

1.- Omendutako egileek xurgatutako antzerki giroa.

A. Arzelus eta A. M^a Labayen hobeto ulertzeko sasoi jakin bateko euskal antzerkiaren garapenari begiradatxo bat eman behar diogu. Mende honen hasierako lehen 36 urtetan, euskal antzerkiaren zurrumbiloaren muina Donostian kokatua egon zen. Iztunde Eskola bere etxea izanik bere eraginez mugitzen zen beste lekuetako euskal antzerkia. Aipatutako bi antzerkilari hauek euskal antzerkiaren muinarekin lotuta zeuden bertan une batean partaide izanik.

Lan honen azterketak Donostiako antzerkia du ardatz, beste Lurraldeetan egin izan dena ahaztu gabe; eta bertan partaide, bultzatzaile izan direnen zerrenda oso luzea delako kondairan zehar sona

haundiena izan dutenak aipatuko ditut, lantxo hau hiru ataletan banatuaz:

- 1.- Berriztatzea (1875-1900);
- 2.- Berriztatzearen txertatzea (1900-1930);
- 3.- Aro-osatzailea (1930-1936).

1.- Berriztatze aroan Donostiako esparrura mugatuz euskal antzerkigile hauek aurkitzen dira:

- 1.- Baroja, Serafin 1840-1910.
- 2.- Iraola, Biktoriano 1841-1929.
- 3.- Soroa, Marzelino 1847-1936.
- 4.- Azkarate, Ramos 1847-1904.

Aro honetan jarraituaz, bi hamarkada beranduago, zenbait idazle gazte, antzerkiak sortzen eta plazaratzen zituztenak, mugimendura sartzen dira: 4.- Alzaga, Toribio 1861-1941. 5.- Uranga, Juan Ignazio 1863-1934. 6.- Artola, Jose 1864-1924. 7.- Azkue R.Maria 1864-1951. 8.- Elizondo, Jose 1865-1943... Arrese, E. Etxabe, A. Rekondo M. Illarramendi...

Donostiako antzerki mugimendua abertzalea zela dudarik ez dut. Aro honen aurretik gazteleraizko antzerki emanaldiak eskaintzen ziren. Hor dugu lekuko "EL CUBO" antzokia hau ere 1863.urtean Donostian harresi zati handi bat botatzearekin batera antzoki hau eta berarekin batera zuen kafetegia ere botatzen dituzte. Antzoki honetan eskaintzen ziren ikuskizunak batetik bestera zebiltzan taldeenak ziren.

Bestalde bitxikeri bezala bada ere, esan behar da gure antzerkilariak gazteleraiz idazten dituztela lehen antzerkiak. Honen adierazgarri izen aipagarrienak ondorengoak dira: *"Iriyarena"*, antzerkia Soroak idatzia, *Petra Xardin Saltzallea*, Iraolarena, eta *"Martin Tiñacu"*, Alzagarena.

Euskal Herrian abertzale giroaren eztanda ez zen Donostian gertatu Bilbon baizik eta gertakari horren dinamiteroa Sabino ARANA izan zen 1895. urteko otsailaren 2an, Bilboko Langile Elkartean, Azkueren *Vizcai'tik Bizkai'ra* antzerkia ikusi ondoren Sabinok "Bizkaitarra" aldizkarian otsailaren 17an, TEATRO NAZIONALE aldarrikatuaz idatzi bat agertu bait zuen. Ez gaur egun ulertzen den modura: Konpaini handi bat, Instituzioek ordaindua, "noiz behinka euskaraz zenbait antzerki itzuliaz eta euskaraz eman" askotan jokolari erdaldunek entzuten zaien euskara baldarrak belarrietarako desegokia den hizkuntza da. Sabino ARANAK ez zuen horrela ulertzen TEATRO NAZIONALE, harentzako euskaraz eta euskal gizartean oinarrituaz eskeintzen zen antzerkia zen.

Berristaze aroa

Antzerkilari alkimista batentzat, lapiko egoki bat izan da. Hainbat eta hainbat egitura estetiko berri eta zahar erabili ziren eta dudarik gabe, aipatutako donostiar antzerki mugimendua ere lapiko horren barruan aurkitzen da eta dudarik ez dago lapikoaren barruan kutsadura zenbait hartu zuela. Bainan kutsadura hori nongoa den edo kutsurik ez duela azterketetan ibiltzea edota lapiko barruan euskal antzerkiak itzal gutxi izan duela adieraztea ere ximplekeria iruditzen zait. Neretzako garrantzia duena da, antzerki mugimendu bakoitzak bere inguruari, erantzun behar diola eta aro honetan ere lurralde bakoitzak errealitate desberdina bizi ahal izan zuen. Neri atsegin zaizkit donostiar antzerki egileak, Euskal Herriko une jakin bati erantzuten jakin zutelako. Gainera euskaldun abertzaleak ziren eta, dudarik gabe kon-daira ere bagenuen. Guzti hauei atxikituaz euskal antzerkiak idatziaz, donostiar gizartea euskaldunago eta abertzaleago bihurtu zuten.

Donostiar euskal antzerki egileen produkzioa honela agertzen zaigu:

URTEA	M. SOROA	B. IRAOLA	S. BAROJA
1876	<i>Iriyarena</i>		
1878			<i>Pudente</i>
1880	<i>Gabon</i>		
1882	<i>Anton Caicu</i>	<i>Onentzero gaba</i>	<i>Hirmi Harmak ,alabak</i>
1884	<i>Au ostatuba!</i>	- <i>Ardita beti Ardit</i> - <i>Bi Itxubak</i>	<i>Luchi</i>
1885	- <i>Lapurrak,lapurrak</i> - <i>Alcate berriya</i>		

Lehen aipatu bezala, antzerkilari hauei beste bi antzerki idazle gazte gehitzen zaizkie: bata D. Toribio Alzaga eta bestea On José Artola. Belaunaldi bat gazteago izanik ere aurreko bideari jarraitzen diote.

Urtea	M. SOROA	B. IRAOLA	T. ALZAGA	J. ARTOLA
1886	<i>Barrenen arra</i>		<i>Martin Tiñacu</i>	
1887	<i>Urrutiko intxaurrak</i>			
1888	<i>Gorgoinoren estuasunak edo bolisa galdu</i>	<i>Pasayan</i>	<i>Aterako gera</i>	
1889		<i>Xordo</i>		
1891		<i>Leokadia</i>		
1892		<i>Pulpuba</i>	<i>San Tomaseko periya</i>	<i>Praisku</i>
1894	- <i>Abek istillubak</i> - <i>La Concha</i>			
1898				<i>Legorreko arrantzalia</i>
1899	<i>Ezer ta festa</i>		<i>Txanton Piperri</i>	

Aro honetako antzerki egile hauen lanak hemen aipatutakoak baino askoz gehiago dira, baina ziurtasunezko datarik ez dudalako ez ditut aipatzen.

Idazle hauek antzerki mota bat maite dute bereiziki eta hau "Drama Lirikoa" da Kuriositate bezala zerrenda labur bat ondorengoa dugu:

BAROJA, Serafin.- Pudente/ Luchi eta Hiru Damatxo IRAOLA, Biktoriano.- Bi itxubak (Lan hau "los dos ciegos" antzerki lan espainoletik itzulia da) Petra Xardin Saltzailea / Pasayan eta Gabonetan. ALZAGA, Toribio.- Txanton Piperri / Anboto eta Kli Kornamenti SOROA, Marzelino.- Gorgoinoren estuasunak edo boltsa galdua. ETXABE, Alfredo.- La Horda, Lenago il, Bide onera, Lide ta Ixidor, Mirentxu

Antzeskizunen kalitatea eta antzerki emankizunen iraunkortasuna mantentzeko antzerki talde bat sortu zuten "Euskal Fedea" izenarekin. 1886. urtean eratzen da. Talde honen partaideak honela agertzen dira: Antzeslariak: Artola,- Iribarren,- Arregi,- Luzuriaga,- Olazabal, -El chico Mendia eta Apuntadorea T. Alzaga. 1888.urtean D. Toribio Alzagari apuntadorez gain beste kalifikatibo batez deitzen diote: De apuntador Toribio Alzaga el joven escritor.

Aro honekin amaitu aurretik, Donostiako antzerkiak bere antzezki-zunetan izan zituen eta oraindik idatzietan aurki daitezkeen: Hizkuntza, Gaia eta Giroa aipatu nahi nituzke. Gogoan izan behar da antzerki munduan gabiltzanok deitzen dugun Antzez-Gertakizuna, hau da, "ikuslegoaren aurrean gertatutako emankizuna". Emankizun hauek,

Kondairaren oroitzapenean txertatuak geratzen dira, antzeskizuna eskaintzen zaion gizarteak bereganatzen dituenean, eta dudarik ez dago donostiar antzerkiak kondairan zehar bide asko jorratu duela, lekuko iraunkorra lortuaz. Hau da beraz, Donostiako gizartearen ondo bezain sendo errota izanaren arrazoiak.

Gertakizun honi, begiradatxoa ematea interesgarria iruditzen zait. XIX. mendearen azken laurdenean Donostian Euskal giroa ona zen Giro hau hiru zutabe nagusiek sostengatzen zuten. Honela banatzen ditut:

A.- "Euskal Herria" aldizkariaren inguruan biltzen ziren idazleak: Manterola, Baroja, Alen, Soroa, Arzak, Artolatarrak, Bilintx, Iraola, eta abar. Hauen lanak gizartearen zati jakin bati zuzenduak zeuden. Garai hartan ez zen euskaldun irakurle gehiegirik izango beraz, dudarik ez dago euskeraren berriztatzea lortu nahi zutela Euskal Herria aldizkariaren bidez.

B.- Beste zutabea, "Antzerkia"rena zen. Donostiako kaleetako hizkuntza Donostiako antzerkilariok taula gainean erabiltzen zuten. Ikuslearen ulermena eta gozamena ahalik eta handiena izan zedin.

D.- Eta azkenik eta zutabe inportanteena eta beste biak baino zaharragoa eta kementsuagoa "Bertsolaritza" da. Pentsa zer motako bertso giroa egongo zen Donostiako bailara honetan. Alde batetik Xenpelar, Bilintx eta hainbat garaiko bertsolari.

Historiak erakusten digun lez, antzerki berriaren zutabe nagusienera bat "Bertsolaria" da. Daitekeena da euskal bertsolariak garai batean imintzioa ere kantuari lagungarri izatea.

Dakigunez Erroma zaharrean "*Fescenina Irritsuak*", bezela ezagututako dibertimendua bi nekazarien arteko bertso jolas irrigarriak izaten ziren. Diotenez Campania aldean *Horacio eta Mecenas* giro honetan entretenitzen ziren. Baita ere *Marco Aurelio Enperadoreak* gaztetan eguneko nekazari lana amaitu ondoren etxeko sukaldean honelako entretenimenduarekin gozatzen omen zuen. Dibertimendu hauek gure artean hain ezagunak izan ziren "Lan-Ondorioa" rekin ahaidetasun handia dute. Euskal bertsolariaren harira etorriaz, Donostiak eman duen bertsolari ospetsuena Bilintx izan da. Dakizuenez honen bizibidea kontserjearena zen Donostiako Antzoki Zaharrean. Bilintx 1876. urtean hil zen eta heriotz honen egun berean Alfonso XII ak. foruak kendu zituen dekretoa sinatu zuen. Garai hartako "*Diario de San Sebastian*" periodikoak orrialde berean bi iragarki argitu zituen eta honela zioten: *Funerales de los Fueros*. Eta honen azpian Bilintxen hiletaren iragarria agertzen zen. Garaiko Kapitain Generalak ale hau kaleratzea galarazi zuen. Gertakari hauek erakusten digute, garaiko egoeran euskaldun giroak laguntza gehiegirik ez zuela.

Euskarari dagokionez aipatutako antzerkigile hauek erabiltzen zuten euskara berezia izan zen. Adibidez bertsolariak bertsoa bere baitan kantatu ondoren paperean inprimatzen zuten, komeni bazen. Donostiar antzerki egile hauek ere antzeko egiten zuten: Kalean ikusitakoa eta entzundakoa idazten zuten, esateko moduarekin, gaiarekin, pertsonaiarekin, eta abar.

Badakit idazle hauek antzerkiak idazterakoan gaztelerako esaldiak asko erabiltzen zituztela, baino bestalde alderdi positiboa ere ekarri zuen, kaleko euskera bere erabilpenekin eta taularatzearekin, errexa eta ulergarria baitzen ikuslegoarentzat. Honi Donostiako pertsonaiak eta gertaerak eransten badizkiogu gure imajinazioa ametszeko antzerki giro eder batera murgilduko da.

Berriztatze aroaren amaierara iritsi gara. Alzaga euskal antzerki giro honetan arnasten joan ziren eta birrikak ere giro honekin bete zituzten ondorengo aroari ekiteko.

2.- Berriztatzea ´ren txertatzea 1900-1930

Berriztatzearen Txertatzea. Aro honetako lehen hamabost urteak, antzerkiari dagokionez oso baretsuak izan ziren, ez da antzerki gehiegirik idazten. Marzelino Soroa 1902. urtean hil zen. Biktoriano Iraolak azken antzerkia 1909. urtean idazten du, Serafin Baroja 1910. urtean hiltzen da. Batzuek hiltzen dira besteak ixildu egiten dira. Azken kasu honetan aurkitzen da José Artola, Josek dirudienez 1912. urtetik aurrera antzerki lanik ez du idazten, baina gizon hau ezagutua eta gogoratua da bere goi mailako sona antzeslari bezala eman ziotelako. Aurrez esan dudan bezala Euskal Fedea antzerki taldean jokatu zuen.

Aipatzen ari garen hamabost urte hauetan aurreko antzerki generazioko kantore gehientsuek ixiltzen zaizkigu; batzuk Jaungoikoaren altzora alboratu zirelako eta besteak idazten ez dutelako. Salbuespen bat dugu D. Toribio Alzaga honen idatz produkzioa, hala ere murriztu egiten da. 1906. urtean *"Anboto"* opera idazten du, eta 1914. urtean *Asenchi eta Konchesi*. Nagi egiten ote zaio aro honetan Alzagari antzerkia idaztea?

Zenbait ikertzailearen iritziz hamaboskada honetan euskal antzerkiaren pausa edo krisia izan zen baina nere ustez donostiarrek erein zuten haziak izugarrizko fruituak eman zituen eta han hemenka Euskal Herri guztira zabaldu. Honetarako argibide bezala Gregorio Mujikak "Euskalerriaren Alde"n eskeinitako lana laburki bada ere aztertuko dut.

Eta ematen diren datuekin lauki hau egiten dut:

Herria	Ant	Obr	Ant. 1	Ant. 2	Ant. 3	Ant. 4	Ant. 5
Andoain	1	2	J.Jaimista				
Azkoiti	4	5	C.Jaimista	C.Integrista			
Azpeitia	2	2	C.Jaimista				
Eibar	3	4	C.Jaimista				
Elgoibar	1	1					C.Consist.
Hondarribi	3	3					
Irun	1	1	C.Jaimista				
Arrasate	2	2	C.Jaimista				J.Catolica
Motriku	9	18	C.Jaimista		Batzokia	S.Teatro	
Oñate	3	7			Batzokia		C.Carlista
Errenteri	10	21	C.Jaimista		Batzikia		
Donostia	27	36	C.Jaimista	J.Integrista		Principal	C.San Luis C.Catolico Inmakulada Eusk.Fedea
Tolosa	13	22	C.Jaimista		Batzokia	C.Moderno	L.Guipuzkoana M.Tolosana
Bergara	3	6			Batzokia		C.O.Catolico
Billabona	6	6					C.Obrero
Zarauz	4	6					C.O.Catolico J.Antoniana C.Cosistorial
Zumarraga	3	8	C.Jaimista				C.O.Catolico
Zumaia	5	13			Batzokia		C.Catolico

Datu hauek adierazten digute 100en bat emankizun izan zirela eta antzezkizun hauetan 163en bat antzerki lan diferente taularatuak izan zirela, hemen ikusten da lehen aipatutakoa, ikuskizunetan bi eta hiru antzerki labor eskeintzen zirela. Urte honetan Gipuzkoan euskaraz idatzitako 62 antzerki lan desberdin antzestu ziren, honela banatuak: Bakarriketak... 19; Atal bateko antzerkiak.... 40; Bi ataleko antzerkiak.... 3. *Aldiz-Aldiz* A. Barriolaren ekintza bateko jostirudia izan zen gehien bat antzestua eta bakarriketa alorrean Juan Bautista Ayerberen *Ezkonduko al naiz?* izan zela gehien antzeztutakoa.

Aipatu ditugun datu hauek oso datu interesgarriak dira alde batetik, ikusteko aurrez aipatutako ikuskizun kontzeptua gaurkotik desberdina zelaren adierazpena eta bestetik antzerkia euskal herri osora zabaltzen dela eta honela han-hemenka txoko guzietan antzeskizunak ematen zirela. Berriro Donostiara itzuliaz esan behar dut niretzako ez dela Donostian antzerki krisirik. Lehen bera bakarra zen antzezleku eta "Euskal Fedeako" emankizunak baizik ez ziren eskeintzen. Orain ikusi ditugu herri bakoitzean nolako prestakizunak egiten dituzten. Honekin batera adierazi behar dut probintziako egileak egunetik egunera gehiagotzen joan zirela.

Aurreko aroko idazleak bi ditugu: Alzaga eta Artola. Azken hau antzerki produkzioetatik at dago eta antzezkizunen eta kontakizunen bitartez zituen harremanak taularekin. Beste bi idazle Donostiarren lanak plazaratzen hasten dira; bata, Avelino Barriola (1878-1929) da, antzerki idazle honetaz ez da behar dan guzia esan, axaletik ikuitutako gizona da. Euskal antzerkiari astinaldiak emandako egile onak hamaboskada honetan, 1912. urtean ezagutzen dugun lehen hiru ekitaldiko drama idazten du "Lagun txar bat" izenarekin. Euskal antzerki baratzara egitura berri bat ekartzen du. Utzi dezagun gizon hau zeren lehen esan dudan bezala aski mami baitu berari buruz liburuxka bat prestatzeko. Eta beste idazlea Jose Elizondo 1865-1941 Adinez Alzagaren

belaunaldi berekoa da, bainan aro haretatik kentzearen arrazoia hau izan da: nik, ezagutzen dudan lehen antzerkia 1907koa izatea "Idartzeko Jauna" izenez ezagutua dena. Bainan bere lanik aipagarrienena "Dollorra" da, eta antzerki hau da lehen aldiz hiru ekitaldiko drama Donostiako Iztunde Eskolak 1915.go abenduan taularatu zuena. Donostiarra bezala kontsideratzen dut zeren, nahiz eta Tolosan sortua izan, txikitandik Donostian bizi izan zen.

Hamaboskada honetan donostiarrak nagiak eragindako etenaldian daude. Hamaboskada honetako antzerki produkzioen laukia honela agertzen da:

<i>Urtea</i>	<i>T.Alzaga</i>	<i>J.Artola</i>	<i>A.Barriola</i>	<i>J.Olaizola</i>	<i>J.Elizondo</i>
1901		<i>Bixente</i>			
1902		<i>Xabiroya</i>			
1906	<i>Anboto</i>	<i>Pello Kirten</i>			
1907		<i>Motxa erriyan</i>			<i>Idartzeko jauna</i>
1908			<i>Meza berriya</i>	<i>Markesaren alaba</i>	
1909		<i>Josepa ta Bittori</i>	<i>Ingelesaren eurilakoa</i>		<i>Amez gozuak</i>
1910		<i>Mendi mendiyen</i>	<i>Aldiz Aldiz</i>		
1911			<i>Zulo mendarikatua</i>		<i>Alkate ona</i>
1912			<i>Zorigaitzoko eguna</i> <i>Lagun txar bat **</i>		
1914	<i>Armuchi ta konchesi</i>				

** Hiru ekitalditan antolatutako lehen antzerki dramatikoa da.

Lauki honek adierazten digunez Alzagak bi antzerki besterik ez ditu idazten. Gure gizonari zer gertatu zitzaion hamabost urte hauetan antzerki bat eta beste opera bat baizik ez idazteko... Lehenetasun handiagoko egin beharrak zituen gertakizunak adierazten duten bezala. Adibidez, 1901.urtean ezkontzen da Maria Pilar Fernandez Mujikarekin, Madrildarra zen baina emaztearen aurrekoak Aizarnakoak zirenez uda pasatzera herri honetara hurbiltzen ziren. Nahiz eta Madril en jaioa izan Alzagaren emaztea euskaraz ondo mintzatzen zen. Maria Pilar eta Toribioren lehenengo semea. Luis, 1902. urtean jaio eta egun gutxitara hil zen. Bigarrena 1904. urtean izan zutena Jose Javier izan zen. Hirugarrena Koro 1906. urtean. Laugarrena Maria Paz 1912ean eta, azkenik gure artean gaur egun gelditzen zaiguna Maria Luisa anderea da 1913. urtean jaioa.

Familiako habiaren berotasunean Alzagak euskal antzerkiaren mugimendua gertutik jarraitzen zuen. Euskal antzerkia emankizunez eta sormenez handitzen ari zen. Herrietan egunetik egunera sortzen ziren batzoki berriak, bertako aretoetan euskal antzerki emanaldiak eskaintzen ziren eta egunsentiaren argia zeruan zabaltzen den moduan Euskal Herri osora antzerki emankizunak zabaltzen zihoazten. Pentsatu nahi dut antzerkizale hauek buruhauste zenbait izango zituztela euskal antzerkia nola bideratu behar zen erabakitzerako.

Euskal antzerkiarekiko zegoen ilusioa desegin gabe, jauzi kualitativoa nolatan eman eta ezin besteko erabakia hartu zuten: Donostiako Izkera Ta Iztunde Ikastola sortzea. 1914. urtean Barriola jaunak Tepsis'en karrua Donostiara ekartzen du. 1915. urteko Otsailean Donostiako Udalak uztarri motxeko karru honi ezin besteko pertsonaia jarri zion tiraka: D. Toribio Alzaga.

Iztunde Ikastolaren sortzea garaiko giro bati heltzea zen. Inguruko herrialdeko antzerki mugimenduak gure protagonistek ezagutzen

zituzten eta gainera bazekiten antzezleri formakuntza eskolatik pasatzea onuragarria zela bereziki Jaurilaritzarik gabeko herri txikiak beraien jatorrizko hizkuntzan antzezlariek hobeto antzes zezaten. Horrela Barzelonan, 1913. urtean, antzerki eskola sortzen dute eta Gallegoak 1903. urtean Escuela Regional de Declamacion izenarekin plazaratzen dira.

Donostiako Iztunde eskolak lehen lana 1915. urteko ekainaren 5.ean plazaratzen du bi antzerkirekin: "*Gai dagonaren indarra*" bata A. Barriolarena eta bestea M. Soroaren! *Barrenen Arra!* Alzagak bere esker ona ikuskizun honekin eskeintzen die, alde batetik, bere maisu izan zen Soroari eta, bestetik bere lagun mina eta euskal antzerkiaren galdi berriaren eragile izan zen Barriola jaunari.

1915. urtean euskal tepsis gurdia martxan jartzen da. Berriztatzearen Txertatzea aro honetako bost gertakizun aipagarrienak nire ikus-moldeko, Altzagak Iztunde Eskolarekin lortu zituenak, ondoren ikusiko ditugu. Gertakizun hauek niretzako berezitasun zenbait dute; inolaz ere honekin ez dugu esan nahi gainerako guziak meritorik gabekoak izan zirenik. 15 urtetako ibilbidean sorturiko bost niniak hauek ditugu:

Lehen ninia:

1916. urtean A. Barriolaren "*Lagun txar bat*" antzerkia taularatzea. Antzerki lan honek 1912. urtean Lore Jokuetan saria irabazten du, baina lau urte etxeko kutxan itxoin behar izan zuen, honen arrazoia garaikideen ahoetan, zuen zailtasuna zen. Horrela bada 1916. urteko Martxoaren 6an lehen aldiz hiru ekintzeko drama bat taularatzen dute.

Aipatu dudanez, Altzagak inguruan ematen zen antzerki mugimendua ezagutzen zuen; bestela zaila egiten da ulertzea nolatan ekarriko zituen bi eszenografo katalan montaia honetarako. Bi katalan hauek

Bulbena eta Girbal jaunak ziren.

Bigarren ninia:

Urte honetan bertan eta abenduaren 21eko Santo Tomas eguneko emankizuna zela eta Iztunde Eskolekoek izugarrizko espektatibak sortu zituzten "Katerine Eleizegiren *"Garbiñe"* antzerkia medio zela. Antzerki honek esparru berria ikuitzen du: drama historikoa. Gertakizuna XIII. mendean gertatzen da. Emakume bat dramaren protagonista bihurtu eta emakumearen nortasuna erreibindikatzeko du. Bestalde lehen emakumea da euskal antzerkia idazten duena. Iztunde Eskolak, Alzagaren eskutik taularatu zuen arrakasta osoz jokatu izan zelarik.

Bestalde esan behar dut ez dela emakume idazle bakarra. Baita ere aipamen berezia merezi dute Rosario Artola eta berarekin zebiltzan emakume talde batek zenbait antzerki lantxo idatzi baitzituzten, Rotxil'en Sakeltxo adibidez, lantxo hau, 1917. urtean idatzitakoa da. Garbiñe T. Alzagarentzat antzerki atseginenetakoa izan zen. Berak hala zioen eta gainera emanaldi gehienak ere Iztunde Eskolak obra honekin egin zituen.

Hirugarren ninia:

1918. urtean K. Eleizegi beste antzerki batekin saritzen dute *"Loreti"* bezala ezagutua eta Alzaga jaunak taularatzen duena. Honekin Alzaga jaunak drama epikoa taularatzen du. Gure herriari dagokionez lehen aldia da euskal ikusleak ikusten dutela. Drama epiko hau dela eta egun batez On Manuel Lekuonarekin antzerkitaz mintzatzeko ari nintzela ondorengo adierazi zidan:

"Izugarrizko inpresioa egin zidan lehen aldiz antzerki epiko bat ikusteak ziren han hemenka ematen ziran antzezkitun gehienak komediak baitziren eta bat batean

honelako emankizuna ikustea izugarri ederra izan zen"

Laugarren ninia:

1920. urtean Toribio Alzagak euskal antzerkiari bide berria eskaintzen dio kanpoko antzerki obrak euskarara itzuli eta antolatuz. Urte honetan Alzaga jaunak Ramuntxo antolatzen du. Ez litzateke hitz egokia itzuli zuela esatea. Pierre Loti'ren "Ramuntxo"rekin euskarazko dramaturgia egiten du. Gaur egun ulertzen dugun modura lan dramaturgikoa: Egoera eta gizarte jakin batera antolatzea. Alzagak horrela egin zuen egoera jakin eta zehatz batera antolatu. Hori diot obrari zenbait antolakuntza egin ondoren Hendaian antzestu eta Alzagak egilearen zorionak jaso zituen, egindako aldaketak euskarazko bertsioan ongarri izan zirelako. Iztunde eskolak Otsailaren 15ean Donostiako Antzoki Zaharrean taularatu zuen.

Bostgarren ninia:

Beste une berezia 1924. urtean gertatzen da. Alzaga jaunak euskal antzerkiari ematen dion abiada izugarria da, zeren *MacBeeth* W. Shakespearen antzerkia itzultzen du "*Irritza*" izena emanaz. Urte bereko Santo Tomas jaietan taularatzen da. Lan hau Donostiako intelektualitatearentzat errebultsiboa izan zen. Ikus ditzagun garaiko iritziak, batzuk alde eta besteak kontra. Nolanahi batzuek eta besteak Alzaga'k prestatu zuen "*Irritza*" lan bikaina izan zela adierazterakoan bat zetozen.

Aro honen amaierara honela iristen gara; azken bost urte hauetan Iztunde eskolak han hemenka emankizunak emateari ekiten dio eta gipuzkoako herri handitxoenetan urteko emanaldia ematera iristen da. Alzagak azken urte hauek Iztunde eskolaren eta euskal antzerkiaren iraunkortasuna lortzearen dagoen produkzioekin emankizunak prestatzen ditu. Betalde badaude bi arrazoi inportante sormenari behar zion denbora ez eskaintzeko: bata hirurogeieta bost urte zituela eta bestea

Euskal Erria aldizkariaren zuzendaria zela. Guzti honi erantsiaz Iztundeari eskaini behar zion denbora ikasleak taularatzeko eta euskara irakasteko, sormenerako ez zitzaion asti gehiegirik geldituko.

3.- Aro-osatzailea (1930-1936)

Aipatzen ari garen aro honetan Donostian beste bi bide jorratzen dituzte. Bide hauen jorratzaileak ez dira denak donostiarrak. Gertatzen dena da Donostia euskal antzerkiaren kokagune sendo bat dela, eta zerbait esateko zuenak Donostian esaten zuela, horretarako bi bide sendo hauek erabiliaz: Bata Argitalpenak eta bestea Topaketak.

Argitalpenari buruz aipatu behar da aro honetara iritsi baino lehenagotik nolatan Euskal Erria eta Euskal Erriaren Alde aldizkariak desargetu ziren bainan 1928.urtean euskal gazte kezkatu zenbait bildurik Euskaltzale elkarteak sendotu eta 1932. urtean Yakintza aldizkaria sortzen dutela. Aldizkari honetan beste lan askoren artean ere antzerkiak argitaratzen dira.

Argitalpen bati buruzko aipamen bat egin gabe ezin gara gelditu eta hori Antzerti aldizkaria da. 1932. urtetik 1936 urteraino 50en bat antzerki argitaratu zituen. Bestalde aldizkari honetan euskal antzerkiaren informazio zabala eskaintzen zen. Urte hauetan antzerki obren sariketak ere ospatzen ziren.

Topaketak; 1933. urtetik 1936 urteraino euskal antzerki taldeen topaketak Donostian ospatzen ziren eta garaiko euskal talde garrantzitsuenak parte hartzen zuten. San Telmo, Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia edo Gran Kursaalak neguko igande eta jai guzietan euskal antzeskizunak izaten ziren. Adibidez, Antonio M^a Labayen jaunak zioenez 30 emanaldi desberdin ospatzen ziren Euskal herriko leku desberdinetan. Oraingoan euskal antzerkiaren gorputza ondo osatua zegoen bihotza, Donostian zuela gazte eta sendo odol berritzaile Euskal an-

tzerki zale guztientzat.

Atal honekin amaitzeko P. Urkizuk "Euskal Antzertia" (Euskadiko Antzerti Zerbitzua-1984) liburuan 129. Orrialdean honela dio:


1934. Maiatzaren 6an igandez Santelmon bildu ziren antzez gizon guztiak goizeko hamaika t´erditan. Zuzendaritzan eseri ziren T. Alzaga, Eusko Iztundeko buru bezeroa, A. Labayen Antzerti aldizkariaren zuzendari, Euskaltzaleak taldeko A. Barriola, A. Arzelus (Luzear) eta Aitzol idazkaria, epai mahaiko Karraskedo, Olaizola, Barriola, Zaldua, Artetxe, Lizaso, Lopez Mendizabal, Eusko Abesbatzako Alzueta, eta Gipuzkoako Cortesetako diputatu jaunak, Monzon, Irazusta, Pikabea eta Leizaola jaunak. "Luzear" en hitz batzuen ondoren, Leizaola jauna mintzatu zen eta ondoren Eusko Abesbatzak Olaizolaren "Agur Jaunak" eta Guridiren "Amatxo eta "Boga Boga" abestu zituen... Gero sariak banatu ziren.

Arzelus eta Labayen, omentzen ari garen bi antzerkilariak ere hemen aurkitzen dira.

Inoiz euskal antzerkia edonork sakondu nahi badu ezinbestekoa egingo zaio bi iturri hauetara hurbiltzea bata D.Toribio Alzaga´ren lanetara eta bestea A. M^a Labayenen bildumetara.

Ander Arzelus

(1898 - 1949)



1948. urtean Baionan

ANDER ARZELUS TOLEDO (LUZEAR)

1898ko Abuztuaren 15ean Donostiako Alde Zaharreko San Jeronimo karrikan jaio zen. Aita Andrés eta Naxari ama. Hamabi senide izan ziren eta Ander anaietan zaharrena. Anderren sendia abertzalea zen, gurasoen aita Sabino Aranaren jarraitzaile sutsua izanik, enbor zahar honek ondorengo belaunaldietan abertzaletasunaren garra eskeini zuen.

15 urtetaraino ikasketak "Marianistetan" egin zituen. Lehen Ikasketa amaitu eta goi mailako ikasketak jarraitu nahi izan zituen baina langile kabian moko asko zeuden eta laneko bidea hartu behar izan zuen, Donostiako Aurrezki Kutxan hasi zen.

1923eko Ilbeltzaren 26an Amalia Arrietarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten: Amale, Itziar, Ander eta Iñaki.

Anderrek bere lanen zati handi bat "El día" egunkarian eskeini zuen egunkari honek zuen euskerazko ataltxoan. Argia aldizkarian ere lanak argitaratu zituen eta Garitaonaindia hil ondoren Argiako zuzendaria eta baita zuzendariorde postuak bete zituen zenbait epeetan.

Donostiako "Radio San Sebastian"ko asteazkeneroko irrati saioan ere parte hartzen zuen.

1936.ko Uztailaren 18an guda hasi zen eta Ander Arzelus Euzko Alderdiko Uri Batzarrekoa zenez heriotzarainoko gurutz bide neketsu bat hasi zuen: Gurutz bide honen xehetasunak bere alaba Amelek, bere lantxo batean ederki agertzen ditu:

Donostiara "Requeteak" inguratzen asi ziran eta aita kanpora joana zen. Ez genikien non zebillen eta Alderdi 'ko lagunak laister etorriko zala zioten. Ia gañean genitunean. (Requeteak) Zaratz'a joateko mezua eman ziela eta ara joan giñan. An giñala etorri zitzaigun aita. Ez genun jakin orduan, guk beintzat, nun ibilli zan, -ba'diteke amak jakin izatea, ez naiz oroitzen-. Gero jakin genun, Jose Antonio Agirre eta beste batekin, ez naiz oroitzen bestea zein zan,

Madrid'en izan zirala Euzko Araudia edo "estatutoa" legeztatzeko zuzemenetan (Tramite) eta izenpetzeko.

Zarautz'tik Deba'ra, an egun batzuek egin eta Lekeitio'ra eta gero azkenik Bilbo'ra. An zazpiren bat illabete egon giñan. Ez genun askorik ikusten gure aita, egoera artan, egoera ikaragarria artan, Euzko Alderdi'ko Buruetakoa zenez, etzun egoteko astirik izaten eta.

Bilbo'n zazpiren bat illabete egin ondoren, gure ama eta senideok, Habana itsasontzian sartu eta lenengo Frantzia'ra eta bereala Iparraldera joan giñen. Aita Bilbao'n gelditu zan. Gero "Faxistak" gañean zituztela, iges egin bear izan zuten, jakiña! Eta Laredo'raño iritxi ziran. Euzkadi galdua zenez, Euzkotarrentzat guda bukatua zala ta aal ziran guztiak erbesteratzeko alegiñak egin zituzten, baña asko ziranez ezin guztiak alde egin. Orduan, an ziran buruetakoak, gelditzen ziran gudariak ezin zituztela bakarrik utzi eta bereetako bik beintzat gelditu egin bear zutela erabaki zuten. Zein gelditu jakiteko zozketa egin zuten eta beste batzuekin, gure aitari gelditzea atera zitzaion.

Laredon atxilotu eta Santoñara eraman zuten, andik Bilbao'ko Larrinagara eta azkenik errudun aundienekin Burgos'ko penal'era. An bost urte t'erdi igaro zitun, lenengo urtea eriotz zigorre gañean zuela. Urte aren barruan asko erail zituzten, aien artean, Markiegi'tar Polentzi, Deba'ko alkatea.

1943ko Urtarrilla'ren 12an etxeratu zen Ander Arzelus. Berriro lanean hasi behar eta Donostian aurkitu zuen lana bertan hiruzpalau hilabetetan aritu ondoren agindua hartu zuen gutxienez etxetik 250 kilometrotara erbesteratu beharra zeukala.

(Amalek honela jarraitzen du) Lorailla'k 15ean, San Isidro eguna, Madrid'ko jayak ziranean iritxi giñan, ain

zuzen. Urte t'erdi inguru egin genun Madrid'en!... An, bere lanaz gañera, badakigu ixilpeko lanean jarraitzen zula, naiz berak ezer esan ez. Iru illabete generamazkinean, erbusteratze zigorra jaso zioten; adarra jotzeko aña izan zan beraz. Berealaxe idatzi zun Donosti'ra lenbaitlen lana billatzeko eskatuaz. Bizi izateko aña irabazi ezkeronaiko zun. Andik illabete gutxira, Ernani'n zan "Almidones Remy" olan, idazkola lana eskeiñi zioten eta aguro asko bayezkoa eman ere!

1944.ngo Irailla'n etorri giñan Donosti'ra, poz-pozik. Aita, esan dedanez, Ernani'n asi zan lanean. Lan ontatik kanpo bereala asi zan gaztedia biltzen.

Ernani'n lanean ari zela, Donosti'ko Aurrezkitegi'ko Zuzendari zan Lamfus jaunak deituzun. Len esan dedanez, ortxe, Donosti'ko Aurrezkitegian jardun zan lanean, 16 urte zitunetik 1936gn. Arte. Lamfus jaunak deitu zun ba eta bertan lanean asi bear zuela esan zion. Gure aitak par egin omen zun, ori ezinezkoa zela esanaz, baña Lamfus jaunak ba'zun indarra, itxuraz, eta bertan lanera sartzea lortu zun. Benetan eskertzekoa izan zan gure aitaren alde egin zuna! Baña onegia zan luze irauteko!

Iru illabete gutxi gora-bera izango zan an lanean ari zala eta alako batean bi "polizi" igo ziran Zuzendaria'rengana. Gure aitaren billa zijozen; orduan Lamfus jaunak ixtillurik etzula nai eta berak igo araziko zula esan zien, eta bera jetxi zan aitaren billa.

Aipatu bezala zenbait aldiz gertatu zitzaion, poliziak ingurutik jarraitzen baizituen abertzaleak. Azkenean hemen ezin bizia suertatu eta 1946 urte inguruan bestealdera ihesi joan beharra izan zuen.

Bi urte inguru egin zitun Ipar-aldean. Donibane'n lenbizi eta azkena Bayona'n Anglet auzoan. An bere lanean jarraitu zun eta besteak beste ixilpeko Euzkadi irratiko

arduradunetakoa izan zan.

1949ngo. Asieran ondoezik jarria zan. Etzirudin gauza aundia zanik baña ondo jartzen etzanaz, gure ama, "muga" nolabait igaro eta beregana eramán zuten. Bere azkeneko lau illabeteetan beintzat etzan bakarrik egon. Etzuten argi ikusten zer zun eta Parisá eramán zuten ango sendagille ospetsu batek ebakuntza egin ziezaion. Iriki arte, minbizia izan zitekela iruditu arren, ez zuten au argi ikusten, baña iriki zutenean ondo zabaldua zegola arkitu zuten.

1949an, alegia, Dagonilla k 15ean bete zitun 51urte eta 27.an il zitzaigun.

Bi edo iru egun aurretik, iltzeko zorian zala jakinik, nere anai-arrebak, mendiz joan ziran. Mendian zakurrak ere bota zizkieten eta oso gaizki ibilli ziran baña garaiz eta osorik iritxi ziran beintzat.

Ez genun ere Donosti´ra ekartzeko era izango genunik uste, baña Muñoatarrak, orduko Donosti´ko sendi ospetsuenetakoa, Donibane´n bizi ziran eta ayek egin zuten gure aita Donosti´ra ekartzeko bear zana.

Ekarri zuten ba gorputza Donosti´ra, baña il da gero ere ezin izan zuten pakean utzi. Arratsaldean ekarri zuten. Gure ama eta Itziar aizpa berarekin etortzeko baimena izan zuten. Ander eta Iñaki anayak, berriz ere mendiz etorri bear izan zuten. Arratsaldean ekarri, esan dedanez eta urrengo egunean, amarretan illobiratzeko gelditu giñan, iritxi giñanean arritu eta minduta illobiratua zala arkitu genun. Ango apaizak esan zigunez, goizeko zazpirak alde-ra "Poliziak" azaldu omen ziran illobiratzeko aginduz, izkillu eta guzti azaldu ere; apaizak, bildurtuta ezin izan zun ezer egin.

Ez uste onekin guzia bukatu zanik, elizan ere izan genitun ixilluak. Illetak Donosti Zaarrean dagon Santa Mari

elizan, goizeko amaikean izango zirala gelditu giñan, baña arratsaldean Santa Mari'ko parrokoak deitu zigan, Gobernadoreak deitu zula, goizeko zortzi t'erdietan egiteko esanaz. Urduri zan eta oso bildurtuta eta guk eskubidea genula esan arren, alperrik zala ikusi genun. Bereala irratira deitu genun; Angel Molina zan orduan esaten zanez bertako "skeaper"; aita oso maitea zun eta gertatutakoa adierazi eta irratiz ordu berria adieraztea nai genula esan genionean, berealaxe esango zutela eta alaxe egin zun. Gero jakin genun -ez berak esanda- 1.000 pezetako "multa" izan zuela.

Oitura zanez, etxe atarian maya jarri genun izenpeak jasotzeko, emen ere jende asko bildu zan "cola" luzeak egiñaz.

Il da gero ere ezin izan zuten pakean utzi, bere bildur zirala esan diteke.

Berriro antzerki lanetara murgilduaz esan behar dut nahiz eta lan zabala ez izan, garrantzizko lanak direla ondorengo atalean ikusiko dugun modura. Bere lanen zerrenda honela da: "Gibelaundi." / "Neskamearen marmarrak" "Antzertin" argitaratua 1934. 31.en zenbakia.

1938-1943 Ezpetxeko epean idatzitako lanak

- "Killir abestia" Eresi-antzerkia. Charles Dickens'en " Christmas books" etako ipuin batetik sortua.
- "Dirugosea" Hiru ekitaldiko drama.
- "Y ta ni iru" Poncelaren "Tu y yo somos tres"en itzulpena da.

Sormenezko Produksioaren azterketa

Arzelusen antzerki produkzioa bost antzerkitara mugatzen da, produkzioaren murritzasunak azterketa mugatzen du. Amele, Arzelusen alaba zaharrenak dioenez 6 antzerki bat ere bazen baina zenbait etxe-

aldaketa medio galdu egin zuten.

Arzelusen antzerkien egitura honela banatzen da: Komediak, Eresidunak eta Drama. Komedia multzoan hiru antzerki lan sartzen dira: "Gibelaundi", "Neskamearen marmarrak", eta "I ta ni iru", aurrenekoa elkarrizketa, bigarrena, bakarriketa bi lanak antzerki laburrean kokatzen dira eta hirugarrena Poncela, E. antzerkilariaren itzulpen bat. "Kilkir abestia" hiru ekitalditan antolatutako eresidun antzerkia da "Dirugosea" hiru ekintzetan antolatutako drama.

Arzelusen antzerkiaren estetika edo mamiak ez du zabaltasun haundirik hartzen. Berak sortutako antzerkiak hiru ditugu, beste biak, "Kilkir abestia" Charles Dickens'en "Christmas books" etako ipui batetik sortua delako eta "I ta ni iru" aipatu bezela E. Poncelaren obra batean oinarritua.

Arzelus antzerkilari bezala hartzen badut, egile izateaz gain zenbait lan egin dituelakoz da eta disgresio labur bat eginaz Arzelusen alor hau ukituko dut. Abertzaletasun grinak bultzaturik eta euskarari zion maitasunak bultzaturik euskarazko alor gehienak ukitu zituen, antzerkia ere tartean zegoelarik. "Omendutako egileek xurgatutako antzerki giroa" atalaren amaieran Donostiako Euskal Antzerki eguna dela eta San Telmon bildu ziren euskal antzerkiari buruz mintzatzeko hainbat gizon ospetsu eta haien artean aipatzen da Arzelus. Donostiako Kursaalaren azpiko aretoetan Laborda apezak gaztetxoentzat hainbat ekintza antolatzen zituen eta hauetako bat antzerkia zen eta lan hone-tan A. Arzelusen laguntza izaten zuen. Bestalde esan behar da Anderrek adiskidetasuna zuela T. Alzaga teatrogilearekin biak auzokide baitziren, lehena San Jeronimo karrikan jaioa eta bigarrena "31 de Agosto"n. Sasoi honetan ere idatzi zuen "Gibelaundi" eta 1929ko abenduaren 21ean Donostiako antzoki Zaharrean taularatu zuen Iztunde Eskolak. Beranduaxeago baina beti ere euskal giro horretan, "Neskamearen marmarrak" idatzi zuen, bere alaba Amelek, antzeztu. Hirugarren antzerkia zoritxarrez beste giro batean idatzi zuen, Espetxeratua zegoela, giro mikatz haretan antzerki bat idazteak bere

herriari zion maitasuna eta sinismena berarekin zituela adierazten dit.

Hiru antzerki lan hauen gatazkak desberdintasun haundia dute. Idatzia-
k diren garaien arabera askatasunean idatzitako bi komedietan
gatazkak giro alaitsua du, adibidez -bikote baten maitasuna mutilaren
epeltasuna eta neskatzaren ezin egona- eta bestea berriz -Neskame
baten inbiria etxeko andreari-.

Aldiz hirugarren antzerkia Expetxean idazten du eta lehen mailako
antzerkia da - Nagusi baten jauntxokeria, sendiaren haserre eta neska
gaztearen engainua", gerlako giroa ere ukitzen duelarik.

Aurreneko bi antzerkietan kolorea eta erritmoa oso ondo eratuak
daude nahiz eta lehenbiziko lanean, hasiberriaren hutsuneak nabaritu,
hala ere hau ez da arazo haundia gertatzen. Hiru antzerki lan hauetan
modu erraz batean antzirudiak erabiltzen ditu, gaur egun esaten den
bezala "Subtesto" bat aurki daiteke gure egile honen antzerkietan.
Bestalde aurreneko bi antzerkiak irakurri eta ahozko lana paperean ipi-
nia izan dela dirudi, guzti honek erritmo bizia ematen dio antzerkiari,
diskurso laburrak. Hirugarren antzerkia nahiz eta antzirudiz kutsatua
egon hemen nabari da idatz lan bat dela, eztabaidak, koloreak eta errit-
moak zentzu gehiagorekin agertzen zaigu.

Ander Arzelusen lan guztiak oinarri sendo bat dute eta hau euska-
raren erabilera da, eta honi buruz Aita Onaindiak bere "Euskal litera-
tura" IV (Etor-Bilbo, 1975. (Or. 256-58) zera dio:

*NOLAKO EUSKERA?- "Nekamearen marmarrak",
tamalez, lan motza du, baiña bizi-bizi idatzia. Irakur zazu
zatitxo hau; poliki bai azaltzen duela egun osoan lan eta
lan ari dan neskamearen agoak, <señorita>-ren jarduna.*

*<Amarretan jeiki. Amaikaterdiak erte, bañua dala,
gosaria dala, ezpañak piper görri ta begieak zikulu-sal-
tsa beltzez pintatzia dala, arpegi autsez josi, gerria extutu,
bere xanko politai (tanbor makillak dirudite gero!), bere
xanko politai begiratu, gonak pittin bat goraxeago jaso,
ixpillu aurrean (jesus, ixpillu aurrean... oiek komeriak)*

*onera begiratu, ara begiratu, au ikutu, ura ikutu... atzeko-
aldiak ematen dizkion lanak....! aunditxua iruditzen nun-
bait... ta igurtzi ta igurtzi, igurtzi ta igurtzi, <limatu>
naian bezela. <Linea> ez galdu nai ba! Orrenbeste panta-
si gabe begiratzen zigutenan beintzat guri mutil morrosko
bapo askoak! Esango nuke...>>.*

GIBELAUNDI

Alkarrizketa

-1929-

ANDRES ARZELUS'ek eratua

Arratsaldeko bostetan

A las CINCO de la tarde

AGERKAIA

En memoria de D. Víctor Garitaonandía Orolpenean

(G. B.)

1.^o Víctor Garitaonandía jaunak bi egintzetan eratutako antzerkia.
(Comedia en dos actos)

IZIARTXO

BANAKETA

Iziartxo	<i>Irigoyen</i>	anderea
Andre Joxepa	<i>Areitioaurtena</i>	»
Xabier	<i>Beorlegi</i>	jauna
Mikel	<i>Egilegor</i>	»
Apaiz Jauna	<i>Muro</i>	»
Gorgonio	<i>Mujika</i>	»
Silber	<i>Ligartetxea</i>	»
Patxi	<i>Baroja</i>	»
Mutil bat	<i>Ezeiza</i>	»

2.^o **Lenengo aldiz (estreno)** Antonio Arozena'ren bakarrizketa itzaltsua
(monólogo dramático) aurtengo indarneurtzean saritua

ZORIGAITZ MALKOAK

Beorlegi jaunak aurkeztuko du

3.^o Andres Arzeluz'ren alkarrizketa (diálogo)

GIBELAUNDI

BANAKETA

Lore	<i>Areitioaurtena</i>	anderea
Golzon	<i>Ligartetxea</i>	jauna

4.^o Oleskari indarneurtzea (Sesión de bersolaris)

BANAKETA

LORE: Jostun gazte pertxenta sut-autsa baño biziagoa. Geldirik egoteko jaioa ez dirudi.

GOTZON: Erriko mutil jatorra. Garbi ta begikoa. Baña mingañez, ibi-lera ta imintzioetan geldia, txit geldia, ezin geldiagoa.



IDURITEGIA

*Loreren etxeko langela. Ezker eskubi ateak. Atzean leioa.
Errikide gutxi, beren artean josteko makina bat, jostun
kutxa ta bastidore batzuek.*

Lore.- *(Leio aldean eserita abestuz josten ari da. Baña ezagun du
bere onean ez dagoela, bere biotza une larritxoren batean dau-
kala "Ezkongaietan zerbait banitzan..." bezela abestuz.)*

Itsutasuna noski txarra da,
bañan ez askoz ohea
biotzak maite duenean naia
ez argiro jakitea...

Aitaren eta semearen... Besoa azpikoz gora josi ez det ba!
Aitaren eta...

(Sutsu altxatzen da).

Ezin liteke, Jauna, ezin liteke. Ez bai daukat burua ari naizen
lanean. Gizon arrano oiek!... Bañan, nere abanikua nun det?
Baña, nun utzi det nere abanikua?... Aaa! Emen da.

(Amorru biziaz aize ematen dio bere buruari).

San Iorenzto bezela il bear nau ni gibelaundi orrek: erreta, kix-
kalita... jesus au beroa!...

*(Alde batera ta bestera ibiltzen da aserre, bere buruarekin izke-
tan bezela).*

Aizu Lore, Josi dezagun e, obe izango da ta...

(Berriro eseritzen da).

Josi ez, gaizki esan det, askatu, beso au askatu bear det orain eta.

(Tinkada batean egiten du).

Iya autsi nuan. Eta gero ordaindu ezazu oiala. Deabruak eraman-go al ditu gizon guztiak!

(Len bezela abestuz).

Itsutasuna noski txarra da bañan ez askoz ohea....

(Bat batean jeikiaz).

Ez det josi nai; ez, ez eta ez. Ezin bai det azkazaletatik ere tximixta dariotela nago ta.... Ai, ene!

(Aruntz eta onuntz ibili, exeri, altxa, buruari aize eman eta erotu bearrik dabil).

Esatea errexago da, bai. Jauna: bi urte! Bi urte! Laster esaten da bi urte. Bi urte orratx esan. Bañan: Ilbeltza, Iñauteriak, Garizuma Aste Santua, Udaberria; Udara, ibaiko bustialdiak, San Bartolome, sagar bilketa, San Martiñak, Eguarriak. Eta berriro, berriro, ilbeltzetik asi ta Jaungoiko Aurtxo egiñakin amaitu zazute. Bi urte! Errez esaten da: bi urte!

Bi urte egunik uts egin gabe nere etxera datorkidala gizon galbai ori. Ea ni bere begiko izanagatik -ala naizela bai dakit- eta bera

-ta auxe da okerrena- nere begi begiko izanagatik, oraindik: "Lore, udaberri goizeko intza izan nai nuke, nere aldamenean ikusten zaitudanean" ez dit esan. Ori gibela eman dio Jaungoiko gure Jaunak! Mendigain osoan ez litzake beste bat aurkituko, ezta urreratzeko ere.

Zer egin ote det nik, Jaunak onela zigortzeko? Suziria baiño biziagoa izaki ta poxpoloa itzaltzeko ere,

(Astiro)

a... in... bes... te... denbora bear duan gizon batek biotza ukituko zidan ba! Poxpolo bat itzaltzen ere... ola egitea. *(Indar aundiz aize emanaz)* naikoa izaki ta.

Gaur bertan gauzak garbitu bear ditugu. Bai. Bere asmoak azaltzen ezpadizkit, kalte egiten didala ta ez negana geiago azaltzeko esango diot.

(Oldozkor).

Geiago ez azaltzeko!! Nola ordea: nik etortzea nai det eta.... Au da korapilloa.

(Berriro josten asten da).

Lana dala, ezin det geiago. Ez nua gaztearo guztia tximutx ori aldamenean dedala galtzera! Gaurtik aurrera, onela beintzat ez. Onela ez.

(Berriro abestuz).

Gorputza zuan liraña eta
oñak zebizkin aidean...

Aidean, bai... Ara; or dator... Ibillera pisuagorik. Zango bat aurreratzeko besteari baimena eskatu bear izaten dio; ta askotan onek baimena ori ukatzen ez padio gaitz erdi. Jesus, Jesus milla bider.

Gotzon.- (*Barrendik Patxada aundian guzia*). Sartu al nindeke?

Lore.- Aurrera(*Ixialdia*) Aurrera..!!! (*Ixialdia. Ta azkenik altxa ta ezkerreko atea irikiaz*) . Bañan gizona, il egin al zera?

Gotzon.- (*Sartuaz*) Oñetako lokarriak... Egunon aurrena... Ba, oñetako lokarriak ezkutatu nairik ari nintzan. Agerian ekartzea ez bai zaizu atsegin izaten.

Lore.- Ta goiz guzian lokarri oiek gordetzen astirik ez al dezu izan?

Gotzon.- Astia, egia esatera, bai, izan det ba. Baña "Sartu al nindeke" galdetu dedan artean etzait bururatu ere. Oroimenaren gauzak, emakumea, oroimenaren gauzak!

Lore.- (*Bere esanaia lenengo aldz menderatuta*). Tira ba, eseri zaite nai badezu, ler eginda etorriko zera noski ta.
(*Bera eseriaz*).

Gotzon.- Oraintxe eseriko naiz. aurrena txapela beste alki batean uztera nua.

(*Utzi baño len alkia musu-zapi batekin astinduz*).

Lore.- Ez da zikinduko, gizona, etzazula bildurrik izan.

Gotzon.- Tabernako oitura da eta...

Lore.- Bai ba.

Gotzon.- Aita ondo al dago?

Lore.- Ondo bai, jaunari eskerrak.

Gotzon.- Eta ama, ondo al dago?

Lore.- (*Moztuaz*). Guziak, guzi-guziak txit ondo gaude.

Gotzon.- Aizpatxoa ere ondo beraz?

Lore.- Guziak ondo gaudela esan dizut ba?

Gotzon.- Ta osaba Jon?

Lore.- Osaba Jon, nere amaren anaia da.

Gotzon.- Baña, ondo al dago?

Lore.- Ai!

Gotzon.- Zer dezu?

Lore.- Ezer ez, ezer ez...

Gotzon.- Eseritzeraz nua ba.

(*Lorengana alki bat aurreratu ta lengoari bezala autsa kenduaz*).

Lore.- Tabernako oitura, e?

Gotzon.- Orixe.

Lore.- (*Gero ta beroago*) . Tabernara juango ez baziña, zorioneko oitura ori galduko zenuke.

Gotzon.- Laxter galduko det ba. Bi urte badira ardoak on egiten ez didala ta, egunetik egunera geiago susmatzen det eta...

Lore.- Noski. Zuk bear zenukena Zestua'ko ura da, Zestuako urak barrenak pitin bat garbituko lizuke.

Gotzon.- Je! Gogorra zera. Beti umore onarekin. Bai atsegin izaten zaidala zurekin itzegitea, Lore.

Lore.- Bai, e? Bi urte dira nik ere orixe nabaitzen dizudala.

Gotzon.- Je! Ta ikusgarria. Asieran gurekin jarduten ziran zure aita, zure ama, zure osaba ta zure aizpatxoa. Baña gero, aitzak bere aroztegia zala; amak etxeko eginbearrak zirala; osaba Jon musean ari ezpada aspertu egiten zala, ta azkenik aizpatxoa, lagunak zirala ta ez dakit nik zer zala... gauza da zu ta ni bakar-bakarrik utzi gaituztela.

Lore.- Ta kontu eman, zu azkenean bakarrik gelditzen ez ote zeran.

Gotzon.- Zer, kanpora al zuaz ba?

Lore.- Aizea artzera...

Gotzon.- Beti umore ona zuk.

Lore.- Bai, beti, beeeti.

Gotzon.- Baña, Lore, benetan kanpora al zuaz?

Lore.- Noski, lan bat eramatera.

Gotzon.- Noiz?

Lore.- Zer ordu degu?

Gotzon.- Ordua? Zaude. Ni etxetik amar ta laurdenetan irten naiz. Nere

etxetik tabernara, amar bat minutu, an inguruan bai dago: beraz, amarrak eta ogeita bost. Amaiketako lege bat egin det, txakolin puxka batekin: beraz amaikak laurden gutxigo. Errufinoren kupeltegira jetxi naiz: amaikak amar gutxi. (*Guzia astiro, baña batez ere ondorengo au*) Matxari sulfatoa eman bear zaion ala ez eztabaidan aritu naiz: amaikak ta bost...

Lore.- (*Geiago ezinean*). Bañan gizona, erlojurik ez al dezu?

Gotzon.- Bai, baña... ordua orrela buruz asmatu nai izaten det.

Lore.- Zuk asmatu bitartean, kanpantorrekoak bi aldiz ere joko du ordea.

Gotzon.- Obe jotzen badu nerea ondo jarriko det.

Lore.- Eta zer ordu dezu zurean?

Gotzon.- (*Erlojua atera ta belarriratuaz*) Elizakoekin ala geltokikoarekin! nai dezu?

Lore.- (*Jeikiaz*) Deabruaren isatsekoarekin! Ekazu erlojoa (*Indarrean kendu, ordua ikusi ta atzera biurtuaz*) Amabiak laurden gutxi. Alaere zer ordu dan badakigu. Arranoen gizona!

Gotzon.- Jenio bizia dezu gero.

Lore.- Ez gizona. Baña erlojua patrikan euki ta ordua asmatu nairik astia orrela galtzeak, edozein irakitan ipintzen dezu.

Gotzon.- Eta ez dakizula zergaitik egiten dedan? Bere arrazoiak badi-tut. Egizu kontu egunen batean erlojurik gabe irteten naizela, orduan zer. Gañera gabeen ere argirik gabe lo egiten bai det, noiz edo noiz. Poxpoloak aztutzen bazaizkit ere.

Lore.- Ta noizbait geldi geldi ibiltzen aztutzen bazaizu ere, bada ezpada, presaka, laxterka zergatik etzera atzeka ibiltzen asten?

Gotzon.- Ori etzait aztuko, ez... ori jatorrizkoa bait det. Aitarengantik datorkit.

Lore.- Jatorrizkoa beraz, e? Ezin zuzendu leikena?

Gotzon.- Ezta bear ere. Nere aita gixaxoak esaten zidan amaika aldiz: "Pixkor dabillena estropozo egiten dik, y abil beti poliki poliki, geldi geldi...".

Lore.- Ondo erakutsia zaude alajañetan! (*Eseritzen da*).

Gotzon.- Esango nuke! Nere aita zanak, asko, asko zekien. Ao irikitzen zuan bakoitzean zer edo zer erakusteko izaten zan. Itz batean gosea baño txiroago jaio ta nereak ditudan lurak berak utzi zizkidan... Samintasun bakar bat eraman zuan ludi ontatik...

Lore.- Zein gero?

Gotzon.- Neri karrera bat ez emana.

Lore.- Karrera zuri?

Gotzon.- Bai, ikasten asi nitzan.

Lore.- Zertarako?

Gotzon.- Telegrapotarako.

Lore.- (*Parrez*) Telegrapotarako? zu telegrapotarako? ja, ja, ja, ja.....

Gotzon.- Bai, telegrapotarako, bai etzazula parrik egin.

Lore.- (*Berririo altxata*). Zaude ixilik gizona, ondo egin zenun ez jarraitzea. Eskutitzak, ttaka ttaka bialduta ere, zure bitartez botatako parteak baño lenago iritxiko bai ziran.

Gotzon.- (*Aserratu gabe baña*). Jenio bizia dez, arranotan.

Lore.- Jatorrizkoa nik ere

Gotzon.- Bai ?

Lore.- Bai jauna.

Exertzen dira. Ixilaldia. Gotzon baba dariola Loreri begira. Lore'k noizbait zer edo zer esan erazten ote dion aleginduz begiratu xamurrak egiten dizkio).

Gotzon.- Beti parra ezpañetan dezula zaude Lore.

Lore.- Beti, ez.

Gotzon.- Nere aurrean beintzat, bai.

Lore.- Ori besterik da. Gauza guziak izan oi dute bere arrazoia, zuk len esan dezun bezala.

Gotzon.- Bai!

Lore.- Bai noski... kaiku zarra.

Gotzon.- Au Lore, au ! kaiku zarra ez dio ba! (*Pozak zoratzen*) Je...

(Ixilaldia. Lorek begiak Gotzon' i begiratzeko besterik ez ditu.

Gotzonek ere zorutzen begirutzen dio, baña Loreren naia ezagutu gabe. Azkenik ala dio).

Gotzon.- Ikusgarria izaten da gero, bi lagun, gu gauden bezelaxe, elkarri begira, itz bat ere esan gabe, baña zerbait esango balute bezela egoten diranean. Ta askotan gertatzen da...

Lore.- (*Bere onetatik aterata*). Askotan gertatzen da, bai askotan.

Gotzon.- (*Jeikiatz*). Zigarrotxo bat erretzen utziko al didazu.

Lore.- Erre ezazu bateko bastoia ere nai badezu.

Gotzon.- Ondo ezpaderizkiozu ez det erreko.

Lore.- Neri ondo iruditu ez! Ler egin artean ari zindezke nai badezu:
Neri zer zait ba!

Gotzon.- Bañan zer zomorrok eldu dizu bat batean?

Lore.- Bi urtean billa nabillen ate bateko maratilla ezin arkitu det eta.

Gotzon.- A zer gauza!

Lore.- Utsa noski...

Gotzon.- Ori ez da beintzat orrela jartzeko. (*Leiora joan eta zigarroaren kea poliki poliki botiaz*). Begira begira nola dijoan kea.

Lore.- (*Xamurki eseriaz*). Ai nik ezin nezake geiago. Arira nua.

Gotzon.- (*Leioan*) Emendik irten al da Argaingo Pello?

Lore.- Bai, emenditxetik.

Gotzon.- Zure aitarekin al zegon ?

Lore.- Bai, ber berarekin. Zerbait itz egin bear bat bazuan noski ta...

Gotzon.- Oso lagunak dira.

Lore.- Oso (*Bizi*) ta orain itxuraz, lagun baño geixago izateko bidean dabiltz. Pellok seme gazte bat bai du...

Gotzon.- A, bai! Juan mari. Mutil jatorra ala ere.

Lore.- Ez al da ala?

Gotzon.- Oso begikoa mutilla, ta zentzuduna... Mendigaingo mutillik onenetakoa gañera.

Lore.- Poztutzen nau ba, zuk orrela uste izateak.

Gotzon.- Zer, zure aizparen atzetik al dabil ba?

Lore.- Bai zera! (*Keñuz, bere atzetik dabil lela adieraziaz*).

Gotzon.- Nola? (*Lore k irriparrez bere burua erakusten dio berriro*)
Zer?

Lore.- Nere atzetik dabillela.

Gotzon.- (*Arrituta*). Zure atzetik?

Lore.- Bai gizona, bai. Nere atzetik dabillela. Zer, arritzekoa al da nor-bait nere atzetik ibiltzea? Ain itxusia naizela al derizkiozu ba!

Gotzon.- Baña, zuk noiz edo noiz itz egin al dezu Juan Marirekin?

Lore.- Askotan. Inguruan bizi bai gera.

Gotzon.- Ez naiz ni txantzetan ari. Gai auetaz itz egin dezuten galdetu det.

Lore.- Itz egingo ez genun ba

Gotzon.- Noiz?

Lore.- Gai auetaz... bart arratsean bertan.

Gotzon.- Bart arratsean?

Gotzon.- Zer garaitan?

Lore.- Zaude. (*Gotzon'ek bezela astiro, geldiro itz eginaz*). Nik apaldu nuanerako.... zortziak izango ziran. Bai, zortziak ziran, Ani-metako ezkillla entzun nuala oroitzen naiz ta. Gero, emen alda-meneko Maritxurekin berriketan egon nintzan: beraz, zortziak eta amar. Gero gabeko izparringia etorri zan eta aitari berriak irakurri nizkion: beraz, zortziak eta ogei. Ondoren zu etorri ziñan... eta beti bezela jardun giñan: beraz amar t'erdia. Zu jua ziñan...

Gotzon.- (*Bare-bare*) Nere bizkar par egin nai al dezu, lore?

Lore.- Ez jauna, bein edo bein erlojua aztutzen bazait ere ordua asma-tzen ari naiz.

Gotzon.- Baña nik bereala jakin nai det ordea.

Lore.- Jenio bizia daukazu. Poliki, poliki.... Pixkor dabillenak estropo-zu egiten du ta, zure aita jakintsuak erakutsi zizun bezela. Ura gizon jakituna zen ezta!!!!

Gotzon.- Tira, tira... entzun neri benetan.

Lore.- Zer dezu?

Gotzon.- (*Larri- larri*) Zera... zera... Eseri zaite, Lore, arren nere aldamenean.

Lore.- Nola ez.

(*Alki bat jartzen du Gotzon-enaren aldamenean, zatar bat nun edo nundik atera, ta bestea arrituta aoa zabalik berari begira dagola, zatarrarekin alkia astintzen du.*)

Gotzon.- Baña umea, zer ari zera ?

Lore.- Tabernako oitura. Guztia ikasten da, gizona.

Gotzon.- Ez al dizut benetan ari naizela esan?

Lore.- Baña nor ari da emen txantxetan?

Gotzon.- Zu, Lore, zurekiko.

Lore.- (*Xamurki berriro eseriaz*).Tira ba. Ona ben benetan, par egiteko gogorik gabe bai barrendik eta bai axaletik.

Gotzon.- Egia al da zu Juan Mari´ren gogokoa zerala ?

Lore.- Zuaz aurreko etxeraño, gizona ta galde zaiozu berari, ikusten danez ni gizon orren gogokoa izatea arrigarria egiten zaizu ta.

Gotzon.- Ta Juan Mari...

Lore.- Oso begiko det.

Gotzon.- Baña, Lore...

Lore.- Oso maite det Gotzon. (*Jeikiaz*) Ta ba al dakizu zergatik? Ba koipe gorri orde z bere zañetan odola gorri dabilkilako, ezkaratzean ikusten banau, etorri ta bere maitasuna azaltzen didalako. Ta esaten dizkidan gauza guztiak, begitan sua duala, itzetan berotasuna jarriaz, buruko illetatik ere txinparta dariola: berarentzat autatutako emakumeari gizonak itz egiten dioten eran esaten dizkidalako. Ta ez zuk maastiai sulpatu eman bear zaion ala ez esaten dezun bezela. Gibelaundi! Orra garbi esan zergatik maite dedan Juan Mari.

(*Berriro eseritzen da, bañan urrutia*).

Gotzon.- (*Txaututa*). Ederki! ederki! Odol orde koipia ez baña jela bezelaxe utzi nazu.

Lore.- Ainstesteraño, e?

(Pozaz, baña azalera azaldu gabe).

Gotzon.- Ez dit beraz ezertarako balio, bi urtean egunik uts egin gabe, etxe onetara etorri naizen bezela etortzeak?

Lore.- Alki-egilleak izan ezik, ez du inork ezer irabazi orrekin.

Gotzon.- Ez da gero par egiteko gauza....

Lore.- Ez bai dizut zer esan nai dezun ulertzen?

Gotzon.- *(Biotz ikaraz)* jauna.... zure etxera egunero etortzeak ez al dizu ezer adierazi? Ez al dezu onenbestez ulertu nik maite zaitudala, nik asko maite zaitudala?

Lore.- *(Barrendik poza bañan arrituta bezela balego).* Zuk ni maite nazula?

Gotzon.- Baña egunero etortzen ez natzaizu ba?

Lore.- Gizontxo, astoz esnearekin etortzen dan mutilla ere egunero-egunero etortzen da, amarentzat txantxilla bi esne ekartzera, baña ala ere ez det uste maite nuanik.

Gotzon.- Ta berdin jotzen al dituzu bi etorrerak?

Lore.- Baña, zuk noiz edo noiz gai onetaz zerbait esan al didazu?

Gotzon.- Ni... ni... egunero egunero etortzen natzaizu bi urte abetan...

Lore.- Ta orrela jarraitzeko asmoak al zenitun?

Gotzon.- Noski ba...Ikusi arte....

Lore.- Zer ikusi arte?

Gotzon.- Zera... ikusi arte.

Lore.- Jostun kutx au burura botatzen nizun ikusi arte! Ezta!

(Aitxata).

Gotzon.- Jenio bizia dezu.

Lore.- Oso bizia. Ta zuk zurea beste lagunen batekin trukatu baze-nu, etzenduke askorik galduko.

Gotzon.- Zuk agintzen didazun guzia egiteko gertu naukazu.

Lore.- Ezetz?

Gotzon.- Baietz.

Lore.- *(Isekaz)* Ba, orain, irteten zeranean, nere aitagana juan... eta zoriondu zazu.

Gotzon.- (*Bildurrez*). Zoriondu? Zergatik?

Lore.- Juan Mari ta... nere aizpa Nekane, ezkontzen dirala jakin dezulako.

Gotzon.- (*Zoratuaz*). Baña Juan Mari... Nekane... Nekane... Juan Mari,... Juan Mari... Nekane....

Lore.- Bai, lapikondo, bai... Nekane... Juan Mari...

Gotzon.- Alare... Zañetara Odola biurtu zait atzera... Ta nolatan izan da ori? Ori nolatan izanda?

Lore.-Nola izango zan? Gauza oiek izaten diran bezela... Igandean begiz jo, astelenean itz egin eta asteartean ezkondu.

Gotzon.- Laxterregi da ori... Baña dana dala, odola odol biurtu zait beintzat eta.

Lore.-Bai e? Kontu eman ba, ziaro jelatuta bere onera etorriko ez dan eran gelditzea nai ezpadezu.

Gotzon.- Ni aurrera ere egunero etorriko naiz.

Lore.- (*Ikaratuta*). Zeeeer?

Gotzon.- (*Era berean*). Ez al didazu etortzen utzi nai?

Lore.- Ara gauza bat esango dizut: nik maitatzea nai badezu, gibela metzeko zer edo zer artu bearko dezu. Zure aitaren jakite aundizko esaerak idaztitxo bat egiteko gorde itzazu arreta aundiz.

Entzun: biyar goizeko bostetan elizara juango naiz otoitxo bat egitera, ilaren 13an betiko oitura det. Zazpitan azokara, lorerik ba ote dagon ikustera. Ta an arkitzen ez padet Joxeparen loreto-kira juango naiz. Gero ibai aldera ibiltaldirxo bat egitera. Ondoren Mirentxurenera txiki bat gaizki xamar dauka ta, bisita egitera. Andik elizara meza entzutera. Gero etxera gosaltzera. Gosaldu bitartean Zubigain kaleko leiora kale Nagusira jotzen duen balkoira, ta enparantza gañeko ikustokira azalduko naiz. Gosaldutakoan Maria Panpalona ikustera, beretzat egin dedan lantxo bat eramanaz, eta Andres jaunaren etxera ia zor didana ordaintzen ote didan. Eta gero goxotegira, ta gero xapi batzuek erostera, ta gero oñetako berri batzuen billa... ta gero goguak

ematen diran tokira bai?

Ta orra, toki oietan guzitan guzitan, aitu? Toki oietan guzitan ikusi nai zaitut, iristen naizenean eta alde egiterakoan. (*Gotzon arrituta altxatzen da*). Eta bat edo batean uts egiten badezu, nik maite zaitudan jakiteko, bazeundeke ni zuk maite nazula jakiteko egon naizen aña ordu. Biyar arte beraz, Jaungoikoak nai badu. (*Erabakitako gauza bat egiten dan bezela juaten da eskubiko ate alderuntz*).

Gotzon.- Baña, Lore, entzun zaidazu....

Lore.- Biyar arte, Jaungoikoak nai badu.

Gotzon.- Baña, iru kaletan batera....

Lore.- Orrela erakusten da maitasuna! Biyar arte jaungoikoak nai badu.

Gotzon.- (*Eskubiko atetik izkutatzen da. Arrituta, ateruntz dijuala*).

Biyar arte Jaungoikoak nai badu. Bai, etzi beintzat... bizirik ego-teak bere lanak emango dizkit. Gibelaundia detala, lasaia naizela ta zerbait artzea, tira ainbestean; baña berak ere zer edo zer artu lezakela uste det odola pittin bat loditzeko. Arrayoa ori da zezen suzkoa!

Dana dala, nik bearrena iritxi det. Nere aitak esan oi zuan: "Poliki poliki" Ta biyar arte Jaungoikoak nai badu.

(*Ezkerreko atetik juaten da, eskubira begira*).

Lore.- (*Berriro sartuaz*). Eztenkada galantak eman bear izan dizkiot...

Baña au besterik da. (*Leiora joanaz*). Biyar arte, Gotzon.

Gotzon.- (*Kanpotik*) Jaungoikoak nai badu, Lore Jaungoikoak nai badu.

Lore.- (*Sartuaz*). Naiko eztu ba!

Gotzon.- (*Kanpotik*). Agur xexen-suzko.

Lore.- Garai zan, jauna. Gai zaudeten neskatzak, entzun zadazute, senargaia aukeratzekoan, naiz itsusi, naiz polit, bixkar makur ala larden, ile kixkur ala burusoil, argi edo gixajo samarra, nai dezuten tankerakoa autatu baña! ene! gibelaundirik ez. Etzazute orre-lakorik egin.

Bi urtean, noiz baño noiz nai dana jakingo zai egotea zer dan dakien batek esaten dizue, gero.

Gibelaundi batekin baño neskazar obe. Bai alajaña. Ni berriz jaioko banintz beintzat.

ZAPIA

AMAYA

NESKAMEAREN MARMARRAK

Bakarrizketa

**Aurreneko aldiz, Arzeluz´tar Ameletxok
Poxpoliñetan egiña.**



(Autsak ateratzeko zatar batekin, bizi-bizi sarturik).

Ume sabelberatuak alenak! Lurretik arrabete jasotzen ez, ta oien pantasia. Ia noski ni nor naizen oiei ezer agintzeko! Lepezurra puskatuko al dute.... Oraintxe buruz gain egiñarazi didate neri beintzat eta, dabiltzala ipurdiz gora ere nai badute. Beren amona zanak agindu dezaiotela. (*Aulki ta mai batzuen autsak astintzen asi, ta bereala geldituaz*) Okerrena ez da ori. Gero "señorita" etorri orduko, mokoa kanebete luxatu, or asiko zait: "Roxita, pero en todabia la kamas sin aser?" Errex egiten dizkin arrek. Amarretan jeiki. Amaikaterdiak arte, bañua dala, gosaria dala, ezpañak piper gorritz ta begiak zikulusaltsa beltzez pintatzia dala, arpegi autsez josi, gerria extutu, bere xanko politai (*Tanbor makilak dirudite gero!*) bere xanko politai begiratu, gonak pittin bat goraxeago jaso, ixpillu aurrean (*Jesus, ixpillu aurrean... oiek komeriak*) onera begiratu, ara begiratu, au ikutu, ura ikutu... atzekoaldiak ematen dizkion lanak...! Aunditxoak iruditzen nunbait... ta igurtzi ta igurtzi, igurtzi ta igurtzi, "limatu" naian bezela. "Linea" ez galdu nai ba! Orrenbeste pantasi gabe begiratzen ziguten beintzat guri mutil morrosko bapo askoak! Esango nuke... Ta bera "mariya panpalona" baño arroago, jo eta tira onera dabilen bitartean, autsak atera, lurra argizaia eman, gosariak jarri, aurrak jantzi... ta jantzitzea naikoa ezta-la, bateri mukiak atera, besteari atzea garbitu, okerrrik egin ez dezaten zaindu "¡Kontuz! Txiki, atoz onera, ez igo orrera, erori egingo zerala", au pix egiten jarri, orren lotsagabekeriak entzun, suari begiratu, eltze-ari kontu artu... ta bera etortzen danerako kuartuak egin ta maia pronto jarri. Lau esku ta zortzi zanko ditudala uste ote du. "Mari Lirdingax" orrek

Ta bereak aundiagoak! Lengoan esan etzidan ba: "Ai Roxita! Lastima de lombre. No merese Roxita. Espiña eso asi debia ser! Espiña alajaña! Artuko liken berak ni bezelako "espiña" izatea, animo sañbo, bakalo esurra ematen din-ta. Gero... batean eltzekaiak gatzik eztaukala, bestetan patatak peatu egin zaizkidala, au ere egin dala edo

bestea egosi eztala.... Jakiña ba... Ta arritu egiten dira! Toki guzitan egotea nai al dute ba? Ni Jaungoiko banitz, enitzake, zerbitzen egongo-ba, orra!.

Señoritua, bai... ai, señoritua! Ori bestelakorik da. Ori gizon muñua! Lastima andre zulantxi gabekoakin ezkondua izatea. Ezkongai egon balitz, orixe bai izango zala nere gustokoa. A zer pareja egingo genuan! Pareja ideal! Ia.... ni Roxita, ta bera Kristobal. (*Larri-larri autsak bizi-ki astinduez*). Ene, Jesus maitea! Atia zan... Ta kuartuak egin gabe, maia jartzeko, ta umeak auzoan... Xexenak izango dira gaur gure etxean... Arantzazuko Ama, nitzaz erruki zaite.

(Sartzen da irten baño biziago)

AMAIA

Antonio Maria Labayen Toledo

(1898 - 1994)



Antonio M^a Labayenen antzerkia aztertzen

Antonio M^a Labayen, mende erdi luzez euskal antzerkian murgildua egon da eta ondorengo belaunaldia osatu dugunontzat, maisu honen antzerki lanak eredugarriak izan zaizkigu.

Labayen jaunari, antzerti ibilbidea, mende-erdi luzeko gurutz-bidea gertatu zitzaion, hainbat pauso gozamenezkoak emanaz alaitu zen bitartean iluntasunean pauso mikatzak ere eman behar izan zituen, samintasuna barruan itoz.

Gurutz-bide honen saminak, atal bihurtzen ditut, honela sailkatuz:

- 1.- Antzerki hastapenak;
- 2.- Gorrotoaren samina;
- 3.- Itsumenaren nahigabeak;
- 4.- Epilogo.

Labayenen antzerki produkzioa oso zabala da eta lanak bitan banatzen dira, antzerki produkzioak, sormen eta itzulpenak barne direlarik, eta beste alorra ikerketa. Bi alorrak oso garrantzizkoak izan dira eta oraindik ere badira, lan hauen garrantzia ikusteko aski da Bibliografiari begirada bat eskeintzea. Gure gaurko lana gehien bat antzerkietara mugatuko da. Egileak berak honela dio bere antzerki produkzioari buruz, 1978. urtean Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratutako "Muñagorri" dramaren, "Aurreitz dan azkenitz..." Or. 9. hitzaurrekoan:

"...Geldirik egoteko garaia duzu, bai gizona! Esango du norbaitek. Ez da gezurra. Neronek sortuak eta erdal izkuntzetatik itzuliaz 40/50 antzerki lanak bururatuak ditut naiz batzuek ez egundano argitaratuak izan.

Labayen jaunak aipatzen duen kopuru horretatik, nik ezagutzen ditudanak 30 antzerki lan dira hauetatik 21 sormenezkoak dira eta 8 antzerki lan itzulpenak.

Labayen jaunari bere lan gehienak argitaratu dizkiote, baina hainbat eta hainbat egileen ajeak ere gure maisua kutsatu zuen eta argitara-

tu ezak hainbat euskal antzerki ilunpeko kutxan geldiarazi zituen.

1.- Antzerki hastapenak (1920-1936)

Epe honetan Labayenek 8 antzerki lan sortzen ditu eta bi antzerki obra frantzesetik itzuli. Sormenezko antzerkiak hauek dira: "Gizon bizarpeituti eta emazte bizartsuti", "Txinparta buruzagi", "Ostegun gizona", "Euskal eguna", "Maya", "Mateo txistu", "Iparragirre" eta "Irunxeme". Itzulpenak "Berezi" eta "Irri-itzaldia"

"Txinparta Buruzagi" antzerkiarekin, 1920. urteko abenduan Donostiako Iztunde Eskolako saria jasotzen du. Saria A mailakoa izanik. Sasoi haretan antzerki sariak hiru ataletan banatzen ziren, A.- atalekoak, antzerki luzeak, bi eta hiru ekintzetako antzerkiak, B.- atalekoak, ekintza bakarreko antzerki laburrak eta azkenik, C.- atalekoan bakarrik sartzen ziren. Donostiako Iztunde Eskolak 1930. urtean "Euskal eguna" antzerkia taularatzen du.

1.1.- Egitura

Sasoi honetako antzerkiak komediak dira; "Euskal eguna" eta "Maya" nahiz eta komediak bezala kontsideratu aurrenekoa kontakizuna da eta bigarrena ballet modura antolatutako ipui bat. Epe honetako antzerkiak laburrak dira hiru antzerki izan ezik "Gizon bizarpeituti eta emazte bizartsuti" bi ekitaldikoa eta "Irunxeme" eta "Txinparta buruzagi" antzerkiak hiru ekitaldietan antolatuak daude.

1.2.- Estetika

Zortzi antzerki hauen estetikak ez digu gauza berririk erakusten garaikideen eskolari darraio.

Gatazkak ere hainbat egileek aurrez erabilitakoak dira, adibidez <ezkontza> lau antzerkitan erabiltzen du <olgeta> eta beste bi antzerkitan eztabaidarik ez da sortzen, gatazka alorrean sartzeko moduan ez behintzat.

Koloreari buruz lehen antzerkiak izanik eta bereziki komedietan, desorekak ikusten dira eta errena agertzen zaigu. Atal bateko antzerkietan erru hau hobeto estaltzen da antzerkien laburtasunagatik bainan antzerki luzeetan kolorearen desoreka nabariago gelditzen da.

Erritmo bizikoak dira antzerkiak nahiz eta kolorearen desorekak errenaren ibilerara bihurtzen dituen zenbaitzutan eta bereziki, antzerki luzeetan non erritmoa muturkatzen den nahasketa zenbait sortuaz.

1.3.- Giroa

Antonio M^a Labayen Donostiako antzerki mugimenduari oso lotua zegoen. Ikasketetako oporretan bere zaletasuna izaten zen Donostiako Iztunde Eskolak antzerkiak taularatzen zituenean banbalina artean egotea.

Dudarik ez dago Alzaga Labayenentzat maisu handi bat zela, hori adierazten du 1935. urteko Antzerki aldizkariko 45. aleko sarreran:

"Euskal teatroaren aztarrenak bilatzen gabiltzanoi gero ta geiago azaltzen ari zaizkigu eredutzat artu ditezken gaiak. Lenago ajola gutxi ematen genien oitura, jolas, zeizen eta atsoitzetan dago antzertiaren erne miña. Errian sakabanatuak dauden apurrak bildurik; komedi euskaldunak egin ditzagun, au da nere asmoa. Lantxo onek, jostirudia deritza Marzelino Soroa-ren "Abek istilluak" " Gorgoinoren estuasunak" eta Toribio Alzagaren "Aterako gera" omen eta oroiz euskal komedi bideak donostiar jator oiek urratzen asiak bai ditugu, ta beren lanak "jostirudi" izen ortaz deitu zituzten. Soroak kale arteko euskera mea besterik ez bazekien, Alzagak geroztik errian barrenduaz "Bost urtean" "Biotz berak" "neskazarra" ta beste antzerki eder batzuek idatziak ditu. Irritsuak geienak. Onelako lantxoak par eta jolaserako besterik ez dirana ta ez bitza orregatik iñor baztertu..."

Bestalde esan behar dut Alzaga maisutzat izan arren Labayen jauna ez zela inola ere loxintxatara erortzen eta honen lekuko dugu Donostiako Iztunde Eskolak 1924urteko abenduaren 21ean "Irritza" Shakespeareren -Macbeth- itzulpena taularatu zuela medio Labayenek

idatzitakoa otsailaren 7-an Euzkadi aldizkarian :

... La reciente adaptación de "MacBeth" a la escena vasca hecha por Don Toribio Alzaga, le sirve de muestra. Admitido que el ensayo fué afortunado tengo para mí que en la hora presente es estéril y prematuro hacer mas experiencias en ese sentido.

Es cierto, y demostrado está, que el euskera es apto para expresar toda las concepciones del pensamiento humano; y que tiene todas las virtualidades, incluidas las drámaticas. Pero por ese camino robusteceríamos bien poco nuestra vida, harto precaria desde antiguo, y perecería nuestro teatro antes de madurarse. Necesitamos reproducciones más o menos sublimadas de la vida vasca y la medida de la aptitud receptora de nuestro público. Hay que buscar en la trama escénica ficciones que le afecten de cerca y no asuntos legendarios y exóticos, a los que nuestra concepción simplista de la vida no está todavía habituada.

Aplicando la frase de un critico de abolengo vasco, el señor Araquistain a nuestro arte teatral, diremos que para que consolide tiene que ser "indigena y vinculado al medio como una formación biológica".

No es mi proposito seguir enumerando las bases para un teatro popular. Ni hablar de la verosimilitud escénica; ni de las consabidas reglas de arte; ni siquiera mentar las tres unidades, el realismo y demás preocupaciones estéticas que nutrían las acaloradas contraversias de los preceptistas castellanos ... Reconociendo el esfuerzo inteligente y el acierto con que ha llevado a cabo el director de la Academia de Declamación Vasca la refundición de "MacBeth", prefiero para los fines altisimos de nuestra supervivencia, hoy muy amenazada, su comedia "Bost

Urtean" y otras de este género cuyo desarrollo sigue nuestro público con más atento interés y simpatía.

A. M^a Labayenenek esaten duena ez da soilik itzulpen soilagaitik, euskal antzerkia momentu txar bat pasatzen ari zelako, pentsatu besterik ez dago 1925-1930 arteko euskal antzerkiaren produkzioaren bi herenetatik bat Alzagak idatzitako antzerki obrak dituzu eta beste bi herenak gainontzeko idazleek. Guzti honek gure maisu eta ikertzailea kezkatzen du eta aurrerantzeko pausoak, etxeko egileak piztutzeko eman behar diren urratsak aurkitzea da.

Labayen jaunaren zirikatzeak, argitalpenak, Alzagaren omenaldia, eta abarrek euskarazko antzerkia berriro idazleen eredu bihurtzen dute, 1930-1936 artean antzerki alorrean bi antzerkitik gora idatzi zituzten idazleak hauek ditugu: Agirre J. M^a (Lizardi), Albisu A., Alzaga T., Amonarriz A., Arozena A., Barbier J., Barriola A., Eleizegi K., Labayen A.M^a., Lekuonatarak, Leon I., Mujika T., Urkiaga E. eta beste hainbat egile ditugu epe honetan antzerki obra bat bakarra idatzi zutenak.

Dudarik ez dago 1930-1936 arteko antzerki mugimendu berriztatzailea dugula eta mugimendu honen bultzatzaileetako bat Labayen jauna dela ez bakarrik egile bezala baita ere kritikoa eta argitaratzaile bezela, azken alor honetan euskal antzerkiari mesede haundia egin baitzion, Labayenen eskutik "Antzerki" aldizkariaren 35 ale argitaratu ziren bertan 45 antzerki obra azalduaz.

Gerlak, odozein motako euskal mugimenduen eragileak sakanabatzen ditu eta euskal ahotsa ondorengo dozena bat urtetan ixiltzen da.

2.- Lehen samina (1936-1965)

1936ko gerlak gurutzebidean lehen samina sortzen dio. Sendiak zuen lantegian lana egiten zuen eta gerla sortzearekin Lapurdiko Sara herris-kara joan zen bere sendiarekin. Zortzi urtez bertan bizitu zen. Gerla ostean berriro egoera zeozer baretu zenean berriro Tolosara itzuli zen,

eskutartean zenbait idatz-lan zituela, hauetako lan bat "Muga" deituri-ko antzerkia.

Bigarren epe honetan Labayen jaunak 9 antzerki sortzen ditu: "Muga", "Lurrikara", "Petrikillu", "Jostuna", "Jokua ez da errenta", "Malentxu alargun", "Galtzaundi" "Domenjon de Andia", eta "Su ta gar". Itzulpenak Frichs-en "Su-emalleak", Brecht-en "Bai esalea eta ez esalea", Ionesco-ren "Neskatilla ezkongai" eta Durretman-en "Gizona ta Kidea".

Sarako egonaldian orokorrean antzerki unibertsalean eta bereziki euskal antzerkian murgiltzen da. Labayen jaunaren ibilerak euskal antzerkian hobeto ulertzeko ez zaigu aski bere sormenezko edo itzulpen antzerkiak arakatzea edo ikertzea, ezin bestekoa da antzertiari buruzko idatziak ere kontuan izatea. Labayen maisuak, Antzerkilari gazteei hainbat argi-bide ematen dizkie, bere burua antzerki alorrean non eta nola jantzi, eta abarrez, honen adibide dugu, Antonio M^a Labayenek bere "Teatro euskaro T I liburuan "La lección de los maestros" (Or. 103) atalean dioena:

"Todo menos que creer que el vivir en la época del tremendismo, del vanguardismo o de otro "ismo" cualquiera excusa de aprender la lección de los maestros; ni que podemos prescindir de sus enseñanzas. Por lo tanto, a dichos autores nos remitiremos, constantemente, en el curso de este ensayo de POETICA.

Entre ellos citaremos en primer lugar, como corresponde, a Aristóteles, pues su POETICA está considerada aun, como el "vade-mecum" de la estética dramática Boileau, balex, Voltaire, D'Alambert, Diderot etc. De la escuela francesa; Lessing, Schiller, Goethe, Grillparzer, Alfred Kerr, germanos, Gordon Craig, Bryden, Bernard Shaw etc. Ingleses; Torres Naharro, Lope de Vega, Moratin, Menedez y Pelayo, Unamuno etc. Y otros innumerables autores

demuestran hasta la saciedad que es preciso tener en cuenta sus instrucciones si queremos caminar con paso seguro por las sendas, a veces enmarañadas, del arte teatral.

No voy a ocultar que me he servido, en gran parte de los libros didácticos de Henri Gouhier, profesor de la Sorbona, cuyos magistrales textos arrojan mucha luz para el estudio de los diferentes aspectos de la dramática.

Labayen maisuak bere lanetan eskeintzen dizkigu, argibide hauek ezbaian aurkitzen den antzerkilaritzari nondik norako bideak erakutsiaz. Bestalde irakurleak jakin behar du Labayen jaunak iturri hauetatik jatorrizko hizkuntzan xurgatzen zuela, horrela zuzenki tartekorik gabe lurralde hauetako antzerkietan murgiltzen zela.

Antonio M^a Labayen antzerki munduari dagokionez gizatasunez betetako gizona izan zen, nik ezagutu dudan hogeitazetarako harremanak ez dit besterik erakusten. Dударik ez dago beste askorekin ere antzeko portaerak izan zituela, bestela zaila zait ulertzea Sara herriko Seroraeneako etxeakoandreari eskainitako "Muga", lantxoaren hitzaurrean dioena:

Mme. DUTOURNIER' i.

Egun batez Mugatik igesi nentorrela ezagutu nuen SERORAENEA'ko Etchekandre bihotz zabalari, gaur esker on eta adiskidetasunez opa diot ene baithako "puska" chume hau.

Ez ahal dute mugazainek atzemainen.

2.1.- Egitura

Atal honetako sormenezko antzerkien egiturak mota desberdineta-koak dira adibidez "Lurrikara" drama dugu, "Domenjon de Andia" drama historikoa, "Muga", "Jokoa ez da errenta" Kupiberazko komediak dira eta "Petrikillu", "Jostuna", Galtzaundi" eta "Su ta Gar", ohi-turazko komediak.

Antzerki egituran Labayenek ez du buruhausterik izan, momentuak eta giroak agintzen zuten modura, hiru ekitaldiko antzerki serioak idazten ditu eta aldiz antzerki labur parregarriak.

2.2.- Estetika

Labayenek antzerkiak konbikzio serioak eraginda idazten zituen eta berak nondik nora, eta norengana joan nahi zuen bazekien. Begira zer dioen, Teatro Euskaro T. I. "Arte popular y teatro vasco" atalean:

"Pero deben de tener en cuenta que tal mal teatro se puede hacer con asuntos rurales, como tratando prociudad, de cabaret. Y una comedia de costumbres, aunque sea localista, puede tener mayor valor dramático y literario, que ciertas extravagancias que pretenden hacerlas pasar como obras maestras. Lo difícil en todo los generos es llegar a esa maestría que no alcanzan sino las bien logradas por la observación y el estudio de los caracteres, por la sinceridad del tema y su bien tramado desarrollo y desenlace."

Labayen jaunak bazekien antzerkiak euskal gizartean izan behar zuen zeregina: idazle eta antzerki sortzaile zenez euskal gizarteko zati bateko kontzientzia izatea nahiz eta honek nahigabe asko ekarri. Labayen jaunaren pausoak antzerkian beti sendotasunez emanak izan dira eta batzuen losintxak eta besteen masiatzeak ez zuten gure maisua bere bidetik baztertu.

Bigarren atal honetako antzerkien estetika aztertzerakoan lau bat antzerkitara mugatuko nahiz, zeren aurreneko atala errepikatu beharko bainuke, "Muga", "Jostuna", "Petrikillu", "Galtzaundi" eta "Su ta gar" antzerkiekin. Horrela bada Labayenen antzerki produkzioak aldakuntza nabaria jasaten du, ohituren Komediak baztertu eta dramak eratzen ditu. Aipatu nahi ditudan antzerkiak, "Lurrikara", "Jokoua ez da errenta", "Malentxu alargun" eta "Domenjon de Andia" dira.

Nola nahi ere laburki beste antzerki hauen gatazka hau da: "Muga"

Mugazainak dituzten burrukak kontrabandista batzuekin. "Jostuna" jostundegiko neska gazte talde baten ametsen nondik norakoak. "Petrikillu" Petrikillu baten bulegoan zenbait gaisotuen pasadizuak. "Galtzaundi" Tolosako pasarte zenbait Ramus Azkaraten garaikoak. "Su ta gar" seguru saltzaile bat eta bere bezeroaren arteko pasadizuak. Antzerki hauen kolore eta erritmoak aldakuntza nabariak ditu hau bereziki pertsonaien kopuruaren bidez orekatzen du.

"Lurrikara" eta "Domenjon de Andia" historikoak dira. "Lurrikara" hiru ekintzetako dramen 36.eko gerla zitalaren pasarte bat kondatzen da, Klausurako konbentu bateko partaideak pasatzen dituzten ezbeharrek requeteak eta komunistek eraginda. Antzerki honen mikatzasuna ez da nola nahikoa gerla osteko belaunaldietako partaide garenok eta gerlako kontakizunak entzun ditugunok -inoiz idatzi gabekoak- hainbatetan entzundako espetxeetako bortxaketa, afusilamenduak, eta abarrek, Lurrikaran agertzen dira. Drama honetako errerealismoa gerlako pasarteekin clonikoa gertatzen da, horregatik gaur egun antzerki hau antzezteak adineko jendeari malkoak ixuriaziko lizkiokkeen bezela, gazteei zaila zaie berau uiertzea. "Lurrikara" antzerkia ondo eratua dago kolore aldetik eta hartzen duen erritmoa izugarria da, zenbait pasarteetan egokitasunez irakurlea lasaitzea lortuaz.

Nahiz eta "Domenjon de Andia" antzerkia ez hain mikatza izan bere mamia badu, Aide-Nagusien gorrotoa eta Gaztelako errege zen Enrique IVren zitalkeria. Baita ere tolosarron matxinada kontatzen da Gaon judu, zerga biltzailearen diru gosearen aurka, azken hau Tolosako plazan hiltzen dute eta Domenjon de Andiak zuhurtasunez jokatzen du justiziaren aurrean:

Korrejidorea.- Bat da, iritziak entzutea, eta bestea erabakiak artzea. Eta Errege jaunari egin zaion irain latza lehenbaitlehen zigortu dezagun, zuzen eta gogor, erabakiak artu behar ditugu. Otz eta motz!

Domenjon.- Zuzen bai, gañerakoak kontuz! Erru ta oberearen pisua arintzen duten zernola, ta zearrak kontuan

arturik... Gaon doakabe orrek ez zuan zillegi Tolosa'ra zerga-eske ta diru-billa etortzerik. Legez galera zita zeukan.

Gaurko giroan gure gatazkan, ez da batere gaizki eroriko antzerki hau. Obraren eraketa onak eta etengabeko erritmoak eragiten dute obra hau drama egokia dela esaterako garaian. Ez da erreza honelako antzerki lan historikoak antzeztea baina badu mezua gaurko euskal gizartearentzat.

1981.ko Ekainaren 18 an "Domenjon de Andia" taularatua izan zen, jokolariak bost antzerki talde ezberdinetakoak ziren. Tolosako Udalak eta C.I.T izan ziren ekintza honen antolatzaileak.

"Jokua ez da errenta" eta "Malentxu alargun" Kupiberazko Komediak hiru ekitalditan antolatuak daude. Lehenengo antzerkiaren gatazka jokua da eta bigarrenarena hipoteka baten ordainketa. Bi antzerki hauen osaketarako beste gatazka pizgarria ere erabiltzen du kolore egoki bat eskeiniaz bi antzerkiei. Erritmo aldetik ere oso ondo tajutuak daude.

Bi antzerki hauek Labayenen antzerki produkzioko lanik egoki en-tarikoak dira, gure herrietako txoko gehienetan ikusitakoak, 60ko hamarkadan Errenderiko "Ereintza" eta Urnietako "Egi-billa" antzerki taldeek egokitasun handiz taularatu zituzten eta gero plazaz-plaza eskaini. Beste zenbait taldek Labayenen antzerkiak taularatu zituzten. Askotan entzun izan dut Labayen egile bezala intransigentea zela baina geroak erakutsi dit ez zela horrela, taldeetako zuzendariak ez zuten inolako arazorik izan beraiek uste zuten bezala antzerkiak taularatze-ko. Berriro Teatro Euskaro T.I. liburuxkako "Textos e interpretacion escénica" atalean honela dio:

Los textos teatrales junto a la acción, son como hemos visto la parte esencial del drama. Todo ello forma parte de la representación ó escenificación, una consecuencia de lo expuesto es que el director de escena sea siempre un personaje importante del Teatro algunas veces superior al autor-.

Atal honekin amaitzeko esan behar dut, honela mintzatzen den egilea ezin zitekeela jeloskorra izan bere lanen tratamenduarekin.

2.3.- Giroa

Gerla osteko antzerki mugimenduaren oinarria Donostian kokatzen da. Donostiako antzerki mugimendu bakoitzak bere alorrak jorratzen zituen, alor batekoen oinarria Jarrai antzerki taldea zen eta beste alorrekoa Iztunde Eskola. Alorren banaketa mugimendu politikoaren eragina zen. Mugimendu honetako jendea bata besteenganako ezin ikusiaz itsuturik zegoen eta kontrakoa deuseztatzea izan zen helburua. Horregatik alderdi batek antzerki txuria aukeratzen bazuen beste alderdiak beltza aukeratuko zuen. Donostiako mugimendu honek euskal antzerki egile asko zokoratu zituen eta hauen artean Antonio M^a Labayen jauna zegoen, ez alde batek eta ez besteak ez zuten inoiz egile honen lan bat taularatu eta hau lotsagarria zen zeren batzuk zein besteek Labayenen babesa nahi izaten zuten bera baitzen euskal antzerki ikerketaren oinarri nagusia. Urteak pasa eta orain urte gutti mugimendu hauetako arduradun zenbaitek esan zidan lotsatzen zirela Labayen'í emandako tratamenduaz. Maisu honen egiletasuna herrietako antzerki taldeei esker ikusi ahal izan dugu taula gainean.

3.- Itsumenaren samina (1965tik 1980)

60.ko hamarkada oso gogorra egin zitzaion Labayen'í, alde batetik hain maisutzat zuten donostiarrek antzerkirik ez taularatzea eta bestetik giro politikoa eta honen eragina. Bere lan batean honela idazten du. Teatrogintza eta Yakintza or. 74

.... Eta horretarako lanak luze laburrean neurtu ta xee-tasun guziak ikusi ta nabari bear ditu. Ori da sasi-kritiko-ek ez dakitena.

Gustatzen zait edo ez; gogoko dut edo ez besterik ez esatea gauza motza da. Ta gogoko zaidana txarra dala legetzat artzea iritzi txarra osoro. Oraindik makurrago lan

bat goratzea, egillea adiskide ta kidetakoa dugulako. Eta makurrena, naski, alderdikieriaz, griñaz edo teatroz zer ikusi ez duten beste zalekeriaz, zer nai uskeri gora jaso nai izatea. Eta politikakieria sartzen baldin bada hainbat gaitz-togo. Tirria au izugarria da: gezurti ta ukakorra, bere aldekoa ez baldin ba'da...

Aipatzen ari garen hamarkada honen azken hiru urteak euskal gizar-tearentzat oso gogorrak izan ziren eta nola ez, euskal antzerkiarentzat ere, 68ko Exzepzio Legeak, 69.ko ondorioak eta 70.ko Burgosko auzia medio antzerki mugimendua ia desegina gelditu zen, han hemenka talde bat edo beste gelditu bazen ere espainiarren zentsura ere gogortu egin zen, nik neronek antzerki obra baten baimena lortzeko urte t'erdi itxaron behar izan nuen. Bestalde esan behar da antzerki mugimen-duaren osatzaileek nahiago izan zutela kalera irtetzea franquismoaren aurka borrokatzeko.

Giro honetan ere Antonio M^a Labayenek lanean jarraitzen du eta beste bost antzerki obra sortzen ditu eta beste bi antzerki itzultzen ditu. Sormenezko antzerkiak hauek ditugu: "Pestaburu", "California... Ku, Ku!", "Agar'en seme... Ismael", "Perretxiku jatea" eta "Muñagorri".

1967 eta 1971 urteetan, Agorak eratutako Gipuzkoako teatro sariak irabazi zituen aurrenekoa "California...ku, ku" rekin eta "Agar'en seme... Ismael"ekin bigarrena. Bi antzerki hauek Urnietako Egi-Billa antzerki taldeak taularatu zituen eta ondoren herriz-herri ezagutzera eman zituen.

Platon eta Castelaoren obren itzulpenak egin zituen gaur egun eza-gutzen ditugun "Lapikoa" aurrenekoarena eta bigarrenaren "Agureok maitemindu bear ez".

3.1.- Egitura

"California... ku, ku!" Eta "Agar'en seme... Ismael", kupiberazko komediak dira, aldiz "Pestaburu" eta "Perretxiko jatea" ohiturazko komedia laburrak dira eta "Muñagorri" antzerkia drama historikoa.

3.2.- Estetika

Estetikari dagokionez ez du berri haundirik eskaintzen "Pestaburu" Orixeren ipui batetik hartuta ballet modura antolatutako komedi laburrak, "Perretxiku jatea" izenak berak dion bezala gatazka perretxikoak jan ondoren txarrak ala onak diren ez jakiteak sortzen duten kezka. "California... Ku, ku!"ren gatazka, Ohituren deuseztatzea, modismoen eraginez, hau da amerikanoen modako aize berrien eragina Europan. Eta "Agar'en seme...Ismael"en gatazkaren oinarria Lardizabalen "Testamendu" zahar eta berriko kondairatik hartutako pasarteak ditugu. Nahiz lan batean nahiz bestean bi antzerkiak ondo eratuak daude kolorez hala erritmoz ere aurrenekoan gaurkotasuna bizi-bizian dagoen bezela bigarrenean kondairan zehar gaurkotasunera iristen da. Garaiko antzezkiizunetan ikusleengana biziki iristen ziren.

"Pestaburu" eta "Perretxiku jatea" berriz ohiturazko komedia laburrak dira eta jostirudi hauek besteen bidetik doaz.

"Muñagorri" antzerkia lau ekitaldiko drama historikoa da, antzerki honen gatazkaren ardatza eskribaua, pakebile eta Fuerozalea zen Berastegiko Muñagorri da. Gizon honen azkena trajikoa da. Antzerki honen kolorea eta erritmoa ondo tajutua dago eta lan egoki bat da, bere historizismoa galdu gabe drama beltz bat eskeintzen duelako.

3.3.- Giroa

"Muñagorri" antzerkia Labayen jaunaren azken antzerkia izan da eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak- 1978. urtean argitaratzen du. Hitzaurrean nekatutako gizona nabaritzen da, honela mintzatzen da 9 or.:

Baiñan gogoetan sartu naizelarik "duda-muda Axular'ek zionez "gogoanbearra" piztu zait nere baitan. Alegia, aitaturako lanok neronenak ote ditudan... edo beste norbaiterenak.... Txarrak eta balio gutxikoak dirala esan didate, naiz orretarako "doktoradutza" iñork eman ez ba' die ere... Ez nauk orrek aserratzen. Bear bada geiago,

nere izena ixildu, eta egin ditudan lanen gañera lurra bota ta estali nairik ibilli dabiltzenekin. Alako zima, erra ta ezin ikusi artean bizi gera! Aurten bertan (1977urtean), bere burua oso aurrerazale eta olerkari punturengotzat daukan batek, teatro-gaiz aldizkari batean, euskal antzertiaren kondairatxoa idatziz ez zuan nere izenik aitatzen.

Ixtoria laburra zan, baiki, baiñan aski luze pastoraletatik asi ta Soroa, Alzaga, Barriola ta azken urteotan zerbait egin duten antzerki zaleen izenak emanaz. Auen artean, jakiña nerea falta zan.

Ez oarkabez aztu nindualako, asmo gaizto ta borondate zitalez baizik.

Euskal-Erria ta justizia ta zuzenaren alde omen dabil-tza. Gure Erria goratzeko eta makurra, irakurritakoan ez nin-tzan batere arritu. Aldez aurretik zerbait antzekoa egin bait zidaten.

Ara nola: Ricard Salvat Katalanez idatzitako "Teatre Contemporani" liburuan Euskal-Teatroa ere aipatzen du. Ark gure teatroaren berri zeatzik gutxi dakiela sinistekoa da. Zeñek eman zizkion euskal-antzerkigille ta beroien lanen izenak ondotxo ezagutzen dut.

Nerea erabat isildu zikiola ere bai. Salvat adiskide bait dut..... Or.12 jarraitzen du...

Bizi geran aldi nastu ontan eta gure Errian dagon burruka ta gogorkeri giroan, antzezleri taldeak gazteak-izaki-ta... nere antzerkilanik ez dutela antzestu nai oarturik nago bat edo beste izan ezik.

Xede ortara zirikatzaillle batzuek bultza dituzte, ez di-tzatela nere antzerkirik azaldu igesbide (escapismo) beste-rik ez dirala-ta esanez. "Topiko utsak! Iraulketa behar omen dugu! Sua! Eztanda, guztia ankaiz gora jartzeko".

Itsumenezko samina sufritzen du Labayen jaunak. Aurreneko samina gerlak ematen badio bigarrenak min handiagoa egiten dio, hainbat eta hainbat lan egindako idazle bat baztertu nahiak.

Mugimendu guzti hau ezagutzen nuen eta partaide ez banintzen ere gertutik jarraitzen nuen eta momentuko giroan murgildua nengoen. Guzti honek zer pentsatua eman zidan eta Muñagorri antzerkia eta hitzaurrea irakurri ondoren, 1978. urtean zeruko Argian lantxo bat idatzi nuen:

MUÑAGORRI, LABAYEN JAUNAREN AZKEN LANA...?

Antzerki zaleok ez dugu aukera haundirik izaten euskal antzerki berriak irakurtzeko, baina zorionez urte honetan, lan berri batzuek azaldu dira, azkenekoa: Muñagorri, deitutako antzerki liburuxka, lan honen egilea Antonio M^a Labayen dugu. Pozik irakurri dut lehendik ezagutzen nuen Muñagorriri buruz Labayenek eginikako lana. Antzerki historikoa dugu, eta aurreko hildotik dijoa. Egilea berak hala dio, eta neri ere horrela iduritzen zait. Bakarrik hizkuntza arinago ibiliz, besteetan baina lan biziago bihurtzen da.

Liburu hau egileak berak aurkeztu du, eta aurkezpen honetan zenbait gertaera aipatzen ditu, eta Labayenen sentikortasunak oraindik ere irauten duela iduritzen zait, nahiz eta orain beste belaunaldi batean jokatu.

Hitzaurrearen 9. orrialdean honela dio: Teatroa-gaiz aldizkari batean euskal antzertiaren kondairatxoa idatziz ez zuen nere izenik aita-tzen... 10. orrialdean honela dio: R. Salvat katalanaz idatzitako "Teatre coterporani" liburuan euskal teatroa ere aipatzen du. Baiñan hemen ere Labayenen lanen aipamenik ez dago eta informatzaileak gure lurraldeko teatrolariak ditugu".

Denok dakigu euskal teatro berriaren historia iñork egin badu hori Antonio M^a Labayen izan dela eta ondorengoak hitzaldia edo idatzi bat egin beharra izan badugu denok Labayenen "Teatro euskaro" bi tomatan oinarritu beharra izan dugula.

Labayenek aipatzen dituen pertsonaje hauei hau gertatu zaie:

"Begira jarri dira eta, zuhaitzek ez diete basoa ikusten uzten". Bestalde aitortu behar dut Labayen neretzako antzerki egilea baino kritiko sakonagoa dela.

Orain bizi garen belaunaldi honetan badago antzerki mugimendua, eta honen aintzindaritza "Euskal Antzezlarien Biltzarrak" eramaten du. Baina Labayen jauna; zuk aipatzen dituzun jaun hauek mugimendu honekin ezer gutxi dute ikustekorik, Hauek, denok dakigun bezela 1960ko urte inguruan sorturiko antzerki mugimendukoak ditugu, tris-teena iruditzen zait, aurkezpen honen zipriztinak belaunaldi honetaraino iritxi direla.

Baina tira, oker edo zuzen garen bezala jokatzeko dugu, aurkezpen honetan aitatzeko du bere lanak ez direla aurkezteko eta dioena, egia. Belaunaldi honetan jokatzeko dugunok, Egi-Billa aparte gainontzekoak ez dugu zure lanik aurkeztu, bainan kontuz, lan txarrak direlako... Zahartutako antzerki mota bat dalako... Neri bereiziki antzerki mota hau etzait atsegin, baina zuzendari eta talde guziak ez daude iritzi honekin ados, zeren Euskal Herriko antzezleri taldeek eta zuzendariak ez ditugu iritzi berdinak, lanak jokatzekoan. Bestalde belaunaldi honetako antzerkilariak ez-jakinak garela ohartu gara, eta honek pentsarazten digu lan bat hautatzeko momentuan zeren antzerki mota batek, eta Labayenen antzerkia tartean sartuaz zuzendariak eta antzez-lariak teknika batzuen jabe behar gera, dala: ahozkatze, xingolari, koreografi,... eta abar. Bainan behar dut publikoki salatu 1960ean sortutako mugimendu hura, non daude hain famatuak ziren taldeak: Jarrai eta Donostiako Deklamazio Eskola eta zer diote hauen inguruan ibilitako egileek? Denok ixiltasuneko paraisuan dantzatzeko dute eta inoiz argitara azaltzen badira, gorrotoa, maltzurkeria eta ezin ikusia besterik ez dute ahoan ibiltzen.

Gure lurralde honek antzerki mugimenduan laguntza behar du eta laguntza egokienetakoa bat gure gurasoen antzerki mugimendua eza-gutzea da, horregatik Labayenen gaitik entzutean "Nik dena esana dut" edo irakurtzean "azken itz bait da" hau ezin onartu dezaket: Labayen,

zuk ez deuu dena esana (gure belaunaldian) oraindik asko duzu esateko eta guk entzuteko eta ikasteko, zuk gerla aurreko antzerki giroa bizitu eta ezagutzen duzu, eta aukera hau gutxi bätzuek besterik ez duzue. Horregaitik hemen belaunaldi baten oihua entzuten da: "Giro hura ezagutu nahi dugu".

Gure Jainkoak luzarako bizi-tza eskeini dizu eta pozten naiz baina dakizun bezela dohaiak ez dira ixiltasuneko kutxan gordetzeko eta bereiziki, zuk, baduzu zer esana eta gure antzerki pausoetan zer argi-tua, eta osasunean zeran bitartean eraman behar duzun gurutzeta.

Gaur egun ez dut uste inortsok ukatuko duenik zure maisutza, Soroa, Alzaga, Barriolak... sortutako antzerki mota honetan.

Antzerki munduan askotan gertatzen da belaunaldi batek ukatzen duena beste belaunaldian berpiztea iraultzaile bezela.

Nere deia hau da, Labayenen ahotsa antzerkiari buruz ez dadila ixil-du, eta publikoki laguntza eskatzen diot".

Atal honetako epea ez da erreza izan ez Labayen jaunarentzat eta ez gainontzeko antzerkilariontzat ere, mugimendu berrien sortzeak hainbat nahasketa eta inbidia ekarri digu eta buru hotzarekin tajutu eta neurtu ditugu gauzak. Egina hor dago eta horri ez diogu begiak itxiko.

4.- Epilogo

Antonio M^a Labayen jaunaren sormenezko antzerkiaren estetikan ahultze bat sortzen duen birus baten eragina konstante bat da. Antzerkietako pertsonaien karakterizazioak ez ditu gehiegi sakontzen eta arinkeri honetan pertsonaiek "situazio" desberdinetan jokatzeko dute, eta honek arinkerizko dispertsioaren zurrumbilora eramaten ditu. Aipatutako birus-ak badu kontrako sendagaia eta eragina taulartzeko sasoian egin beharrekoa. Antidoto hori dramaturgia da. Bere eragina ikusi zen 1990urtean Azpeitiako Topaketetan, Antxieta antzerki talde-ak "Komedi Zaharrak" izenarekin zenbait antzerki labur taularatu zituenetan eta antzerki hauen artean Labayenen "Ostegun gizona" (an-terkia 1930 urtean idatzia eta 60 urte beranduago azpeitiarrek antzez-

tua). Antxieta antzerki taldeak geroztik ez du orduan adinako arrakas-tarik izan. Honek gauza bat adierazten du, antzerkia paperean irakur-tzea eta taula gainean ikustea bi gauza desberdin direla, pertsonaien karakterizazioa eguneratzea, euskerari orrazkera bat ematea, guzti hau dramaturgi teknikak erabiliaz eginaz, antzerkiak beste abiadura bat hartzen du.

Antonio M^a Labayenen bizitzako azken hamarkadan berarekin harremanik izan nuen eta berarekin mintzatzen nintzen bakoitzean ez zidan atzea begiratzeko biderik jartzen, ez gertaturikorik aipatzen, beti aurrera begira ipintzen ninduen eta gauzak esateko bazuen esku-ezker bat, askori izatea gustatuko litzaigukeena.

A. M^a Labayenek ekintzak eta esaerak asko neurtzen zituen, batzuetan zuzenki eta besteetan bide-ertzetik joanaz. Bada gertaera bat asko pentsarazi didana eta hau Labayenen itzulpenak dira. Labayen jaunak itzulitako antzerkiak garrantzizkoak izan dira eta hauek 60ko hamarkadan izan ziren, euskal antzerki taldeen gatazka gori-gorian zegoen unean. Labayenek idatzietan adierazten du ez dela aski itzulpen garrantzitsuak egitea baldin eta ondoren taularatzeko maila berdineko antzezleriak, zuzendariak, eszenografoak... eta abar ez badaude. Ondorengo egileen zenbait obra itzuli zituen: M. Frisch, F. Durrenman, B. Brecht, E. Ionesco, Castelao eta Plauto. Donostiako gatazkalariak ohartu zitezen itzulpenak egitea baino zailagoa dela itzulitako lanak taularatzea, obrak eskatzen duen mailan.

Labayenekin mintzatu nintzen bakoitzean, antzerkia herri batean osasuntsua izateko, izan behar zituen gutxiengo oinarriak agertzen ziz-kidan. Bizitzako azken urteetan samina, antzerkiari dagokionez Eusko Jaurlaritzatik zetorkion, abertzaleen esku egon eta euskal antzerkiak hartzen zuen tratamendua ez zen egokia. Pentsatzen zuen euskal an-tzerkiak osasuntsuago egon behar zuela. Bainan ez zen hala gertatzen urteak paseaz makaltzen zihoan, urruti ikusten zuen euskal antzertia-ren mintegi bat, zer esanik ez euskal talde amateurri eskeini behar zi-tzaizkien laguntzak, bai diruz, antolakuntzaz eta abarrak. Formakun-

tzari buruz Unibertsitatean ikusten zuen irtenbidea, Europako herrialdeetan bezela Goi-Mailako ikastetxeetan antzerki ikastaroak egitea. Guzti honek urtetik urtera karramarroen antzera atzera pausoak ematen ditu eta honek mintzen zuen..

A. M^a Labayenek mundu hau utzi duen urtean oraindik, ez da Euskal Antzerti mintegirik, ez antzerki amateurren arazoei irtenbiderik eman eta Europako egituretan sartzeko pausorik eman ere, Unibertsitatean formakuntzak pausoak eman arren gaur egun ere hau hutsean utzi dute.



"Teatro osoa euzkeraz." Tomo I

PETRIKILLO

Irri Antzerkitxo

**Komeria ekitaldi batean Beorlegi ta Egileor
antzezlar-i-bikote txalotiari**



"Teatro osoa euzkeraz." Tomo II

GOETHE-FAUST (II Akt-II Teil)

Faust zu Chiron

Den Artz, der jede Pflanze nennt,
Die Wurzein bis ins Tiefste kennt,
Dem Kranken Heil, dem Wunden Linderung schafft,
Unarm ich hier in Geist und Körperkraft!

Landare guziak izendatu
Ta sustraiak sakon ezagutzen
dituzun mediku,
Gaixoak senda ta zaurituai
ematen ukendu,
Nik emen gogoz ta soin-indarrez
zaitut besarkatzen.

JARDUN LAGUNAK:

PETRIKILLO sendalaria
Andre KASILDA, D. JUSTO juezaren emaztea.
SALOME andereñoa bien alaba.
JOXEPA petrikillo´ren andrea.
PRAISKU, petrikillo´ren lagun zar eta arlotea.
TOMAX, arakiña, gizon lodikotea.
FULJENTXI, emagiña zaar eta mehe
D. JUSTO, jueza
D. GABINO, medikua.

PETRIKILLO´ren etxean, gaxo ta elbarriak artzen dituan gela. Mai
bat, oatze koskor bat, eser leku, alki ta bearrezko diran tresna
apur, batzuek.

I AGERRALDIA

(*Petrikillo, Andre Kasilda eta Salomé*)

Petri.- (*Gaztearen txonkatilla leunkiro igurtzitzen duala*). Ez al dizu batere miñik ematen?

Salo.- Orain ez...

Kasilda.- Oiñetako estuak jartzean egiten dio min.

Petri.- Beti eraman bear dira oiñetako lasaiak.

Salo.- Baita zera ere! Abarkakin ibilliko nazu.

Kasilda.- Ori ez, baiñan zapata erosoekin bai. Ta ez erosi oña lotu-lotu egiten dizuen oiñetakorik.

Salo.- Lasa-lasa dauzkat, ama. Zapatak ez ezurrak egiten dit min.

Petri.- (*Salome ´ri*) Ea, ibilli zaite zere pausoan. (*Ibilli-dabil*) Orain gel-dirik zaudela oin muturra lurrari jo-ta gora ta bera erabilli zazu; eskui- ezkerrera. (*Egin bitza joku oriek*). Ori da!

Salo.- Aurreskua dantzatzen asi bear al det?

Petri.- Baita futbol´ean ere nai badezu. Txonkatilla lirain darabilkizu.

Kasilda.- Ez esan geiegi Petrikillo, ez dezan autsi berriz.

Petri.- Sendoturik dauka. Beste ezurren bat auste ba-diteke baiñan txorkatil ori puskatzea zail izango zaio. Zaude lasai etxekoandre.

Salome.- Ni beintzat asperturik nago orrenbeste denboran igeltsutan nere, txorkatilla... Atx!

Kasilda.- D. Gabino´k gaizki jarri zizun eta orrek luzatu du. Eskerrak azkenean zuregana etorri giñala...

Petri.- Ez degu beti asmatzen.

Kasilda.- Zenbat da zure lana?

Petri.- Egin zazu berrogei duro.

Kasilda.- Pozik emango dizkizut gañera. Bai enetxoa! (*Sakeletik diru-paper bat atera ta emanaz*) Torizu.

Petri.- Eskerrikasko etxekoandre! Eta (*Apal*) ez geiegi zabaldu nik zure alabari ezurra konpondu diodanik... Badakizu, D. Gabino medi-

kuak begitan artuko niñuke.

Kasilda.- Berak ere ikasi zala ondo jartzen!

Petri.- Ezurrak dira, etxekoandre.

Kasilda.- Eta mamiak mami!

Salome.- Nere oiñaren kontura "ezu-ezur eta mami-mami'ka" jostatzen ari al zerate edo zer? Nik bakarrik artu det min eta sendagillen eskuetatik aterata takoi luzeko zapatak eta nylonezko galzterdiak janzteko gogotan nago. Goazen beraz ama!

Kasilda.- Bai alaba! Aizu Petrikilo. (*Isilpean*). Nik ez det zabalduko zurekin izan geranik; eta zuk ez dezazula iñon esan gure alabari txorkatilla konpondu diozunik. Aditzen? Ez nuke nai nere senarrrak jakiterik.

Petri.- Zaude lasai etxekoandre, "Petrikillonea etxe mutu".

Kasilda.- Ala bear du. Ta ortan gaudela, gure alaba onek ez dizu bate-re jateko gogorik. Pixuz galtzen ari zaigu... Atoz Xalome!

Salome.- Ez al goaz bada? Atx! que fastidio!

Kasilda.- Bereala! Mingaiña erakustea besterik ez! (*Petrikillorengana urbilduaz mingaiña erakustera*).

Petri.- Mingain polita. Ez du ezer! Gazteak ez dute gizendu nai izaten. Bestela ondo zaude. Ezurrak osorik dauzkazu, gogoan arzazu ordea mamirik gabe ez dagola edertasunik. Gizendu egin bear dezu.

Salome.- Gizendu? ;Que horror! ;Liraindi, liraindu!

Kasilda.- Beti gerri-eder! Kopla oiek ezkongaietan izaten dituzte. (*Galdezka*). Zer eman nezaioke jaten? Zer derizkiozu?

Petri.- Botikan saltzen ez dan zerbait.

Salome.- Taloa ta esnea orduan!

Petri.- Ez da txarrena.

Kasilda.- Ez bait du txoriak aña jaten.

Petri.- Ba nik egia esan, ezur konpontzaile naiz, ortik aurrera gutxi dakit. Doi-doi andreak ba dituztela milla matrikula... eta... "Kukuak kantatzen du mayatzean kuku"... Udaberriko gaitza

(Keiñu egiñaz).

Kasilda.- Bai bai, aditzen dizut. Gauza da, zerbait egin beharko degula, bestela aulkeriaz berriz ere ezurak ausiko zaizkio.

Petri.- Ez dago beldurrik, gazteak ez ditu austen, berak ez ba ditu puskatzen. Zartzaroan austen dira berez.

(Txintxerri otsa entzun bedi)

Kasilda.- Ba goaz. Beste norbait ba datorkizu-ta.

Petri.- Gaxo ta elbarriak ez dira falta.

Kasilda.- Gure alaba jangartxu oni ez dakit zer eman.

Petri.- D. Gabinok "inyekzio" pizkarri batzuek jarriko dizkio.

Salome.- Ni ez noa D. Gabinorengana. Lenago ere eman zizkidan ziztada ederrak... eta eztarriko zulotik sonda. Atx!

Kasilda.- Ez da errez zurekin asmatzea.

Salome.- Nai badezu. Marañoñ'engana edo bestela iñora ez!

Kasilda.- Baita zera ere! Ortarakoxe gaude! Madrid'era neskari gogotan sartu zaiolako. Goazen, goazen! *(Dijoaela).*

Petri.- Zoazte ondotxo. *(Ixilpean).* Obe diozu lenbaitlen senar on bat arkitu. *(Atea itxiaz mai ondora doa gero eseriaz).*

II AGERRALDIA

(Petrikillo eta bere Andre Joxepa)

Joxepa.- *(Beste atetik sartuaz).* Jonixio! Jende aundia etortzen asi zaizu ta bildur ez ote degun izango okerren bat. D. Gabino'k Jakiten ba' du...

Petri.- Nik zer kalte egiten diot bada...? Bost ajola zaio neregatik.

Joxepa.- Zeintzuek ziran? *(Jakinguraz).* Ez ditut ezagutu.

Petri.- Ez ta nik ere. Gañera badakizu gure etxeak bear dula izan: "etxe mutu". *(Beatza ezpain-gañean ipiñirik).*

Joxepa.- Noski, noski! Andre itxurazko bat eta beste neskatxa gazte dotoreakin sartzen ikusi bait ditut eta.

Petri.- Bakarrik esango dizut neskatxak "Xanko-mee" edo olako zer-bait izentzat duela.

Petri.- Xankome? Salome izango da...

Petri.- Ez geiago galdegin. Aditzen?

Joxepa.- Ez gizona, ez bañan beldur ematen dit jende apain ori dala medio naigaberen bat etorri bear zaiguna. Medikiak begitan artua zaitu onuzkero ta azkenerako ez degu pakerik izango.

Petri.- Bitartean bizi gera beintzat eta, aurrera! Oraindik ez det iñor il.

Joxepa.- Ori ez bañan.

Petri.- Ta bestela ez zaitezela neri txanponak eskatzera etorri. Tori.
(*Hogei duroko diru papera emanaz*).

Joxepa.- (*Poza ezin ezkutaturik*). Au guzia! (*Maitekiro*). Irabazi politak ateratzen dituzu, bañan kontuz ibilli bearra dago. Lana asko egi-ten ari zera ta atsedeen pixka bat ere ar zazu. Nekatua zaude onuzkero.

Petri.- Gauean izango det etzanda egoteko beta. Orain geienaz "mokau" bat artuko nuke goseturik nago-ta.

Joxepa.- Xerra bat prejitu ta kafea berotuko dizut. Sua pizturik daukat "enplastuentzako".

Petri.- Ez nere jatekoarekin naasi, ba ezbada... Enplastuak bestentzako; xerra neretzako. Ta aragia samurra izan dedilla. Nere ortzagiñak pipiak jota daude ta...

Joxepa.- Alik eta samurrena ekarri dizut, zuretzako modukoa: isats ondokoa. Oraintxe maniatuko dizut. Banoa sukaldera... (*Ate joka ari dirala nabaitzen da*).

Petri.- Norbait da ate joka Joxepa!

Joxepa.- Auxen da lana! Gaur ez gaituzte utziko pakean. Nor ote da? Beldur ematen dit.

Petri.- Zoaz atea irikitxera, orrenbeste aitzeki-maitzeki gabe... Ta

neregatik galdegiten ba' du, sartu zazu onera. Zoaz zu lasai sukaldera.

Joxepa.- Au da jendearen emana! (*Bijoa*)

III AGERRALDIA

Petrikillo eta Praisku

Praisku.- (*Errenka sartuaz*). Arratsaldeon nagusi!

Petri.- Kaixo Praisku! I al intzan! Sendo beraz?

Praisku.- Txarrean pijo! (*Errenka pausoak emanaz*). Ibili al ba'nintz ortxe nunbait. Baiñan gero ta motelago natxiok. Nere zankook ezin eraman natxiote. Ezur min bat ba diat...

Petri.- Beste berri batzuek ezin ipiñiko dizkiat bada. Orain erremedio on bat emango diat ire ezueria leguntzeko: muxar-koipez egunean iru aldiz toki minberatuak igurtzi itzaken.

Praisku.- A lagun zaarra! Ez al uke berdin iru aldiz egunean ollo salda artzea? Lenago ere "enplastuak" proaturik zeukat. (*Eskuarekin jan itxura egiñez*) Ontatik bear diat nik, ontatik.

Petri.- Ori dek bada komeni ez zaikana. Jatena gutxi ta tartean osiñ-belar ta zaingorrien ura... ta.

Praisku.- Ba, ba. I ere medikuak bezela asi aiz! Il egin nai al nauk, edo "que"? I al aiz Petrikillu famatue?

Petri.- Sendatu nai iñuket.

Praisku.- Erremedio oiek utzi itzak aberats okituentzat. Ni goseti amorratu bat besterik ez nauk. Nere kezka guzia dek sabela nola bete.

Petri.- Orduan i ez aiz kontsulta'ra etorri jatera baizik.

Praisku.- Ori dek begie izatea: "Pronostikue" zuzena...

Petri.- Ez ago i pronostiku txarra! Goazen sukaldera ta nere andreak eguardiko eltzekondotik zerbait emango dik. Zenbait bero...

Praisku.- Aitatu utsakin tripak jartzen zaizkidak "galgal..." Betekada baten bearrean natxiok.

Petri.- Ori ez, geiegikeriak ere berekin zakarrek gaitza. Barauk kalte gutxiago egiten dik.

Praisku.- Ori dek gure Miserikordi'ko monjen eskola: bat ondo ezik dagonean esatea: "ez jan!" Buruko miña detala: "Barau egin!" Gerrian oñazea asi zaidala: "ez edan!" Gorputz guzia gaizki, ezin zutik egonean dagola... "zera, zoaz oiera!" ta esne pixka bat "ondroso" bataiatuta ekarriko ditek. Eta jakiña egun gutxi barru kanposantura! Aste ontan ere bi il dituk. Orrengatik ba iregana etorri nauk.

Petri.- Utzi itzak gogoeta illun oiek. Neri ere "plakia" sartu zaidak, Goazen sukaldera!

Praisku.- Sukalde itza entzunda nere anakak ere bizkortzen zaizkidak!.

Petri.- An sendatzen dituk ire gaitzak. (*Bijoaz*).

Praisku.- Bai motel. Ez al gaituk bada txikitako lagunak?... Ire aita ta nerea adiskide aundi... zeraindarrak... (*Bijoaz*).

IV AGERRALDIA

Tomax eta Puljentxi

Puljen.- (*Atetik*). Ai Maria! (*Iñork ez dula erantzuten nabaituz barrura sartzen da. Bereala beste bat da ate joka*).

Tomax.- Etxean al dago Petrikillo?

Puljen.- Ez dakit bada. Orain ikusi bear. Nolanai laister etorriko al da!

Tomax.- Baldin baite! Ala nai nuke. Ezin itxoingo det luzaroan.

Puljen.- Zer gertatzen zaizu bada?

Tomax.- Zera... (*kiñuz adierazi naiez*) ezin... urteen ajeak! Giltzundin-gaitza.

Puljen.- Nik ere inoiz ori bera izan oi det.

Tomax.- Gaitz-erdi oñazerik ez ba'nu.

Puljen.- Belar batzuek, intxusa-ura edo emango dizkizut ta on aundia egingo dizute.

Tomax.- Operaziorik ez ezik zer nai gauza artuko det.

Puljen.- Azanario gordiña oso dezu ona.

Tomax.- (*Aserre*) Azanarioa? Zu ez zera gizona ta ez dakizu nere gaitzaren berri.

Puljen.- Emakumezkoa naizelako beste gauzak dakizkit.

Tomax.- Giltxurdinean arri koxkorrak mugitzen diranean ikaragarria da! Petrikillo aguro ez badator! (*Oñaze kiñua egiñez*).

Puljen.- Eseri zaite gizona, lasago egongo zera.

Tomax.- Ezin det ordea! (*Urduri*) Nora joana dan ez al dakizu?

Puljen.- Nundik jakin bear det! Auskalo! Ainbeste tokitara deitzen dute.

Tomax.- Ez al zera bada Petrikillo'ren andrea?

Puljen.- Ez jauna, ez! Ez nazu inoren andrea. Jainkoari eskerrak. Ni zu bezela Petrikillo'ren billa etorria nazu. Emagiña naiz...

Tomax.- Sorgiña!... (*Zakar*) Lenago esan besterik ez zendun.

Puljen.- Zergatik esan bear nizun?; zuk ez bait didazu galdetu.

Tomax.- Zergatik... ezin... (*Itz totelez*) ezin det geiago sufritu! (*Batetik bestera ibilliaz*). Ai ene! Oñazea asten zait. Ken zaite nere aurretik! Alde egin zazu emendik! Edo zerbait eman zaidazu.

Puljen.- Nik ez dezaizuket ezer eman. Ni emagiña naiz...

Tomax.- Ta nere min au aurregitea baño okerrago da... (*Oiu egiñaz*) Ai, ai! Petrikillo! (*Pareta ondoan dagon kamaina txar batean etzanaz*).

Puljen.- (*Berekiko*) Ikusia dago gizonezkoak emakumezkoak baño askozaz ustelagoak dirala!

V AGERRALDIA

Lengoak eta Joxepa

Joxepa.- (*Larriturik sartzen dala*) Zer ziran karraixi oiek? Orain ere etxea jendez bete zaigu-ta! (*Oatze gañean gizona etzanda dago-la oartuaz Puljentzi´ri galdegiñez*) Zer du gizon orrek?

Puljen.- Giltxurdiñeko oñazea zuala-ta ortxe etzanda gizarajoa! (*Biok eriarengana urbilduaz*) Larri zan bañan arnasa lasa artzen du ta pasa zaiola dirudi... (*Pulsoa artuaz*) Biotzak takateko sendoa ematen dio...

Joxepa.- (*Aserre*) Nor zaitugu emen iñori pulsua artzeko. Nola sartu zerate? Deitu gabe...

Puljen.- Otsegin degu ta ez zuten erantzuten. Atea zabalik arkitu degu ta sartu gera.

Joxepa.- Gizon ori ez da zure senarra izango.

Puljen.- Ondo eman ere! Ja, ja, jai! Berak Petrikillo´ren emaztetzat artu nau.

Joxepa.- Zuk bai nai, alajaña!

Puljen.- Obeto nagon bezela.

Joxepa.- Zertara etorri zera orduan?

Puljen.- Ori ezkutuko gauza da. Zure senarrari besterik esango ez diodana.

Joxepa.- Bai zuk sekreto asko ta diru gutxi. Ta onoko oiulari orrek! Auzo guziak jakingo du. Ezta larrutu izan ba´lute... (*Begiratuaz*) Sukaldeko atea irikia balego nere Petri ere emen genun. Ez diote egun guzian mokau bat trankil artzen uzten...

Puljen.- Piztutzen ari ote dan susmoa ematen diot. Ikusten?

Joxepa.- Esnatzera doa bai. Ez du atarramendu txarrik.

Tomax.- (*Zurruanga antzeko zerbait egiñaz esnatzen da begiak zabal-duaz. Emakumezko biak pizka bat urrutiratzen dira. Oatze gañean eseriaz ta burua jasoaz dio*). Nun nago?

Joxepa.- Zeorrek ez dakizu?

Puljen.- Ez al zera gogoratzen?

Tomax.- (*Susoerturik*). A bai! Petrikillo´ren etxean!

Puljen.- Miña joan al zaizu.

Tomax.- Izarrak ikusi ditut, baiñan obeto nago. Zerbait bero artu nai nuke eta zerbait... ustu... ez bait naiz aingeru...

Joxepa.- (*Jabetuaz*) Atoz barren ortara ta bear dezuna izango dezu.

Tomax.- Eskerrik asko etxeoandre. Ea zure senarrak sendatzen naun.

Joxepa.- Ez da nik esateagatik, amaika sendatzen du Petrikillo´k (*Dijoazela, Puljentziri*). Zuk itxoin zazu emen txanda etorri arte. (*Bijoaz*).

Puljen.- Bai, bai.

VI AGERRALDIA

Petrikillo ta Puljentzi

Petri.- (*Sarturik*) Zu al ziñan? Ez didazute uzten mokau bat pakean artzen.

Fuljen.- Gaizki dagonak ez bait du itxoin nai izaten...

Petri.- Orain ere sorginkeriren bat ba al dugu?

Puljen.- Ni sorgin ba nazu zu azti: biok kanbide bat degu, jendea sendatzea.

Petri.- Ortan ere mailla askotxo dira. Gu sendagilleok sendatu ta osatzeko gaude. Zuek erditu arazi ta...

Puljen.- Ain zuzen laguntza billa natorkizu bada. Emakume gazte bat daukat aurregiteko ta asiberria dala-ta larri dabil... eta nabil. Zuk ikustea nai nuke.

Petri.- Begira Puljentzi, leen ere esan izan disut ni ez nazula partero, emagin edo sabela ustu arazten duten oietakoa. Ori zuretzako.

Nik beste gaitz geienak sendatzen ditut, eta batik bat ezurak konpotzen ditut, ezur zaarrak noski. Baiñan "ezur berriekin" ez det sartu nai. Arazo ori ez da beti salda garbia izaten, beraz or konpon! Ta zoaz emendik...

Puljen.- Au da estuasuna! Aurra oker dator eta amak gaizki ibilli bear du. Au da estuasun gorria!

Petri.- Gaizki ba dator aski dezu medikuarengana joatea. Ori dezu onena. Zoaz bada lenbaitlen. Ni lanez buru gain nago ta jendea zai daukat; beraz...

Puljen.- A zer nolako istillua! Ez ote zaizkit ama edo aurra ilko beñe-pein? Noan bada.

Petri.- Bai eta berriz nigana etorii kontu oriekin.

Puljen.- Jende aundi-maunditakoa izan ba litz joango ziñan.

Petri.- (*Aserre*). Ezetz esan dizut emagin, sorgin!

Puljen.- Ta zu nor zaitugu? "Ezur-konpontzaile" Petrikillu alena ez bestena! (*Bijoa*).

VII AGERRALDIA

Petrikillo eta Tomax

Petri.- (*Atean beste norbait dala oarturik*). Sartu aurrera, sartu!

Tomax.- Bakarik al zaude?

Petri.- Oraintxe bidaltzea egin det atso mutxurdin ori!

Tomax.- Atso bat bidali ta "agure" bat sartu.

Petri.- Zu gaztea zaitugu gizona. Zer gertatzen zaizu? Ea eseri zaite, (*Eseri arazi ta luze-laburrean aztertzen duala*).

Tomax.- Lur jota nagola. Nik al dakik: estomaua. (*Urdaila*) Gibela, giltxurdiñak, maskuria... estiak ezin ustu ta gernua ezin isuri...

Petri.- Gizenegia zaude bai ta janakin bear dezu kontu aundia, aragia

- utzi, arrai pizka bat eta barazki asko; letxu azanario.
- Tomax.- Aza-olioak jateko esan bazenidan gaitz erdi. Bañan bestelako baratx-gauza? Txerri-gizentzeko onak! Onoko kristau onentzat malo!
- Petri.- Txerrikoa jango dezu bada...
- Tomax.- Ori bai! (*Esatean lerdea dariola*) Gibela erreta, Azpixuña, saieski eta neronek egindako txistor eta odolkiak! Ez bestek este-an sartzen duna, ez... Oriek dituzu jakiak, oriek!
- Petri.- Zuri komeni ez zaizkitzunak. Osasunarentzat barazkiak dituzu onak. Gordinik edo egosiak.
- Tomax.- Zaude ixilik gizona! Ez zaidazula orrelakorik esan. Auleriz ilko nintzake. Ez al dezu ikusi txorabioak emanda ia erori naizela? Nik "alimentua" bear det. Eta sendatu nazazunean, sekulan jan ez dituzun bezelako odolkiak ekarriko dizkizut. Apartak! Berebizikoak!
- Petri.- Nik bada ez dizut gezurrik esango. Bizi ta sendatu nai badezu aragi-jatea alde batera laga bearko dezu.
- Tomax.- Ederki eman ere! Arakiñak aragia uztea. Zu D. Gabino baño zorrotzago jartzen ari zera. Ark ez dit guzia debekatzen.
- Petri.- Ez nik ere ta gutxiago betirako. Baiña oraingoz odol ori garbitu bear da. Gosea izaten dezu sendagaillu onena. Gizenegia zaude eta nun galdua ba-dezu. Gaitz geienak ortatik datoz.
- Tomax.- Onera nerekin sartu dan atsoak ez zuen bada aragi aundirik.
- Petri.- Norengatik ari zera?
- Tomax.- Emen zure zai egon dan arengatik. Moko mehe, mehe, bat anima erratu ezik eriotza zirudin.
- Petri.- A! (*Gogoratuaz*). Puljentxi! Beti bizi! Zimel eta gogorra. Ez uste osasuna aragian dagoanik. Zuk pisuz jetxi bearra dezu ta noski ta ortako baraua, baraua eta bijilia.
- Tomax.- Ezta praile ba'nintz ere! Goseak bizitzeko obe iltzea!
- Petri.- Bai zera! Gutxixeago janda zere burua ariñago arkituko dezu. Nik esandakoa egiñaz zeorrek antz-emango diozu. Itzuli zaite

emendik illabetera.

Tomax.- Bai bitartean barrengo tristurak ez ba nau garbitzen.

Petri.- Ez gizona! Sasoi onekoa zaude. Barauak ez dizu kalterik egingo.

Tomax.- Ezta xerra bat edo beste jateak ere. Zer da ori gizon batentzat? Orain bertan gose bat sartu zait naigabearen ondoren.

Petri.- Ondo-ez orrek gaztigatu zaitu urrengorako jatenakin kontu ar dezazun...

Tomax.- Kontu artu? (*Atean norbait dala oartuaz*). Or ba dezu norbait ate ortan.

VIII AGERRALDIA

Lengoak eta D. Justo jueza

Justo.- (*Atetik*). Arratsaldeon! Sartu al diteke?

Petri.- Aurrera! Bukatzen ari giñan. Laister izango da zure txanda, alki ortan eseri zaite. (*Tokia erakutsiaz*).

Justo.- (*Eseriaz eta urduri*). Eskerrikasko! (*Adi-adi besteai begira*).

Tomax.- (*Beste muturrean eta ixilago*) Beti dezu jendez etxean! Ori da mauka!

Petri.- Ez dakit azkenerako nola bukatuko den kontu au! (*D. Justo ri errezeloz, espaz begiraturik*).

Tomax.- Sendatzen ba nazu bazkari ederra egingo degu elkarrekin! Eta eskupeko ona ere izango dezu.

Petri.- Gero ikusiko degu. (*Beldurti*).

Tomax.- Begira! nere ustez, ori bai, legeren bat bear luke: sendatzen ez duen medikuari ez ordaintzea.

Petri.- Amaika lan alperrik egin bearko genduke orduan sendagilleak eta mediku jaunak. Lege txarrak guretzat.

Justo.- (*Alkitik jeikiaz. Kopetillun*). Legea esan al dezu? Ba ni nazu legegizona! (*Aiengana urbiduaz*).

Petri.- Zer gertatzen zaio jauna?

Justo.- Zer...?

Tomax.- Au dezu Petrikillo famatua. Asko dakina. Obe du onengana etorri medikutan ibilli baño. Ori egin det neronek.

Justo.- Ala etorri natzaizu ni ere bañan ez zu bezela baizikan legearen izenean Petrikillo delako sasi-mediku ta sendagillea baitu ta preso eramatera.

Petri.- (*Dar-dar ikaraz*) Jauna! Nik ez diot iñori kalterik egin.

Tomax.- Ori esan! Obe zenduke beste gaizkilleen billa joan.

Justo.- Ni legearen izenean nator. Ez bai da zillegi titulorik gabe jendea sendatzen jardutea.

Petri.- (*Zuri-zuri geldituaz*) Ni.... zera.

Tomax.- Titulodunak ez ba zaitue sendatzen norabait jo bear degu.

Petri.- Berak etortzen zaizkit.

Justo.- Orregatik bada atoz orain nerekin auzitegira. (*Besotik Petrikillu elduaz*).

Tomax.- (*Artean zakar sarturik*) Ez bada! Ez da joango! Ni sendatu bear nau lenago! (*Petrikillo ´ri*) Ez beldurrik izan! Berriz ikuitzen ba zaitu begi ondoan jo ta ankaz gora botako det bere lege ta guzi! (*Zalapartan D. Justo bultzatuaz*).

Petri.- Ez, ez! Pakea bear degu.

Justo.- Ori agintariaren kontra indar egitea da. Jakin zazute kaleko atean guarda zibillak daudela ta biok lotuta eramango zaituela.

Petri.- Au lotsa! Zer esan bear dute jendeak! Preso! Ez, ez! (*Balantzaka alde batetik bestera, txorabioak emanda ia eroriaz*).

Tomax.- Ori ikusiko degu. Aurrena besteren etxetik zeorrek atera bear dezu. Ez naiz alper gaiztoa etorri Aizarnazabal´go muturretik Petrikillo´k senda nazan.

Petri.- (*Oean etzanaz*) Ai! Ai! Ene joxepa! Au miña! Ez... in asna... saaa! Itotzen naiz.

Justo.- Zerbait gertatzen al zaio?

Tomax.- Bai. (*Petrekillo'rengana joan eta besoan artuaz. Jueza'ri*)

Zuk dezu errua! !Gaizkille bat zera! Andreari deituko diot.

Petri.- (*Intzirika*) Jo-xe-e... pa!

Tomax.- (*Atera joanez*) Joxepa! Atoz aguro. (*Oiuka*). Zure senarra gai-xotu da!

Justo.- Medikua etorri dedilla!

Tomax.- Ederra dek kontua! Medikua Petrikillo'ren etxera! Ta ni zer?

Justo.- Zu etorriko zera nerekin auzitegira...

Tomax.- Bakarrik joango zera nai ba dezu! Demonio!

IX AGERRALDIA

Lengoak eta Joxepa

Joxepa.- (*Sartuaz*). Zer da ardail au! Gaur gure etxeak ero-etxea dirudi!

Tomax.- Ero-etxea ez! "Eri-etxea"! Or dago zure senarra.

Joxepa.- (*Senarra etzanda ikusirik*). Zer egin diozute nere senarrari?

Petri! Zer dezu! (*Oiera joan eta burua altxa araziaz*).

Tomax.- Galde zaiozu onoko kopetillun oni!

Justo.- Berez etorri zaio naigabea. Ez da gauza aundirik.

Joxepa.- Nere Petri! Arantzazu'ko Ama'k gorde zaitzala! (*Oiean ondo jarriaz*) Ezagutzen al nazu? (*Petri'k begiak zabaldu ta buruarekin bayetz adierazten duala*). Ba du ezaguera ta arnasa poliki artzen du.

Justo.- Orrela daudenai ez zaie geiegi itzegin bear. Lenbaitlen medikua deitzea da onena, beste atakea eman ez dezaion...

Joxepa.- Auxen da lanbidea! Banoa-banoa! (*Gaxoari*) Zaude geldi, bereala emen naiz. (*Damuturik*). Nola utziko det ordea nere gizona bakarrik.

Justo.- Andreak arrazoi du. Neronek deituko det medikua aldameneko etxetik telefonoz.

Tomax.- Ez baziña etorri ez zitzaion gaitzik egingo.

Justo.- Agintari bezela legea bete araztea etorria nazu; ta orain kristau naizen aldetik errukizko egipena dagokidala badakit.

Joxepa.- Sermoirik ez degu bear. Ea zoaz! Joan bear ba-dezu. Bestela...

Justo.- Bai ez dago astirik galtzerik. (*Abiatuaz*) Eta. (*Tomax'engatik*).

Jaun ori geldi dedilla emen atera gabe. (*Bijoa*).

Joxepa.- Nor zaitut emen nere etxean agintzeko?

Tomax.- Utzi zaiozu, dijoala!

X AGERRALDIA

Petrikillo, Andrea ta Tomax

Joxepa.- (*Leunki*). Begiak irikitzen ari zera. Petri! Egin zazu keñu!

Tomax.- Keñu? Jueza joana dala igarri du ta laister suspertuko zaizu. (*Petri'k zinkurin luze bat egiñaz besoak luza bitza*).

Joxepa.- (*Aurtxo bati bezela*) Bota izatzu nagitxoak! Katuak mingaiña jan al dizu? (*Petri jeki naiien asirik*). Itzegin zazu, baiñan zaude geldirik.

Tomax.- Bearko geldirik egon. Entzun dezu Jueza'k zer esan didan. Ez badakizu ere, guarda zibillak atean ditugu ta ez daukagu nola igesirik. Ez zure senarrak eta ez nik!

Joxepa.- (*Izuturik*) Jesus milla bider! Esaten nuen nik! Etxe ontan jende geiegi zebillela. Jueza zan beraz? Zeñiek salatu ote du nere senarra. Gizarajoak ez dio iñori kalterik egin-ta... (*Senarra'ri galdegiñaz*). Ez al da ala Petri. (*Buruarekin erantzunez*).

Tomax.- Okerrago dezu nerea. Zuek diru preskua irabazten dezute ta orrek beti dizu arrizkua. Ni berriz sendatzera etorri ler eginda

Aizarna'ko muturretik eta guarda zibillen artean lotuta atera bearra ta...

Joxepa.- Emen dira berriz. Zaude isillik! (*Petri'ri*). Lo itxura egin zazu. (*Zurrungan asi bedi*).

XI AGERRALDIA

Lengoak, D. Justo eta D. Gabino medikua.

Onek bizar zuria duala eta makila eskuan.

Justo.- (*Sartuaz eta zital*) Or dezu sasi-sendalaria, zure etsaia...

D. Gabino.- Arratsalde on!

Joxepa, Tomax.- Baita zuri ere! Ongi etorri!

D. Gabino.- Gaxo bat dagon lekuan an dago nere eginbearra. (*Josepa'ri*) Zer du zure senarrak.

Joxepa.- Erdi lotan dago baiñan etorri bedi. Oñazerik ez du.

D. Gabino.- (*Gaxoarengana urbilduaz pulsua artu ta aztertzen du*)
Biotza du aultxoa, naigaberen bat izan du noski, pasa zaio ordea.
Ez da ezer!

Joxepa.- Alare!

D. Gabino.- Inyekzio bat emango diot eta suspertuko da bereala.

Joxepa.- Eskerrik asko D. Gabino etorri dalako. Beorrek beintzat biotz on askoa du.

Tomax.- Zure senarrak berriz aultxoa ta kontuz ez dezaion "poto" egin (*Jueza ta D. Gabino'rengatik*) oiek ikusitakoan.

Justo.- Guk ez degu iñor gordiñik jaten.

D. Gabino.- Ori ba daki berak. Tira (*Txertu orratza sakeletik atera ta gertaturik*) Besoa altxa, ziztadatxo bat eta bapo! (*Esan ala egiñaz*) Erlojuari "kuerda" eman diogu. (*Joxepa'ri*). Ba dezu senarra aldi baterako! (*Petri'k ai! Otsa ateriaz*).

Joxepa.- Miña besteri ematea, artzea baño errezago bait da. (*Senarra oean eserita jarri ta txukunduruk*).

Tomax.- Karraxi egiteko gauza danean ez dago gaizki.

Joxepa.- Petri! Emaizkiozu eskerrak D. Gabino mediku jaunari.

Petri.- (*Totel*). Ezin asmatu det ordea. Zera... eztarri zuloan korapillua jarria daukat.

Tomax.- Bai zera! Korapillua? (*Jueza señalatuaz*) Bildurra!

Joxepa.- Izan ere orrek izan ditu erru guzia, Petri zerbait esaiozu D. Gabino'ri!

Petri.- Bar... ka... Barka... ka... ka...

Tomax.- (*Berekiko*). Usai txarreko itza atera zaio.

Joxepa.- Barkatzeko eskatzen dio.

D. Gabino.- Ezta ezeri. Sendatu zera ta beste leku batera noa. Barkaturik zaude. (*Agur egin ta esku ematera doakio*).

Justo.- Zuk barkatu diozu; bañan legea "lege" da. Ta senndatu dezun ezkerro auzia garbitu ta erabaki bear det. Orregatik emen gelditzen dira baituta Petrikillo deitutakoa, sasi-medikuntzan jardutzen dalako; ta beste gizon ori. (*Tomax'engatik*). Ni agintari bezela ostikopetu naulako...

Tomax.- Nik? (*Aserre*). Ez jauna!

Justo.- Zuk bai!

Joxepa.- Gure etxera nork bidali zaitun jakin nai nuke. Salatariari lepoa biurtuko nioke. ¡Petrál alena! Ez bestena.

D. Gabino.- (*Iskanbilla sortzera dijoala ikusirik, paketsu*). Ea, ea! Osasuna ta pakearengatik, D. Justo, eskatzen dizut ez dezazula auzi ori aurrera eraman. Zuk ez uste arren, Petrikillo sendalaria kuranderoa ta ni medikua ongi antolatzen gaituzu. Ez gabiltza biok gaxoak senda naiean? Eri diranetik -eta ezin konta añakoak dituzute- nork ez du senda nai?... (*Ixilunea*). D. Justo, zure alaba ere, txonkatillako ezurra nik gaizki jarri niolako edo Petrikillo'rengana etorria da sendatzera. (*Aitorkizun orrek zartada aundia sortzen du*).

Justo.- Nere alaba? Ez diteke! Nik ezer jakin gabe!

D. Gabino.- Bai, zure alaba? Ez dezu naiko noski, presondegira sar dezaten?

Joxepa.- Beraz emen izan diran ama-alabak zure andre ta alaba ziran?
(*Algaraz*) Xankome edo!

Petri.- Egi-egia da D. Gabinok esandako guzia.

Tomax.- (*Parrez*) Ja! Ja, ja!

D. Gabino.- Ez dago ondo iñorengatik iseka egitea.

Justo.- Nere alaba (*Petri'rengatik*) orren eskutan jarri ba-da jakin zazu-te nere baimenik gabe izan dala.

D. Gabino.- Jakiña, esan bearrik ez dago.

Petri.- Oñaze ta min ta eritasunak baimenik eskatu gabe etortzen bait dira!

Justo.- Ala gertatu dan ezkerro ta zure naigabetik obeto zaudela ikusi-rik (*Petri'ri*) zurekin itzegin nai det eta zenbait galdera zuzendu bear dizkizut.

Joxepa.- Bai, bai bakarrik utziko zaituegu or txokoan. Zoazte.
(*Senarrari lagunduaz*).

D. Gabino.- Nere aldetik ez dezute eragozpenik...

Justo.- Galdera bat edo beste ez da gauza aundirik. (*Bazter batean D. Justo ta Petri biltzen dira elkarrekin mintzatuaz*).

Tomax.- (*D. Gabino'ri*) Nik ere ba, mediku jauna, Aizarna'ko mutur-
retetik etorrita alper bidajea gerta ez dakidan, "kontsulta" egin nai diot bada...

D. Gabino.- Zer gertatzen zaizu bada?

Tomax.- Txorabioak egiten zaizkit. Ez dakit bada, urdailla gibela edo giltxurdiñetik edo, ez nabil ondo.

D. Gabino.- Eseri zaite ta aztertuko zaitut. (*Gorputz guzia arakatu bezaio*) Lenengo zure gaitz aundiena gizenegi izatean dago. Nola dezu sabel ori?

Tomax.- Kostata! Zer nai du egitea! Erremediores bat emango ba'ñida.

D. Gabino.- Gutxiago jan eta edan ! "Jan-edan gartxuz, kaiku, izan adi

eorren mediku".

Tomax.- Bai, auleriak il nadin! Ez nazu nere buruaren etsai.

D. Gabino.- Baietz esango nuke! Kristau guziok ditugun etsaiaz gañe-
ra zuk beste iru dituzu: sabela, okela ta alkola!

Tomax.- Alkola? ez, nik ardoa edaten det, suelto...

D. Gabino.- Ain suelto! Neurria txikitu bearra dezu ta urarekin nastuta
edaten badezu, obe! Bestela, zureak egin du!

Tomax.- Oraintxe bota didazu "sententzi" gogorra. (*Berekiko*).
Zergatik sartu ote naiz medikutan?... Ai! Ai! Ai! (*Aintzirika*)
Berriz ere naigabea datorkidala... Txorabioa!

Joxepa.- Orain ere gaxotu al zaigu? Apaiz blla joan bearko det.

Petri.- Ori falta zitzaigun etxean.

Justo.- Testamentua egin nai ba du entzuteko gertu nago.

D. Gabino.- Ez da orrenbesterako! Pizka bat ikaratu dala. Utsa!
(*Eseri arazten dute, patxadan jarriaz*)

Joxepa.- Esne pixka bat ekarriko diot.

Tomax.- Esnea?

Joxepa.- Salda orduan?

Tomax.- (*Itunki*). Ori gertatuko zait; "ilda gero salda bero" Naiago det
baso bat ardo.

AZKEN AGERRALDIA

Lengoak eta Puljentzi emagiña.

Puljen.- (*Laisterka sarturik ta bat batean ikaratuta gelditurik*) Ai
Maria! Jendearen emana! Jainkoa 7k dizuela atsalde on!

Petri.- Emen al zaitugu berriz?...

Joxepa.- Zer ote dabil au?

Tomax.- Lengo atsoa da. (*Berekiko*). Andregai ona neretzat.

Puljentzi.- (*Petri´ri*) Ez nator zure billa ez (*D. Gabino´ri begiratzuz*) D.
 Gabino´ren billa baizik...

D. Gabino.- Zer dugu bada?...

Puljen.- Arren eta arren betor lenbeitlen "Moko-goxoene´ra"...

D. Gabino.- Ezin al dute itxoin?

Puljen.- Ez, jauna, ez! Alaba aur egiteko dago ta odol ustutzen ari
 zaigu.

D. Gabino.- (*Aserre*) Odol ustutzen? Ta nun egon zerate orain arte
 deitu gabe?

Puljen.- (*Beldurrez*). Ba-daki... Petrikillo´k ez du joan nai izan ta.

Petri.- Ez bait da nere egitekoa. Emagiña zu zaitugu, ez ni!

Joxepa.- Ondo eman ere!

D. Gabino.- Petrikillo´k arrazoi du. Nola ez zerate nigana lenago eto-
 rri? Ez da jolasa! Ez al dakizu odola geldi arazten? Emakumea.
 Il diteke ta zuena izango da errua.

Puljentzi.- Ni laguntzaille bat besterik ez nazu...

D. Gabino.- Zoaz bada ta botikatik eraman zazu guata pakete aundi
 bat.

Puljentzi.- Bai jauna bai! (*Abituaz*)

D. Gabino.- An naiz bereala. (*Etxekoai*). Zuen baimenarekin, medikua
 ez bait da bere buruaren jabe.

Justo.- Erruki geiegi izateak ekartzen dizkitzu orrelako ezbearrak.
 Baiñan nik ez det emakumezko auzitan sartu nai. Aski det etxe-
 an gerta zaidanakin. Zurekin noa. (*Abiatuz*).

D. Gabino.- Nik bada ez det denbora galtzerik, norbait il edo bizi une
 larrian dagonean. Urrenarte bada! (*Bijoa*).

Petri.- Zoaz ondotxo, nagusi! (*Besteai*). Aitortu bear da, mediku ona ez
 dala merezi aña estimatzen ta ordaintzen. Gaxoa ez baña senda-
 tzen medikuak edo Petrikillo´k dute errua... Sendatzen ba da
 berriz.. zeruko santuren bat dezu beti bitarteko.

Joxepa.- Jakiña! Sendalariari ez saria ordaintzeagatik.

Tomax.- Seguroan ez al gaude bada sarturik guziok? Au jakin iozan


banu ez nintzan alper gaiztoan etorri izango Aizarnazabal'go
muturretik...

Petri.- Guzia zor zaio osasunari.

(Jendeari, esan edo abestuz)

Legea lege dala
askotxok du esaten
bañan ezurra austean
Petrikillo eskatzen
Dana dala, auzi ortan
ez gaituzu gu sartzen;
bañan ea txalo bat
diguzuten ematen

AMAIERA



"Teatro osoa euzkeraz" Tomo III

DOMENJON DE ANDIA

Gipuzkoako Erregea


Kondaira-dramakizuna

Iru ekitaldi (lau gerta-leku ta azken zati batean)

-1965-

ANTONIO M^a LABAYEN'ek idatzia

KULISKĀ SORTĀ



DOMENJON DE ANDIA

GIPUZKOA'KO ERREGIA

ANTONIO M.^a LABAYEN

JOKO- LAGUNAK

Don FERMIN:	Santa Maria Eliza Nagusiko Bikario Jauna
M. PEREZ LASKOAIN:	Eskribaua
ELDUAIN'go LOPE:	Alkatea
DOMENJON GONZALEZ DE ANDIA:	
Dofia KATALINA DE TAPIA:	Bere emaztea
Maixabel. ALABA:	18-20 urtekoa
Ines. ALABA:	14-14 urtekoa
YURRAMENDI'ko MARTIN:	Aundiki gizasemea 25 urte
ZALDIBIA'ko JOANES:	Aide nagusi zaarra
YARZA'ko SANTXO:	Aide nagusi sasoikoa.
ITURRIZA'ko OXER:	Batxiler, beti ixturianta.
MANTONI:	Erriko amandre, sakristauaren emaztea
PERUTXO:	Sakristaua
MITXEL:	Aguazilla.
GARCIA FRANCO:	Korrejidore jauna
Lenengo MIRABEA:	
Bigarren MIRABEA:	
Lenengo Gizaseme kaletarra	
Bigarren Gizaseme kaletarra	
Irugarren Gizaseme kaletarra	

GAON Judua, beste aguazillak, kaletar, baserritar ta erriko emakume ta jende talde xeha.

Gertakizuna TOLOSA'n 1463.urteko Jorraillean
Jantzi, dekorazio ta itxurak XV.garren gizaldikoak egiantzean
egiñak, naiz orain "funzional" deritzaienak. Ots!, nola nai, beti,
konbentzional tankeraz.

LENENGO GERTA-LEKUA

(Agertokian Tolosako Plazan Zaar Aundia. Euskuiko bazterrean Santa Mariako eliza Nagusia, ondoan "Amarrantegi" etxe ordea duala. Etxe ontan amarrenak biltzen zituzten eta toki egokia zan, baita ere, jende bilerak egiteko.

Aruntzatxeago Oria ibaia nabari da. Alde artan goruntz Uzturre mendia ta ibaiak behera. Arramale zubia.

Erdian plaza, zuatz bat edo beste agiri dirala, eta etxe koskor batzuek inguruan, naiko leku libre utzirik.

Ezker aldean ezkutatua dagon Napar-zubitik datorren bidea. Galtzada au ezker aldeko bazterrean zutik dagon Andia-Torre atari aurretik igarotzen da.

Gainerontzean ezer gutxi: Tolosa zaarreko irudia: etxe itxurak kale ta belenen artean, baiña ez zeatz egiñak, nola-bait tajutuak baizik oial beltzaren gañean.

Argi bereziz esandako lekuak nabarmen agiri araziko dira, ots! Andia-Torre, Plaza ala Eliozaldea lagunak joko ta jardunaren arabera. Eta antzezkiaren Errejidore ta Zuzendarien iritzi ta gogora).

ESKRIBAU.- Errilijioaren etsai ez ezen gure sakelen zurrupatzaile da hori. Jendeari orrek dio geien bat burua berotzen.

ALKATEA.- Jende xehari ez dio asko kenduko. Ez dagon lekutik ezin eman. Gu, erriko nagusi ta errejidoreak izango gaitazu petxero ta pagatzaille. *(Domenjoni begiratuaz).* Beorrek bearko du bitarteko, berandu baño lehen. Zer derizkio Domenjon?

DOMENJON.- Bada, obe dala alde aurretik gauzak antolatzea eta ez gero negar egitea. Guztiok jendea pake arazi bear dugu. Gaon hori izanagatik, Jainkoaren seme da; eta Errege Jaunaren mandari. Beraz, su-emantzailleok zure mendean ar itzazu, alkate

jauna.

ALKATEA.- Ez da errez, asko bait dira ta laguntzaille onak dituzte: Iturrizako Oxer batxiller ta sasi letradua... Yurreamendiko semeak... Yarzako Santxo... eta abar eta abar.

DOMENJON.- Guzoi, eta batik bat, etxe oneko gizaseme eta aundi-kiai, arrazoia entzun arazi bear zaie. Eta Oxer, kanon-ixturiente horri, ez legoke gaizki, beorrek, Bikario jauna Elizako aginduak gogoraztea...

BIKARIOA.- Bai, noski, Domenjon jauna. Ortan daukat gogoia. Oxer dalakoa ez ote dan... oker. Ez det begiz galtzen. Baiñan, begira zugun egia, Gaon judua Gaztelako Erregeren izenean eskea egitera baldin badator, zer gertatuko da?... Aundi ta txikien mandio ta ikulluak, merkatarien, ondasunak eta jende xeharen sukalde ta ganbarak erabat ustuko dirala. Eta, Gaztelako Errege Enrique IVak pake hori eskeintzen badigu, aski genuen Naparroako errege pean jarrai izatea.

ESKRIBAUUA.- Erri osoa marmarioan ari da Enrique IVa Gipuzkoan dabilleta-ta.

ALKATEA.- Zaldibi ta aide nagusi izanak berri lotsagarrienak zabaldu bait dituzte, Erregek, erregiña zapustuaz giza-lizunkeria diardula. Esamesak edo...

BIKARIOA.- Isil gaitzen... "*Intelligenti pauca*" Domenjonek iñork baño gehiago daki ortaz bere iritzia esan nai ba liguke.

DOMENJON.- Zergatik ez! Adiskide maiteok: erbesteko errege, jaun-txo ta aginterien artean zerbait ikusia naizelako, nere irudiko, nola joka bear dugun esango dizuet. Gipuzkoak orain eun ta berogecitamar urte, bide bat artu zuan: pakearena. Ez gaituzu aldatzen ibilliko naiz egun batez bide erosoagoak badirala uste arren. Odol asko isuri izan da, anai artean, jauntxoen bidegabekeriaz. Aide nagusiak Erregeri gorroto izateko zioak ba dituzte. Zigorra artutakoak nekez barkatzen bait du. Ta aaztu, beñere ez... Gu, orain, ordea, errege bidean goaz. Probintziako anaitasuna

indartu degu Gaztelako Enrique IVari eskerrak. Ez dagokigu Erregeren barruan dauden argalkeriak ta utsugiteak aztertzea. Erregeri errespeto ta leialtasuna zor dizkiogu; eta orde z gure erriarentzat agindu dizkigu libertade ta Justizia.

ESKRIBAUA.- Juduen mende dagon gizon ezain ta erkitu batek ez det uste ezer on eman dezaigukunik...

BIKARIOA.- Ez Naparroako Joan IIak aña behintzat. Arengana bil-tzen, Iruñeko gure apezpiku jaunak, lagun egingo liguke.

DOMENJON.- Bat izan, bestea izan, erregeak, juduen mendean ez ezen diruaren mende arkitzen dira, ta griñen pipiaz joak. Ez bedi Eliza Ama santa sar auzi orretan, Bikario jauna. Nik baño obeto bait daki-jakin: Jainkoari Jainkoarena eman bear zaiona; eta Erregeari... erregearena.

ALKATEA.- (*Gaiztoz*) Eta... Erriarena... erriari. (*Bikario jaunari begi-ratuz*). Eta Santa Mariako Elizaren eskubideak Tolosari...

BIKARIOA.- Ez dago duda-mudarik! Aiek Ebanjelioko itzak dira. Eta zure asmoa, alkate jauna, zuzen erabakia utzi zigun Lanzeloto, Aita Santuaren ordezkari eta Iruñeko Elizaren buru izan zanak.

DOMENJON.- Santa Mariako Elizak Erria du zaindari, ta bidezko da alkarrekin ondo aditzea, bat etortzea. Tolosako Errejidore ta agintariak bezenbat Santa Mariako ta gañerako ballara-elizen apaiz eta kapellauek leia bear dute pakearen alde.

BIKARIOA.- Ez degu besterik egiten, Andiako Nagusi Jauna! Baiñan berri txarrak ekarri dituzte Valladolid eta Salamancatik datozen jendeak. Enrique IVa zorrez eta lizunez galdua omen... eta gure bizkar bizi nai.

DOMENJON.- Gaztelako Errege dan bitartean esamesai entzungor egin bear diegu. Jauntzat aitortua daukagu ta ezin uka diogu agintaritza. Ahal dutenok! Batzarrak, egin beza hori, ez guk! Bakoitza bere lekuan.

BIKARIOA.- Onoko apaiz au, gai ez izanarren eta askotan iritzi ezber-diñekoa, beti izanen da ordea, Erri-gizonen esaneko. Elizak ez du

sartu bear politikan ez bada Erreljioaren alde jokatzeko.

DOMENJON.- Ez gaitezen ortaz gehiago mintza. Ekiteko garaia da ta ez astirik galtzekoa. Nunduk edo andik ekaitza uxa bear degu. Beok emen Alkate ta Bikario jaunak! Eta nik... oraintxe bertan Errege jaunaren billa noalarik. Ondarribin da, ta zaldiz abituaz, gauerako ara eldu niteke. Perez Laskoain eskribaua atoz nerekin!

ESKRIBAUUA.- Lanez josita nago ba...

DOMENJON.- Berdin da. Nik ere naiago nuke etxean gelditzea baiña bidez-bideko dantzan bearko dugu. Goazemazu!

ESKRIBAUUA.- Ala agintzen ba dit...

ALKATEA.- Zu mutil zaar, zere buruaren jabe zaitugu. Don Menjonen emazte Dama Katalinek eta alabek keitzeko zioa badute. Ez zuk.

BIKARIOA.- Jainkoak emango al dizute ordaiña. Beorri ta Andia Torreko guziak goretsiaz. Agur Domenjon gurea! Bijoaz! Zoazte!

DOMENJON.- Bearko!... Ibiltzeko jaioa nintzan nunbait. Bakoitzak degu gure patua... nerea abiadura. Gaztelatik Prantzi, Flandes eta Inglaterraruntz. Goieritik beterrira; itsasoz ala lurrez beti bidez-kari. Oraingo txangoa laburra da: Tolosatik Ondarribirañokoa.

BIKARIOA.- Alare! Joan bear duanak egotea kalte. Beraz uzten zaitugu, Nagusi, ta bidai on! (*Bedeikapen keñua eginez*) Jainkoak lagun zaitzala!

ALKATEA.- Bai! Ondo ibilli ta laister arte. (*Agurtuaz*).

DOMENJON.- Ahal ba det bihar bertan egingo degu itzulia. Ez diogu alkarri beste olesik egin bearrik. Au bakarrik: Gu itzuli artean jendea trankil eta bare begola. Adio!

(*Domenjon barneruntz sartuaz eta Eskribaua bere aldetik*).

ALKATEA.- Hori nere kontu gelditzen da... Ez izan kezkarik.

BIKARIOA.- Jesukristoren itz ederrenetakoak auxek dira: PAX VOBIS. Gauden ortan!

(*Alkate ta Bikarioa kalebarren aldera ezkututzen dira*).

Ezenarioa unetxo batean utsik eta erdi illunpean bego. Bat batean Andia-Torrea-ren itxura dagon lekua argitu da ta ertzean duan ataritik Domenjon azalduko da berriz otsegiñez).

DOMENJON.- Katalin! (Barrengo erantzunaren zai) Bai! Bai! Mutillari esan diot zaldiak prestatzeko ta bereala Ondarribiruntz abia bear degu.

(Andre Katalin bere alabekin agertuaz).

KATALIN.- Zer gertatzen da ordea? Berri txarren batzuek al ditugu?

DOMENJON.- Oraingoz ez da ezer okerrik, baiñan txarkeririk sor ez dedin, Erregearengana noa, ala bearrez.

KATALIN.- Ez al zaizu berdin, ibillialdia biarko uztea? Nekaturik zaude

DOMENJON.- Bihar?... Berandu izan diteke, agian.

(Alaba gaztea aitaren besoetara joan eta laztanduaz).

INES.- Aitatxo etxean ikustea arrigarri egiten zaigu. Umezurtz jaio giñala badirudi.

DOMENJON.- *(Musu emanaz)* Ez, maite! Nere atsegin osoa zuengan dedala badakizute. *(Andre ta alabak besotik arturik)* Etxe ontan daukat nere poza eta zuen ondoan zerua, baiñan...

KATALIN.- Bestela esango nuke... Gaur eguardirako maneatu nizkitzun jakirik gozoenak: amorrai presko, txerriki pusketa samur. *(Alaba zaarrenari)* Ez al da Maixabel?

MAIXABEL.- Bai andre, eta nik arraultz-opil, eztiz estaliak, labeen jarriak dauzkat.

KATALIN.- Ikusten? *(Leunkiro Domenjoni)* Ez al zenduken martxa utziko biarko, goizean-goiz abituaz? Arratsaldea laister illuntzen bait da oraindik.

DOMENJON.- Ez Katalin, ez. Errege jauna gaur gabea Ondarribin lo egitekoa dala badakit. Eta bihar ez det an arkituko, Pabeko Mugatik Urtubiko jauregira joateko bait da. Prantziako Erregeren aurrean ezin mintzatuko natzaio. Ez det ango arazoe-tan naasi nai; emengoak ematen didate aski lan.

KATALIN.- Esango nuke! Ez da nunbait Gipuzkoan gizonik, Andia Torreko nagusia baizik.

MAIXABEL.- Gurea bezelakoa, ez behintzat, agertzen dakina, itzal aundikoa.

DOMENJON.- Beste asko ni añakoak badira, baiñan, alare oraingoan nik joan bear; ta aguro, Erregeren diru-biltzaillea Tolosara iritxi baño lehen. Jendea asaldatzen asia da; matxinada lertu aurretik itzaltzea obe.

KATALIN.- Ez zera bakarrik joango, noski?

DOMENJON.- Eskribaua ta eskutari gaztean lagun egingo didate. Mutillak ari dira zaldiak prestatzen.

INES.- Orduan, aitatxo! Eraman nazazu zure zaldi gañean Tapiaraño, gutxienez.

DOMENJON.- Ez noa Anoetatik eta ezin geldi niteke bidean. Urrengo batez, patxadan guztiok alkarrekin Donostira egun pasa ta itsa-soko aizea artzera joango gaituzu.

INES.- (*Goibel*) Ez dakit noiz... beti gero, beti gero...

KATALIN.- Udara laster dator, nexka, orduan da garairik onena.

DOMENJON.- Bai agintzen dizuet (*Abiatuz*) Orain jantziz aldatzera noa.

KATALIN.- Nun dituzun guziak badakizu, txukun jarriak daude. Ez ahaztu txartes ta zamarra, euria egiten badu ere.

DOMENJON.- Ateri dago ta eguraldia onera doala uste det.

KATALINA.- (*Barneruntz lagunduaz*) Ezin aterako zera etxetik ezer artu gabe. Sukaldera noa zerbait bero dezaten

DOMENJON.- Katillukada salda, arraultz batekin naikoa det. Bidean ere mokauren bat jango degu gosetzen bagera.

INES.- (*Besotik elduta losintzaz*) Aita! Prantziako konfitiak bai dirala gozoak!

DOMENJON.- Bai maite! Ondarribin izan oi dira salgai eta ekarriko dizkitzuek erregali...

KATALINA.- (*Inesi*) Eta gero guziak janda or ibilliko zera ortzeko

miñez.

INES.- Ez amatxo!, pixkana-pixkana txastatuko ditut... eta Maixabeli banatuko dizkiot.

MAIXABEL.- Ez dizkiñan geiegi emango, ez!

DOMENJON.- Eta zuk etxeoandre, ez aldezu ezer ekartzerik nai?

KATALINA.- Orain azkena, Inglaterratik kutxa-bete gona, galartsu, buruko, oñetako ta pitxi ederrik ekarri zenizkidan eta ez det geia-goren bearrik zure atsegiñareko ez ba da....

DOMENJON.- Zu apain ikustea gustagarri zait ta Prantzian moda berriko soñekoak ikusgarriak dira damentzat.

KATALINA.- Naiz esku utsik, zu lenbaitlehen etortzea da nere gutizirik biziena. Ez besterik...

DOMENJON.- Bihar bertan ahal ba det eta Jainkoak lagun, Erregek ez ba dit besterik agintzen. Ez bait da komeni ni luzaroan Tolosatik kanpo gelditzerik.

MAIXABEL.- Errege jaunak ere zurekin etorri bear al du?

INES.- Zertarako?... Itsusia omen da-ta sudur motza, tximua bezela.

KATALINA.- (*Aserre*) Zer dira itz oriek! Goikoai errespeto aundia bear zaie. Eta damatxuak ez gurasoai alper galderarik egin.

INES.- Barkatu amatxo. Maisuak esan dan...

MAIXABEL.- Nolakoa dan ikusi nai nuke.

DOMENJON.- Zaldun galant eta apaiña. Terziopelo ta urrez jantzia eta buruko kapelan luma zuria. Iñoiz ikusiko dezute.

INES.- Bai, aita.

KATALINA.- Lenago, zuk (*Inesi*) erdel "lizioa" ikasi bear dezu. Ta gero esku lanak egiten. Goazen goruntz...

INES.- Bai amatxo!

Laurok sartzen dira. Domenjon Inesek eskutik artuta... Andia Torreko bazterra illunpean geldi bedi, argia plaza erdian piztuaz. Bertan Zaldibiako Joanes eta Yartzako Santxo azaltzen diralarik. Aide nagusiak.

ZALDIBIA.- (*Alde batera eta bestera beldurti begiraturaz*). Zer uste

zuan bada jende xehak?.. Gure mendetik aterata, bere gisara, lanik egin gabe eta petxak ordaintzeko biziko zirela?...

YARTZA.- Hori nai zuten, guri ebatsitako ondasunekin, baiña nagusi okerragoa sortu zaiela, jakingo dute orain.

ZALDIBIA.- Bai. Gaztelako Errege Enrique IVa ona izan zuten aide nagusiak zapaltzeko, gure torre-etxeak birrintzeko. Orain, ordean, hari eman bearko dizkie guri lapurtutako aberastasunak. Tolosako erriari bein eta berriz diru "pedidoa" egitera dator, zergak biltzea. Eta armadun gizonekin bidean dala jakin da. Orain ikusiko degu zer egingo duan Andia Torreko Domenjon jaun "Zuri-eder" (*Eskui-ekerrera begiratuaz eta isillago*)... Paltso orrek!

YARTZA.- Ez ikustea obe! Ni bada ezpada Berastegiko Jauregira, nere aidetara joango natzaizu, bihar bertan. Eizean lasai ibilliko naiz Ameraun eta Ipoliñoko basotan.

ZALDIBIA.- Zu gazte zaude oraindik. Eta ibilli zaitezke. Ni berriz, etxean geldi bearko det. Ez bait naiz ezertarako gauza. Andaluziko Estepona aldetik, erbestetik, itzuli nintzan ezkerre, erreuma jo-ta elbarriturik nago.

Domenjon antola dedilla, Errege, Gaon judua ta eriko jende xeharekin. Guziok asetzen eskubete lan badute. Baiña alajaña! Ezin ikusia jasoko du...

YARTZA.- Baike, Joanes, Zaldibiko zalduna! Txikiak aundiari gorroto; maizterrak nagusiari. Horrela goaz.

ZALDIBIA.- Eta Eliz gizonok ere... guri erriak kendutako ondasunetatik amarrena izatearren, jende xeharen alde.

YARTZA.- Apaizok... neri kendutako amarrenetatik ez dute bada sabelik betekoko.

ZALDIBIA.- Bikario jauna, bera, lenago naparzalea zan. Orain Domenjon eta Konsejuko errejidoreekin bat egiñik dago, ortik jaten baitu! Or du gabela!

YARTZA.- Antziñan Santa Mariako apaizak Tolosako erriak izenda-

tzen zituan. Gaur Iruñeko apezoikuak nai dituanak bidaltzen dizkigu... ta guk mantendu bear.

ZALDIBIA.- Aide nagusiak ez bait gera ezer! Gurea da errua. Gure artean izan ditugu saltzailleak... bai oñaztar eta bai ganboitar artean ere. (*Goibel*) Sancho! Gureak egindu. Beste denborak etorri zaizkigu. Errege, urrutiko agintari... ta erri xeha bertako nagusi.

YARTZA.- Bitarteko.... Domenjon eta beste zenbait ustel... Uztarri batean lotu eta akullua sartuko nieke.

(*Jarduna etenaz Andia-Torretik datorren otsa oarturik*).

ZALDIBIA.- Zaldi-perra soñua dator Andia-Torretik... Domenjon abituko da... Ez dauka etxean gelditzerik, seguru asko Erregearengana joango da...

YARTZA.- Bidean amiltzen bada ere, ajola gutxi!

ZALDIBIA.- Kontuz! Ez gaitzala ikusi. Zeletan gaudela usteko bait dute.

YARTZA.- Gu gera, bera begiz ikusi nai ez degunok.

ZALDIBIA.- Anka egin zagun Elizaldeko errostatik barrena... (*Bijoaz*)
Zaldi irrintziak entzun bitez. Illunpe unetxo bat ondoren argia Andia Torreko aldean agertuko da berriz. Etxeko belen atzetik bi mirabe. Batak suila naiz ontzi bat arropa zuri buru gañean; besteak otar uts bat galtzarbean. Ibaiaruntz garbiketa egitera doaz. Auzoko Andre Mantoni berriketara urbiltzen zaie.

MANTONI.- Zer da berri? Naiz bi belarrietatik sor-gor zamarra izan zarata aundia nabaritzen det zuen Torre barne ortan.

I. MIRABEA.- Etxe aunditan beti soñu aundiak....

II. MIRABEA.- Hori esan!

MANTONI.- Zerbait gehiago ere bai, apika. Atarramendu txarra eman diot zaldiak prestatzen ari zirala suma dedalarik. Zuek jakingo dezute.

II. MIRABEA.- Belarri txarrak baiñan sudur ona dezu usaintzeko.

- Nagusi jauna berriz ere abitzera doala eskribaua ta eskutariarekin.
- MANTONI.- Esaten nizuten. Gure Domenjon zaldun "prinzipalegia" da eta ezin etxean egon Andre Katalinek nai luken aña.
- II. MIRABEA.- Ez du artu ezta bazkaltzeko betarik ere!
- MANTONI.- Otordu kontu ortan, nere "Perutxok" ez du utsik egiten. Eskerrak zuen Etxekoandrea esku zabala dala, zuen sukaldeko ondakiñekin guziok asetzen gera.
- II. MIRABEA.- Egia da. Gure etxean jana sobra degula, baiñan baita ere lana.
- MANTONI.- Lana?... Dantza, jai ta erromeria ez dezutenean, bai.
- I. MIRABEA.- Ortatik noizik beinka.
- MANTONI.- Artxipiagan izango ziñaten Pasko biharamunez... galaiak lagunduta.. irri ta mirri!
- I. MIRABEA.- Mutillak ez daude guretzat.
- MANTONI.- Losintxatzen jakin bear...
- II. MIRABEA.- No! Limur errezak zeudenan eta.
- MANTONI.- Mayatza izan oi da sasoirik onena. Gure gazte denboran goizean goiz joaten giñan inguruko baserri guzietara "erreberoa" artzera, bidez-bide lore ta marrubiak bilduaz.
- I. MIRABEA.- Orduan arkituko zendun zure Peru...
- MANTONI.- Ark bai ni... beti atzetik nenbilkiala.
- I. MIRABEA.- Oraingo gazteak, bada ez dute gerran besterik pentsatzen.
- II. MIRABEA.- Ez dakigu zer dabiltzan "Amarrandegi"n sartuta.
- MANTONI.- Nere gizonari esaten diot: ez istillutan sartzeko! Gerra? Erriari su emango balioke Mondraguri bezela emen kiskalduta giñake guziok. Jesus milla bider!
- I. MIRABEA.- Ez litzake orrenbesteraño izango. Zera!... Bertan degu ibai ederra-ta.
- II. MIRABEA.- Bai, ibai ederra... berritsukeriak utzi ta arropa garbi-ketara joan gaitezen.

MANTONI.- Andia-Torreko arropa garbiketa egiten ez da zailla.
(*Arropa begiratuaz*) Au zurtasun eta edertasuna! Andre Katalinen amandreak linu ariz eundua! Zuek baztertzen dituzuten puskai eskerrak ez da gure etxean maindirerik falta. Andre Katalin eta alabak ain dira esku zabal beartsuentzat!

I. MIRABEA.- Ondo astinduko ditugu arri gañean, lehenbaitlehen puska ditezen.

MANTONI.- Hor! Inundik ez! Orduan ez lirake inorentzako gauza izango-eta.

II. MIRABEA.- Ixo! (*Adi-adi jarriaz*) Ez al dezute entzuten?...
(*Zaldiperra soñuak eta irrintziak, Torreko ikullutik datozenak entzun bitez... eta gero urrutiratzen doaz*) Ba-doa.

MANTONI.- Bi belarritatik gortzen asia naiz eta ez det ezer sumatu.

I. MIRABEA.- Orduan, oiean zaudetela, Perutxoren zurrunkak ere ez zaitu esnatuko.

MANTONI.- (*Aserre*) Zer ari zera likiskeria! goiz-ollanda alena ez bestena!

I. MIRABEA.- Oraingoan entzun dezu-bada.

MANTONI.- Aditu egiten det; ta entzun ez, komeni ez danean.

II. MIRABEA.- (*Parrez*) Ja, ja, ja! Goazeman! Neska!
(*Bi mirabeak aidoso suilla, otra eta puskek buru gañean arturik beren lanera doaz*).

MANTONI.- (*Belenetik ezkutatzen da*) A! Gazte ergelak! Zuekin ez dago gauza zuzenik.

(*Unetxo batean antzeztokia inortxo gabe gelditzen da. Txistu otsa entzun bedi. Bereala Andia Torreko leio bat barrendik zabalduko dute Maixabelen aurpegia agertuaz. Onek keinu egin ondoren leiopera kale barrendik Martin Yurramendi giza-semea urbiltzen da. Eta argiak toki artan disdira egingo du.*)

MAIXABEL.- Gure aita jauna oso kezkatu abitua da. Ez du ea ahome-nik artu. Salda txurrua bat eta alde! Jendea asaldatuta dagoela-

ta, Gaon juduaren etorreraz. Zer gerta ote litekean beldur gera.

MARTIN.- Gertatu? Utsa! Bidezko dana. Maltzurkeriaz diru billa datorrenari ostikoz jota atzera itzuli araztea.

MAIXABEL.- Zu ez zaite, badaezpada sar iskanbilla ortan.

MARTIN.- Zer nai dezu? Bordon dantzan jardutea? Ez da pesta eguna, ta nik lagunekin batera ariko natzaizu.

MAIXABEL.- Naspillatzeak erritik kanpora botatzeko agindua dago. Ez nuke nai zu tartean izaterik. Emen bakar-bakarrik geldituko bait naiz, zu gabetanik...

MARTIN.- Mairuen lurretara bialtzen banaute ere ez zaitut aaztuko. Eta noizpait itzuliko naiz.

MAIXABEL.- Ango emakumezkoak ez ba dizute burua galduarazten.

MARTIN.- Ez Maixabel kutuna! Musulman emakumeak arpegia estalita daramatela badakizu. Inork ez daki zahar ala gazte diranik; eder ala itsusi. Zure aurpegi eder hori ikusita gero...

MAIXABEL.- Aiek ere zerbait liluragarria izango dute.

MARTIN.- Mairu nagusiak etxean eukitzen dituzte. Bakoitzak aldi-tuan guziak, gañera, Harem'en.

MAIXABEL.- Andre gajoak. Hori ez da kristau legea.

MARTIN.- Zu zera legea; zu bakarrik zaitut maite. Ango beltxeran guziak baño, nik naiago zure marfillezko lepo ta kolko leun zuria.

MAIXABEL.- Ez bazera zintzo ibiltzen eta ez badezu zentzuz jokatzten galduko nazu, bada. Gurasoak ez didate utziko zurekin ezkontzen.

MARTIN.- Kortejatzen zaitudala badakite eta egundano ez digute eragotzi alkar ikusi ta mintza gaitezen...

MAIXABEL.- Begiak itxita ez ikusia egiten dute. Baiñan gauzak okertzen badira, nork daki?... Ixo! Kalebarrendik jendea datorrela dirudi. Leioa itxitzera noakizu.

MARTIN.- Itxoin zazu pixka bat. Noiz ikusiko degu berriz alkar?

MAIXABEL.- Bihar goizean amarretan Elizan, illeta bait degu.

MARTIN.- Ni egun txintan eizara joatekoa nazu, baiñan eguardi aurretik egingo det itzulia ea leio ontatik ateratzen dan nere eguzkia (*Irritsu*).

MAIXABEL.- Goibel ez badago eguraldia... Zoaz emendik limurzale gezurtia. Jendea da (*Leioa itxiaz*).

MARTIN.- (*Leiora musu keñua bialduaz*) *A sorgintxo!* (*Kale kantoitik ezkututzen da*).

(*Bikario jauna ta Alkatea Arramele aldetik datozela Elizalderuntz joanez*).

ALKATEA.- Gure gizonak onuzkero Amasa aldean ditugu. Bide zelaia dute ta zaldi bizkorrak. Bein Murgiako zubia pasa ezkerre laister agertzen da Oiartzun. Eta illuntzerako Ondarrabira sartu ditezke.

BIKARIO.- Ez zure gogoa bezain aguro, alkate jauna. Bide luzexkoa da, baiña okerrik ez ba zaie gertatzen gauerako bai, Errege jaunarengana inguratu ere.

ALKATEA.- Amaiketako artzen denbora galdu degu eta eguardi aurretik aguazillak ballara guzietara bidali nai nituzke jendea pakearaztea.

BIKARIOA.- "Angelus", otoitza esan da gero aginduak emango dituzu. Ea Goitik datorkigun laguntza.

ALKATEA.- Laguntza onena zigorra da, deabrua tartean dabillenean. Aguazillai gaztigatu diet gaur gauean erriko ateak ondo zaindu ta itxi arazteko. Beorrek beste orrenbeste egin beza Elizan eta Amarrandegin.

BIKARIOA.- Elizak beti zabalik bear du. Orain Sakristauari esango diot "casus belli" sortzen baldin bada "Amarrandegi" giltzaz itxi dezala. Eta ez dezaiola jendea sartzen utzi, noiz eta norbaitzuek amarrenak ekartzera ez datozen.

ALKATEA.- Beorrek ez ditu Elizaren amarrenak galtzen utziko, ez Ez da etxekalte!

BIKARIOA.- Ez ta bear ere. Jainkoa da aurrenik... (*Ontan Eguardiko*

amabi kanpai otsak entzun bitez: Dan, Dan,! Dan... Eta Bikario jauna kapelua kenduaz errezatzen asiko da). "Angelus nuntiabit Maria".

(Alkateak gogo txarrez bederen erantzuten dio ta biok otoitz egin eta ibilliaz gordetzen dira kale batetik). Elizako kanpai otsak buka-ondoren Perutxo Sakristaua ta Oxer batxillerra Eliza aurrean ager bitez).

SAKRISTAUA.- Bikario jaunak agindu dit Amarrandegin ez iñori sartzen uzteko. Eta Domenjon Ondarrabitik etorri bitartean atea itxitzeko.

OXER.- Zuk gaizki aditu dezu gizona! Nola esan zezakean kirtenkeri hori! Amarrandegi ez al da bada gauza biltzeko? Orretarako ateak beti zabalik bear ditu. Norbait ostutzero etor baledi, orduan bai, itxi! Baiñan erriko jendeak dakarzkite amarrenak. Eta kanpotik datorren arrotz Gaon judu hori da zurrupatzaillea.

SAKRISTAUA.- Oraingoan ez du asko ken ahal izango bada... Mandioa erdi utsik dagota.

OXER.- Ez zaizu alerik ere geldituko bada. Ezta apurrik ere! Guzia juduak jasoko dizu... Erregearentzat.

SAKRISTAUA.- Zer gertatzen da ordea?... Nere motzean, ez det tutik konprenitzen.

OXER.- Bada, onoko auxe: Enrique IVa "aker orrek" sasi alaba Prantziako errege Luis XIaren anaiarekin ezkondu nai duala ta eztaiak "panpantxo" gure bizkar egin nai dituztela, erria zakurrik gabe utziaz...

SAKRISTAUA.- "Azio" hori egiteko aide nagusian mendean obeto genduen. Amarrandegin ez zan garirik falta. Jaten ematen ziguten behintzat.

OXER.- Orain juduak bakarrik asetzen dira. Gure etsaiak.

SAKRISTAUA.- Ni sakristauaz gañera, kristau nazu lendabizi...

OXER.- Ez itxi bada beste kristauai Amarrandegiko ateak. Orain datozenak adiskideak ditugu, erriko jendea.

SAKRISTAUUA.- Nik baño eskola gehiago dezu ta zure gain uzten dizkizut giltzak. (*Giltzak emanaz*). Torizu! Nik ez dakit ezer. Or konpon!

OXER.- (*Giltzak artuaz*) Bai gizona, bai. Alkar ezagun degu. (*Jende otsa entzun bedi*) Emen ditugu lagunak. Goazen barrura! (*Gerta lekua illunpean gelditzen da; eta unetxo ortan oial beltz batez lengo dekorazioa estaltzen dute eta Amarrandegi barruko mandio utsa agertuko da bazterrean zaku bat edo beste, eta egur-pilla besterik nabari ez dirala. Gerta-lekua argitu-ala Oxe eta Sakristaua sartzen dira! Eta ondoren Martin Yurramendi, eta beste bospasei gizaseme ta gizon*).

OXER.- (*Au da batzarraren buru ta ezkutuki etorri berriai aginduak ematen dizkie*). Ez istillurik atera, bada ezpada ere!

MARTIN.- Ala da, Bikario ta Alkate aguazillekin or dabilta kalean.

I GIZASEMEA.- Emcn, onela bazkal aurrean bildu arazteko albiste txarren bat al degu?

II GIZASEMEA.- Motel!, eltzeko babarrun egosiak jateko ere denbora izango diagu.

III GIZASEMEA.- Lana bukatu gabe etorri bear izan diat. Ez bait nauk sakristaua bezela: kanpaiak jo ta kito!

SAKRISTAUUA.- Aizak? Ez badakik ere nik ez diat zer ikusirik elizkizun ontan. Au dek emen (*Oxerren gatik*) sermolaria...

OXER.- (*Oso ver, demagogo tankera arturik*) Entzun bai!... gauza ez da txantxetakoa.... (*Entzuleok adi-adi jarriaz*) Jaunak: Biarko eguna, egun gogoangarria izan diteke bai Tolosa eta bai Gipuzkoa osoarentzat ere. Goierritik gaztigatu digute Gaon judua nazkagarria ta laguntzailleak Tolosara datozela diru ta gauza billa. Zoritxarreko "pedido" dalako eskea egitera. Au dalata gertu egon bear dugu piztitzar hori erritik kanpora bialtzeko. "Auzo-Txiki, Yurre, Usabal, San esteban eta Monteskueto ballarakoak jakiñan gañean daude, eta Gaztelako errege bidea zain-

tzekoak dira, Gaonen laguntzaille armadunok atetatik kanpora geldi ditezen. Juduak sartu nai badu, bakarrik sartuko da...”

MARTIN.- Bai, San Migeltxo ta Laskorain Torretik ederki garaitzen dira bide guziak eta antxe egongo dira basarritar guziak erne. Kaletarrok ez zarete gutxiago izango.

I GIZASEMEA.- Eguraldia ez dago txarra zai egoteko...

OXER.- Eguraldia ez, baiñan albisteak oso okerrak dituk, zergaitik ezen Gaon armadun taldearekin gure diru ta ondasunen billa datorren...

III GIZASEMEA.- Ederki eman ere! Gu, arotzak izerdi.... ta arrotzak "Marabedi". Beti lanpean eta petxapean bizi bear al degu? Madarikatu zikiñak!

II GIZASEMEA.- Orretarako al degu Errege?

SAKRISTAUUA.- Naikoa degu gure Domenjonekin.

OXER.- Bai! Domenjon jaunak asko dezake eta Erregearena keja ematea joana da: baiñan Gaonek aurrea artua du ta jokua eskutik irabazten badigu galduak gera! (*Guziok batera sutzen asiaz*).

MULTZOAK.- Hori ez! Ordago botako diogu! Jo ta ke!Egin zaiogun lepo!

OXER.- (*Baretu araziaz*). Oiurik ez! Iso! Ez sumindu, ta mintza zaitzte isilago.

MARTIN.- Itzak urri!, Ekin, egin bear dugu ekin.

OXER.- Orretarako kaleko jendeari isilka adierazi bear diozute bihar goizean, czpata ta azta-makillak artuta Gaztelako ate inguruan erne egon ditezela. Gaon errian sartzen asten danerako.

I GIZASEMEA.- Eta zertan ezagutuko degu Gaon dala?

SAKRISTAUUA.- Juduak isatsa (*Buztana*) deabruak bezela dutela aditu izan det.

II GIZASEMEA.- Baita zera ere! Adarrak akerraren antzera...

III GIZASEMEA.- Jantzia ez dik izango kristauok deguna.

MARTIN.- Laister antzemango diozute, ez izan beldurrik.

OXER.- Lasa egon zaitetzten esango dizuet Batzar Nagusiaren aginduz

Judu orrek Gipuzkoan baimenik gabe sartzea galerazia daukala, naiz Enrique IV erregeak bidalia izan. Beraz, bihar goizean zuen tokia nun dagon jabetu zerate. Baiña ez ditezela kontuan erori ez alkate, ez errejidore ta ez Bikarioa...

MARTIN.- Jende xehak, jakitea aski da; ta auzoko maizter eta baserri-tarrekin bat egiñik zernaitarako prets egon!

I GIZASEMEA.- Kaletarrok ez degu uts egingo. An izango gera izki-llu ta guzti.

II GIZASEMEA.- Eizara ateratzeko aitzeki-maitzeki zakurrak ere eramango ditugu.

III GIZASEMEA.- Jai egiteko beti da giro... Lana, sakristauak egin dezala.

SAKRISTAUA.- Lana?... Zakurrak zaunka sumatzean kanpaiak joko ditut behintzat. Eta orain etxera zoazte, bazkaltzeko garaia dezu-te-ta. Emen ez dago ezer nere ustez onena Amarrandegi itxitzea izango zaigu.

OXER.- Bai, goazen, baiña zalapartarik atera gabe. Ez ogi pusketarik ez ardo txurraparik eskeintzen ez diguten ezkerro, joan gaitezen! Tira! Perutxo! Mugi!

SAKRISTAUA.- Traguxka eskeiñi?... meza emateko ozta-ozta geldit-zen bazait Sakristian...

(Bat batean, ustegabeen Bikario jauna sartzen da guziok arrituta utzirik. Geienak igesi doaz Oxer eta Martin Y. Bakarrik gelditzen diralarik Bikario jaunari aurpegi ematen!)

OXER.- *(Lasai)* Bikario jauna degu-ta. Ez ginduzun espero D. Permin.

BIKARIOA.- Esango nuke. Ez didazute deirik egin, ez baimenik eskatu... Beraz ni esero...? Zertara bildu zerate?

OXER.- Ezer txarrerako ez giñan bilduko, ain zuzen, eguardiko ama-bitan. Zera...

MARTIN.- Azken berriak jakitera....

OXER.- Eta bihar goizerako eizaldia gertutzera... Gauerako utzi gabe.

BIKARIOA.- (*Bioi so egiñaz*) Begira! Oxer batxiller eta Doctor gaia, eta Yurramendiko gizaseme gaztea! Ni zaharra nazute eta urrutira artzen det usaia... Egia esaidazute! Arren! Zuek... Gaon juduaren etorrera dala-ta zerbait iskanbilla gertutzen ari zerate. Ez al da ala?

OXER.- Ez diogu ukatuko... bai jauna! Ezgera baldin badator....

MARTIN.- Ez diogu erriko dirutza jasotzen utziko.

OXER.- "Pedido" eskabidea gogorrean jaso nai badu, gogor erantzun bear zaio. Ez iñolaz ordaindu!

BIKARIOA.- Hori ondo dago, eta asmo ortan joanak dira Erregearengana Domenjon, eskribaua ta abar.

OXER.- Enrique IV ezain eta tximu orrek egingo duan Justiziaren zai baldin bagaude erria ilko da gosez.

BIKARIOA.- Erregea, errege degu orde... naiz Gaztelakoa izan... (*Oxer'i*) Zu Salamankatik etorri berria zeran ezkerro zer diote an Enrique IV ortaz?...

OXER.- Ez dute begiz ikusi nai. Bere inguruko aundiki batzuek izan ezik: Haroko Kondea, Calahorrako Obispoa, Villena Marquesa, eta antzekoak. Mendean artuta daukate Eta auek juana "Beltraneja" sasi-alaba, Guyanako printzearekin, Luis XI.garren erregeren anaiarekin ezkondu nai lutuke. Eta orretarako guri dirua zurrupatu nai digute. Gaztelak erri geienak, jauntxo ta nekazariak aurka daude eta Enriqueren erregetzat ez du luzaroan iraungo. Eta are gutxiago aitortuko dute Juana hori erregintzat. Nor duan egitazko aita edozeñek daki...?... Gaztelako kortea usteldurik dago.

BIKARIOA.- Ni ez naiz nor arazo labain orietan sartzeko, baiñan izatekotan Naparroko erregearen alde jokatu nuke. Iruñeko apezpikoa nagusi dedanez.

MARTIN.- Jatorriz leitzarra zerala ezagun zaizu.

BIKARIOA.- Ezin ukatu, baiñan nere aita zanak Probintzian "hidalgia" artu zuan eta ez det beñere ahaztutzen Santa Maria Eliza

ontako Bikarioa naizela eta Tolosako erritik bizi naizela, ta jaten dedala.

OXER.- Beste, asko, ordea, Bikario jauna, emen erdi goserik daude, bai langille ta bai baserritarak; eta baita ere erdi razioko apaiz beartsu batzuek ere. Eta Gaon judua Erregek bidalita sakela betetzera baldin badator, aurreratzean, emen ezin bizi izango da iñortso: ez goiko ta ez beheko; ez aide nagusi ta ez maizter. Ezta!.. esango nuke Santa Mariako Bikarioa jauna bera ere!

MARTIN.- Guziok alkartu bear degu, aundi ala txiki geren buru ta ondasunen jabe izan gaitezen. Eta ez besteren mende egon beti mutil!, petxero...

BIKARIOA.- Domenjon Gipuzkoako hermandadearen izenean Erregearengana justizia eskatzera joana da ta gure Lege zahararren itzaean lortuko duala uste det.

OXER.- Eta Justizia ukatzen badiote, gure esku artu bear degu.

MARTIN.- Bestela ezin iritxi badegu, geok artu, Erregek nai badu ezbadu.

BIKARIOA.- Zaudete soseguz, pauso txarrik eman aurretik eta geiegi burua berotu gabe. Gazteok ez dakizute itxoiten.

OXER.- Ez, jauna. Goseak ere ez du itxoiten. "Amarrandegi" au utsik ikustea besterik ez dago.

MARTIN.- Eta errotetako arriak aspaldi geldirik.

BIKARIOA.- Uda berrian gaude ta laister etorriko al da, gari berria... naiz Naparroakoa izan... Ixo! Norbait da!

(Unetxo batean itxoin da gero sartzen da zalapartan Perutxo sakristaua)

SAKRISTAUA.- Alkate jauna dator onuntz!

BIKARIOA.- Itxi zazu au bereala ta goazen guztiok nere etxera.

(Laisterka danok doaz kanpora Bikarioak dioala albotik)

OIALA ERORTZEN DA.

II EKITALDIA

(*Lenengo Gerta Lekua*)

(*Andia-Torreko salatxo bat: Txoko batean maia, liburu batzuek gañean dituela. Beste nun nai, eser-leku, alki arasa ta etxe barruko puskak sakabatuak. Goia da leio gotiko estu bateti argia sartzen da. Ezkuta-oiala altxa aurretik Ines' i abotsa entzuten da "Beotibar Gudua" kantatzen ari dala, ("laud ereskiñaz lagunduaz").*)

Mila urte igarota
Ura bere bidean
Gipuzkoarrok sartu dira
Gaztela'ko etxean

(*Ezkuta-oiala altxatzekoan Oxe eta Ines agertzen dira mai inguruan eserita, "Lizioa" ematen*)

OXER.- Beotibar'ko eresia ondo ateratzen zaizu, baiñan aita jaunak "Laud" ereskiña ekarri bazizun Musika goitarragoa ikasteko izan da. Alonso X kantigak edo... Auek jotzen leia bear duzu, beatzak bere lekuan ipiñiaz.

INES.- (*Eskuan duan Laud mai gañean utziaz*) gaur nekaturik nago ta bihar saiako naiz.

OXER.- Gogorik ez badezu, utzi zazu utzi! Ni ere lanpetua nago ta aguro joan bear bait det... Beraz, orain erderazko lezioa esaten asi zaite. (*Liburu bat emanez*) Ona emen A. De Lunaren: "Libro de las claras y virtuosas mujeres". Ea, ozenki ta parra-parra irakurtzen didazun.

INES.- (*Muzin*) Ez zait batere atsegin. Zaila da osoro. Naiago det beste onoko ontatik irakurri. (*Mai gañean dagon beste liburu bat artuaz*) Santillanaren "Serranillas".. "la vaquera de Hinojosa" (*Irakurtzen asiaz*) ala onoko au!

"Por una gentil florista"

"de lindas flores e rosas..."

OXER.- (*Irriparrez*) Zu bezain polita zan noski Inestxo. Baiñan ez ahaztu zu "moza lipuzkoana ez ezen" Andia Torreko alaba zerala, ta damatxoa izaten ikasi bear dezula. Gero erregearen kortean agertzeko.

INES.- Alde batetik gogoa daukat, baiñan zertarako? Enrique IV erregea ain itsusi, sudurmotz eta ankaluze baldin bada?... Tolosan ere bada gizaseme ederragorik!

OXER.- Ala izanik ere ez dezu horrela mintza bear. Bestela, zure etxe-koak, ni, Oxe batxillerrak erakutsi dizula usteko baitute. Ta jakina...

INES.- Ez al da bada egia Errege orrek tximu arpegia duala?

OXER.- Ez neri orrelako galderarik egin! Gañera, Errege inguruan galai apain ta dotore asko izaten oi dira. Baiña garbi esateko, ez dezu geiegi pioa bear aien limurkeriz... jendea ezagutzen ikasi bear dezu. Eta zure mama Andre Katalin damak eman dizun liburu onek (*Berriz liburu au eskuratuaz*) "De las elaras y virtuosas mujeres" erakutsiko dizu andereño on bat izaten.

INES.- Gaztea naiz oraindik eta "lezio" hori baiño musika ta dantza gustagarriago zaizkit... eta "bordondantzariak" ikustea. Liburua biarko utziko degu.

OXER.- Zure gogoa ala baldin bada, barkatzen dizut. Nik ere gaur zeregin asko det eta emendik joan bearra.

INES.- Atzo joan zan gure aita Jauna eta ez dakit noiz etortzekoa dan.

OXER.- Gauerako etxera bilduko dala uste det.

INES.- Ondarribi ta Prantziako mugatik erregaliak ekarriko zizkidala agindu zidan.

OXER.- Gaurko lezioaz ez dezu saririk irabazi behintzat. Ea, bihar gehiago leiatzen zeran.

(*Kaletik datorren txistu ots luzea entzuten da*)

INES.- Txistu otsa zan, ez al da ala?...

OXER.- *(Adi adi oartuaz. Bigarren aldiaz txistu-otsa entzun bedi)* Bai ala da. Deia egiten didate. Nere lagunak dira! Barkatu beraz... banoa-ta. *(Abituaz)* Bihar arte bada!

INES.- Bihar arte, Jainkoak nai badu, Oxer maisu jauna!
(Antzeztokia illunpean gelditzen da. Asierako Beotibar Kanta soñua entzungo da Laud ereskiñaz lagunduta berriz argitasuna egin arte Zapia altxatakoan).

BIGARREN GERTALEKUA

(Gaztelako Ate aurrean gaude, kale erdian. Atetik urrutira Laskoraingo zelaiak nabaitzen dira. Bertatik errege bidea dator Tolosako korreo kalera sartzen dana, atetik barrena. Atetik onuntz etxe itxura batzuek. Alkate jauna ta Gaztelako Atea zai-tzen dagon Aguazilla izketan ari dira).

ALKATEA.- Ez al da ezer berri ate ontan?

AGUAZILLA.- Zaharrak berri, alkate jauna.

ALKATEA.- Ez al da mandazain talderik agertu, ala beste kanpotar jenderik?

AGUAZILLA.- Emendik ez da pasa baserritar jendea besterik; eta erriko langille zenbait, beti dabiltzanak. Eguraldia ona bait degu.

ALKATEA.- Orregatik bada, egon zaite errira zeintzuek sartu ta ateratzen diran.

AGUAZILLA.- Ezin zainduko ditut nik guziak! Erri aundia da tolosa eta bost ate ditu, jauna.

ALKATEA.- Gaztelako atea au da ordea, nagusiena ta zeatzago zaindu bear dana. Ez ahaztu, gañera, aldemenean dezula "polbora-Etxea".

AGUAZILLA.- Ez jauna, ez. Ez badaki auts-berri orrek beldur ematen dit. Su artu ezkerro!... Kaxo motel! Nereak egingo du!

ALKATEA.- Begira bada. Kontuz! Eta ez emendik mugi! Aditzen?

(*Abiatuz*) Gero arte!

AGUAZILLA.- Beorren esanetara, alkate jauna!

(*Soladu antzera eskuaz agurturik, ate aurrean batetik bestera ibillian abitzen da, Alkatea kale barrenuntz ezkutatzen dalarik. Beste aldetik Bikario jauna Joanes, Zaldibia ta Santxo Yartza Aide nagusiak ager-tzen dira, Laskorain aldera egurasteko asmoz. Aguazillak ikusitakoan. Oles! egiten die itza emanez*).

AGUAZILLA.- Egun on jaunak! Ba dabiltzala! Beok!...

ZALDIBIA.- Egun on! bai.

YARTZA.- Zu bazaudela, Miel-Anton!

BIKARIOA.- Au atezai, San Pedroren gisan...

AGUAZILLA.- Agintzen dutenean, bearko! Bikario jauna. Txarrean, pijo!

BIKARIOA.- Mandamenduak betetzea ez da beñere gauza txarra.

AGUAZILLA.- Ala diote apaiz jaunek.

ZALDIBIA.- Batzuetan, batzuetan. Ez beti.

BIKARIOA.- Jainkoaren legeko Mandamenduak esan nai nuan.

YARTZA.- Gure gogoko ditugunean ez behintzat.

AGUAZILLA.- Ez dago gaizki esana. Orain bezela: beok pasio bat ematera joango dira. Eguraldi polita dago-ta. Emen geldirik egoteko baño ohea.

BIKARIOA.- Bai, bai giro dago ibiltzeko ta Berrano baserriraiño noa, oean gaxo dagon nagusia ikustera.

ZALDIBIA.- Guk bide erdiraño lagun egingo diogu.

AGUAZILLA.- Noizko du mandoa Bikario jaunak, alferrik nekatu gabe?

BIKARIOA.- Oñez malda gora igotzeak on egiten dit. Lodiegia bait nago.

YARZA.- Guk asko igo gabe "Erreten gibeletik" egingo degu itzulia. Bagoaz, bada eta urrenarte!
(*Abituaz irurak kanporuntz*).

AGUAZILLA.- Bidean arrotzik ikusten badute, onunzkoan gazti bezaidate mesedez. Bada ez bada ere...

BIKARIOA.- Zaude lasai gizona. Gu pakezkoak gaituzu. Laister arte!

ZALDIBIA.- Ez egon gure zai! Arrameleko atletik sartuko gera berriz etxera.

AGUAZILLA.- Bijoaz ondotxo! (*Bijoaz*).

(*Aguazillak aruntz-onuntzako ibilliari darraio bere atezai langintza beteaz*).

OXER.- (*Lxilik-misilik albo kaletik azalduaz*). Miel Anton!

AGUAZILLA.- (*Itzuliaz izututa*) Zu al ziñan!? Arraioa!

OXER.- Zer?... Atea luze- laburrean neurtzen ari al zera ?

AGUAZILLA.- Neurtzen?... ezezik aspertzen pauso... ematez... Lau ordu daramazkit ate sarrera au zaitzen.

OXER.- Adiskide! Alperrik ari zera bada. Beste nunbait dezu gaur pesta!

AGUAZILLA.- Zer pesta ta zer jaiondo!

OXER.- Bai gizona! Arestian Arramele zubira zaldizko bat iritxi da esanez Korrejidore jauna ta Domenjon bidean datozela. Beraz auntzara joan bearko dezu.

AGUAZILLA.- Alkate jaunak oraintsu-orain emen jarraitzeko ordena eman dit bada...

OXER.- Andia Torretik nator eta an dakite gauzaren berri. Bazoazke bai lasai asko gosari txikia artzera, beldurrik gabe.

AGUAZILLA.- Ez badakizu ere baraurik nago ta pozik alde egingo nuke zerbait artzera, ni itzuli bitartean emen geldituko baziña nere tokian.

OXER.- Ori egingo dizut bada, lagun zahar! Ain zuzen Gaztelako korreoari itxoiten egon bearra det. Eta zerbait gertako balitz ots egingo nizuke.

AGUAZILLA.- Ortara ezkero "Jerolinoren" tabernaraño joango naitzaizu ta... esandakoa: norbait sumatu ala, egidazu dei, oi u batez bereala etorri nadin (*Abiatzen asiaz*).

OXER.- "Zentinela" ernea nazu, ta ez da iñor ate ontatik sartuko nere baimenik gabe. Ez izan kezkarik.

AGUAZILLA.- Kezka?... (*Sabela bi eskuekin ikutuaz*) Emen barruan dabilkit arra... ta pattar pixka bat edanaz itotzera noakizu.

OXER.- Ederki! Bizigarri orrek on egingo dizu. Gerora eguna goibel-tzen bada ere.

(*Aguazilla bijoa. B izpairu aldiz txistu otsak entzungo dira ta Oxerrek erantzuna ematen du beatzak aoon sartuta txistu atereaz*).

OXER.- (*Adi-adi entzunez*) Emen ditut!... (*Atetik kanpora pauso batzuek emanaz*) Berak dira! Sartu aurrera! Ez da zelataririk ni beste!

(*Eskubi-ezkerretik Martin Yurramendi, beste iru gizaseme ta Perutxo sakristaua sartzen dira*).

I.GIZASEMEA.- Zalditik jetxi arazita oñez dakarkite.

II.GIZASEMEA.- Zezen beltza gaiñean degu.

III.GIZASEMEA.- San Esteban ballarakoak soldaduak andik pasatzen debekatu die.

MARTIN.- Eta Gaon zauritu ta jo gabe ate ontatik Tolosara sartu araziko degu.

OXER.- Bai, gure errira diru-billa datorren ezkerre emen kalean emango diogu ordaiña ta Ongi etorria!

SAKRISTAUUA.- Ez al litzake obe, ostera atzera bidaltzea? Jende gosea, jende aserrea da, gero!

I.GIZASEMEA.- Lepoa moztu ta kito!

II.GIZASEMEA.- Ori nai du jendeak!

OXER.- Erriak erabakiko du zer egin.

(*Kanpotik datorren gizataldearen otsa gero ta bertago nabari da*).

MARTIN.- Azken itza Justiziak esan dezala.

OXER.- Baiñan bada ez bada gu gertu egon, armak gure esku ditugula.

GIZASEMEAK.- (*Batera*) Hori, hori! Goazen polbora etxera! Azta-

makillak artzera! Ezpata ta matxeteak! *(Aldameneko etxeruntz joanez)*

OXER.- Kontuz! Naspillarik gabe!

SAKRISTAUUA.- Ni, esan bezela Elizara noa. *(Bijoa).*

MARTIN.- Bakoitza bere lekura.

OXER.- Korrika dakarte gizona, uste baño lehenago.

MARTIN.- Tximista egiñean!

OXER.- Gu ez gaitezen, bada lo egon. *(Biok eskutatzen dira).*

Datorren gertaria bizi ta giartsu joka bear da. Istillua aunditzen doa. Tanborketa gaitza jotzen dute ta jendetzaren oiua eta deadarrak piztzen dute ingurua).

Emen degu Gaon! Gaon judua! Jo ta ke! Eman, il zagun! Lepo! *(Eta antzeko karraxiak entzun bitez. Bat batean gizataldea, baserritar eta kaletar naasian Gaon erdian dutela atetik sarrera egiten dute, pillan. Ordurako Oxer, Yurramendi ta beste gizasemeak bat egiñez. Guziok azta-makil ezpata ta beste iskilluz armaturik daude. Gaon kale barrura darabakite istillu ta zalaparta tartean. Talde osoa ezkututzen da, baiñan oiua aunditzen doaz.*

Ai! Ai! Ai! Ene.

(Emakumezkoen intzirin eta deadarrak belarri-zulagarri. Azkenik danbateko batzuek eta orru sarkor bat).

Il dute! Il dute! Il dute!

(Pixkanaka-pixkanaka istillua gutxitzen da. Urrutira leloa bertso doñuz abesten dute).

"Gonzalo Moro Tati, Tati!

Gaon judua Kal, Kali!

(Ixiltasuna nagusitzen dalarik astiro oiala erortzen da. Une bat itxoinda berriz Oiala altxatakoan Gertaleku berdiñean gaude baiñan arratsaldea da ta illuntzen asia. Eliza il kanpaiak dardarazten dute eguratsa).

Din! Dan, Dan! Din!

OXER.- "Zentinela" ernea nazu, ta ez da iñor ate ontatik sartuko nere baimenik gabe. Ez izan kezkarik.

AGUAZILLA.- Kezka?... (*Sabela bi eskuekin ikutuaz*) Emen barruan dabilkit arra... ta paltar pixka bat edanaz itotzera noakizu.

OXER.- Ederki! Bizigarri orrek on egingo dizu. Gerora eguna goibel-tzen bada ere.

(*Aguazilla bijoa. B izpairu aldiz txistu otsak entzungo dira ta Oxerre erantzuna ematen du beatzak aotan sartuta txistu atereaz*).

OXER.- (*Adi-adi entzunez*) Emen ditut!... (*Atetik kanpora pauso batzuek emanek*) Berak dira! Sartu aurrera! Ez da zelataririk ni beste!

(*Eskubi-ezkerretik Martin Yurramendi, beste iru gizaseme ta Perutxo sakristaua sartzen dira*).

I.GIZASEMEA.- Zalditik jetxi arazita oñez dakarkite.

II.GIZASEMEA.- Zezen beltza gaiñean degu.

III.GIZASEMEA.- San Esteban ballarakoak soldaduak andik pasatzen debekatu die.

MARTIN.- Eta Gaon zauritu ta jo gabe ate ontatik Tolosara sartu araziko degu.

OXER.- Bai, gure errira diru-billa datorren ezkerre emen kalcan eman-go diogu ordaiña ta Ongi etorria!

SAKRISTAUA.- Ez al litzake obe, osterata atzera bidaltzea? Jende gosea, jende aserrea da, gero!

I.GIZASEMEA.- Lepoa moztu ta kito!

II.GIZASEMEA.- Ori nai du jendeak!

OXER.- Erriak erabakiko du zer egin.

(*Kanpotik datorren gizataldearen otsa gero ta bertago nabari da*).

MARTIN.- Azken itza Justiziak esan dezala.

OXER.- Baiñan bada ez bada gu gertu egon, armak gure esku ditugula.

GIZASEMEAK.- (*Batera*) Hori, hori! Goazen polbora etxera! Azta-

makillak artzera! Ezpata ta matxeteak! *(Aldameneko etxeruntz joanez)*

OXER.- Kontuz! Naspillarik gabe!

SAKRISTAUA.- Ni, esan bezela Elizara noa. *(Bijoa).*

MARTIN.- Bakoitza bere lekura.

OXER.- Korrika dakarte gizona, uste baño lehenago.

MARTIN.- Tximista egiñean!

OXER.- Gu ez gaitezen, bada lo egon. *(Biok eskutatzen dira).*

Datorren gertaria bizi ta giartsu joka bear da. Istillua aunditzen doa. Tanborketa gaitza jotzen dute ta jendetzaren oiua eta deadarrak pizatzan dute ingurua).

Emen degu Gaon! Gaon judua! Jo ta ke! Eman, il zagun! Lepo! *(Eta antzeko karraxiak entzun bitez. Bat batean gizataldea, baserritar eta kaletar naasian Gaon erdian dutela atetik sarrera egiten dute, pillan. Ordurako Oxer, Yurramendi ta beste gizasemeak bat egiñez. Guziok azta-makil ezpata ta beste iskilluz armaturik daude. Gaon kale barrura darabakite istillu ta zalaparta tartean. Talde osoa ezkutatzan da, baiñan oiua aunditzen doaz.*

Ai! Ai! Ai! Ene.

(Emakumezkoen intzirin eta deadarrak belarri-zulagarri. Azkenik danbateko batzuek eta orru sarkor bat).

Il dute! Il dute! Il dute!

(Pixkanaka-pixkanaka istillua gutxitzen da. Urrutira leloa bertso doñuz abesten dute).

"Gonzalo Moro Tati, Tati!

Gaon judua Kal, Kali!

(Ixiltasuna nagusitzen dalarik astiro oiala erortzen da. Une bat itxoinda berriz Oiala altxatakoan Gertaleku berdiñean gaude baiñan arratsaldea da ta illuntzen asia. Eliza il kanpaiak dardarazten dute eguratsa).

Din! Dan, Dan! Din!

YARTZA.- Zalaparta izugarria izan da. Ez genduen olakorik uste!
Gaon juduari lepoa moztu Alajainkoa! Tolosako Erriak larrutik
pagatuko du, ta guziok izango gaituzu errudun!

ZALDIBIA.- Gu?... Lenago ere gorrak ikusiak gera, ta orain ez gaitu-
zu ez nagusi ta ez agintari, beraz... buruzagi diranok Domenjon,
Alkate ta gañerakoak okerra zuzen dezatela. Ea nola zurretzen
duten ezbearra Erregearen aurrean. Andia Torreko jauna ta korre-
jidorea etorriak omen dira-ta.

YARTZA.- Lehentxago etortzea zuten, ez zan sarraskia gertatu izango.

ZALDIBIA.- Guri zer? Ez kezkarik izan! Agintaritzta ta ondasunak
kendu zizkiguten. Erri xehari eskubide guziak eman dizkiote, ta
gu, jakiña, baztertuak gaude, baiñan Erria, maizter ta jende
arruntan pean.

YARTZA.- Auek baño erru aundiago Oxer Batxillerak Yurramendiko
semeak eta Andia Torreko beste adiskide zenbaitek dute...

ZALDIBIA.- Eta ez gutxiago Santa Mariako Bikarioak... Inguruko
basa-eliza guzien amarrenaz jabetu dan ezkerro, jende beartsua
losintxatzen du. Bai, gaur D. Permin degu Elizaren nagusi ez
ezik Erri ta kontseju guztiarena, ere!

YARTZA.- Alkatea oso aserre dagoela Bikariorekin jakin det.

ZALDIBIA.- Berari dagokio gogor jokatzeta. Ez du orain egokiera
makala Justizia egiteko.

YARTZA.- Iltzailleak urkamendira kondena bearko dituzte.
Arrokerian ondoren, negarra ta malkoak izango dira bazterretan.

ZALDIBIA.- Bai!, iltzaille, su-emantzaille, estalkiñak, guziak dira
gaizkille. Eta Fuero Zaharraren arabera eriotz epai merezi dute.
Gauza garbia da!

YARTZA.- Batzuen-batzuek mendira iges egiñak izan bear dute. Guk
ere, emendik alde egitea obe izango degu.

ZALDIBIA.- Goazen bada. (*Abitzen asiaz*).

YARTZA.- Bada ez bada ere...

ZALDIBIA.- Zeren beldur dezu, gizona? Gaizkilleak arrapatuko dituz-

- te, eroriko dira billa badoazkie. Errege, gu zapaltzen ain zorrotz izan bazan, beste oriek zigortzen ainbatekoa dan ikusiko degu.
- YARTZA.- Tolosako erri geiena, ordea, alde dute ta istillu ederra sortu diteke berriz, gogorregi jardun ezkeru. Gosea aolkari txarra baita.
- ZALDIBIA.- Gu Aide nagusiok erbesteratu ta ezereztu ta gero, Gipuzkoan pake eta ugaritasuna izango omen zan...
- YARTZA.- Etxe uts eta... Amarrandegi utsean, pakerik ez!
- ZALDIBIA.- Ezta eliz-gizonen artean ere... (*Bijoaz*).
(*Andre Mantoni ta Andia-Torreko bi mirabeak. Azkene-koak eskuan otra eta saskiak ogi ta puska beteak daramazkite*).
- MANTONI.- (*Intzirika*) Ai ene! Nun ote da nere Peru? Au zoritxarra gurea! Ai ene! Nola biziko naiz?
- I. MIRABEA.- Zoritxarra?... Gaon Juduarena! Au bai ez dala biziko! Il bait dute! Perutxo azalduko zaizu bai. Ez da galduko. Hura mendira igesi joana da!
- MANTONI.- Egundano ezer txarrik egiñ ez-da.... Bere elizako lanetatik ez zan ateratzen. Eta orain, zer jan bear det?
- II. MIRABEA.- Bikario jaunak etxera etorri araziko du.
- MANTONI.- Ta preso artzen badute. Au mixeria! Ta gosea!
- II. MIRABEA.- (*Otarrean daramaazkiten ogi ta jatenak erakutsirik*)
Gure etxekeandreak bidalita jatenak Arpausokalera daramazkigu. Zuretzat ere zerbait geldituko al da!
- MANTONI.- Eskerrak bai Dama Katalin eskuzabal ta errukiorrari, bai! Bestela familia beartsu askotan, andre zahar, aur eta gaisoak egun gorriak ikusko genituke.
- I. MIRABEA.- Kalea ere gorriturik dago, baiña isuri duten odolagatik. Nork garbitu?
- II. MIRABEA.- Zauritutakoak askotxo dirala ta gorderik daudela diote. Zeintzuek ote dira? Zure gizona ez beinik bein...
- MANTONI.- Horri badakit ikaratia da gizarajoa ta urruti ibiliko zan.

Alde ortatik lasa nago.

I. MIRABEA.- Jakiña! Burrukan gazteak sartuko ziran eta ez agureak.

MANTONI.- Sarritan, ordea, ustegabeen gerta oi dira gauzak. Eta ez dakigu, oraindik iskanbilla nun eta nola asi zan.

II. MIRABEA.- Dirudinez, Gaonek igesi egin naiean norbait ezpataz jo omen zuan. Eta gero beste guziak gañera bota zitzaizkion era-soan... kali arteraño...

I. MIRABEA.- Beste era batera entzun det nik.. Oxer...

MANTONI.- Ez dezagun geiegi itzein. Isillik egoteko ta kalean ez alperrik ibiltzeko agindua dago. (*Norbaitzuek datozela oarturik*) Begira zazute! Zuen etxeakoandrea Dama Katalin da-ta alabarekin!

II. MIRABEA.- Orratx! Alde egin zagus. Goazen neska! Goazeman.

I. MIRABEA.- Ez gaitzala ikusi. Bada ordu erdi bat etxetik atera giñala bereala itzultzeko asmotan. Gaur ez zeukagunan kalean mutillik ikusterik! (*Abiatuz*). Mendira joanak baitira. Eta ez erromerira...

II. MIRABEA.- Ai kalezale ergela, ez bestena. Berriz errita izango diñagu irekin banentxabillen... (*Bijoaz*).

MANTONI.- Zer ote da gazte izatea. Nik, emen gelditzea obe det. (*Bazter batean gelditzen da malkoak txukatuz. Kale barrendik Andre Katalin eta Maixabel alaba azaltzen dira*).

MANTONI.- Arratsaldeon! Andre Katalin eta damatxo.

KATALIN.- Baita zuri ere, Mantoni.

MAIXABEL.- Zer egiten dezu emen, ain bakarrik?

MANTONI.- (*Intzirika*) Zera... esne pixka baten billa atera naiz kalera... (*Malkoak dariela*).

KATALIN.- Ez negarrik egin emakume!

MAIXABEL.- Lasa zaite, bai Andre Mantoni.

MANTONI.- Goizeko zalaparta izan dala-ta senarra igesi joan zait eta zer egin bear det nik bakarrik?

KATALIN.- Ez zaio ezer txarrik gertatu, emakume! Laister etorriko zaizu gizona.

MAIXABEL.- Ez zera alargun gelditu, behintzat...

MANTONI.- Bai ordea bizi-alargun eta aren irabazirik gabe.

KATALIN.- Denbora gutxirako. Beste etxe askotan zu baño okerrago gelditu dira eta beartsuago. Beraz, zoaz lenbaitlehen etxera. Ez da komeni jendea, eriotzaren ondoren, kale izkiñetan txutxumutxuka ibiltzea. Berriketakin ez degu ezer aurreratzen, gauzak sumintzea baizik.

MANTONI.- Argi-ezkillat ezkerro mokaurik artzeko nago eta esne txantxilla baten billa atera naiz, Dama katalin.

KATALIN.- Itzuli zaite etxera, Andre Mantoni, illundu aurretik. Eta Andia-Torreko sukaldera azaltzen bazera esneaz gañera, beste zerbait gehiago ere izango da zuretzat.

MANTONI.- Jainkoak ordain bezaiera egiten didaten karidadea, Andre Katalin. Hamaika mesede artua naiz lehenago ere beon eskuetatik. Eskerrikasko, berriz ere!

KATALIN.- Eskerrak Zeruko jaunari eman bear dizkiogu guziok. Ark bakarrik txuka ditzazke mundu ontako malkoak.

MANTONI.- (*Begitatik darizkion malkoak zapitxo batekin igurtziaz*). Eta beok emandako malko-zapitxo onek, zure alabak neretzako josi ta bordatu zutena.

MAIXABEL.- Hori gauza utsa da. Tarteka-marteka beartsuentzat egingakoa.

MANTONI.- Gauza aundia, damatxoa, Ama Andre Katalinek ondo erakutsi dizutena. Orregatik Jainkoari erregutuko diot senartzat galai printzipal bat eman dezaizun... Merezi bai dezu!

KATALIN.- Eriotza ta ezkontza, dana, zerutik omen dator. Eta bakoi-tza bere garaiean. Gaur beste egitekorik badegu. Domenjon orain dator Korrejidore jaunarekin eta aien billa goaz.

MANTONI.- Andia-Torreko nagusi jauna egun goizean emen arkitu izan balitz, ez zan ez gerta izango zoritxarreko liskar eta Gaonen

eriotza...

KATALIN.- Jainkoagatik! Jendea paketu dedilla ta etxera biur ditezela txarragorik gerta ez dedin. Zoaz, zoaz! Emendik. Gu ere bereala Torrera itzultzeraz goaz. *(Abiatuz)*.

MANTONI.- Arrazoi aundia du, Dama Katalin. Bai! Pakea eta osasuna hori da beartsuok bear duguna.

KATALIN.- Eta geldirik mingaiña! Berritsukeria... gutxi!

MAIXABEL.- Ezin egongo gera itzik egin gabe: gero arte Mantoni!

MANTONI.- Bijoaz ondotxo! Etxean sartuta an egongo natzaizute isil-isilik...

(Bijoaz bakoitza bere aldetik... Illuntzen asia da ta gero ta argia gutxiago antzertokian. Alkate Ta Aguazilla agertzen dira erriko kale bazterrak arakatzen, eskubi-etzerrera begiratuaz).

ALKATEA.- Justizia naizen aldetik gaizkilleak arkitu ta zigortzea da nere egin bear nagusia. Eta nai ta naiez! Korrejidorea etorri aurretik batzuen-batzuek preso artu bear ditugu.

AGUAZILLA.- Gaizkilleak mendira igesi egin dutela badaki beorrek, orde. Aien atzetik korri egiñaz lertu naiz, nork arrapatu orain?...

ALKATEA.- Guztiak ez dira igesi joan ez! Erri barruan gelditu dira batzuen-batzuek... aundiki etxeetan eta Elizan bertan ere!

AGUAZILLA.- Ondo gordeak bearko dute... zergatik, ezen arratsalde guzian alper miaketan nabilkizu.

ALKATEA.- *(Aserre)* Zurea izango da, bada, errua. Atezai zeundela sortu zan iskanbilla. Nere aginduen kontra sartzen utzi zenielako. *(Ezpata zorrotik atereaz)* emonio!

AGUAZILLA.- *(Beldurrez atzeruntz egiñez)* Alkate jauna! Zer egin zezakean gizon bakar batek jende taldearen aurrean?... Oiua, deadarra! Laguntza eskatu!

ALKATEA.- Koldarra ez bestena! Ez nazazula gehiago ernearazi... *(Ezpata berriz zorroan sarturik)* Ez dezagun astirik gal... Goazen Arpauso kaleruntz! Azari kabiak an bait daude! *(Abiatuz)*.

AGUAZILLA.- Sagardotegiak esan naiko du! Goazen bada.

(Bijoaz alde batetik eta unetxo baten ondoren beste aldamenetik Bikario jauna Katalin eta Alaba sartzen diralarik)

BIKARIOA.- *(Alde guzietara begiratzuz)*. Armadun gizonak kalean dabiltzala sumatu det. Ez nuke oriekin topo egin nai!

KATALIN.- Bai jauna, ala da. Alkate ta aguazillak kalez-kale etxeak ikertzen dabilta, Oxe ta Martin Yurramendiren billa. Nor nai preso artu nai dute naiz kulparik gabekoak ere!

BIKARIOA.- Ondo gordetzeko gatzigatu diet. Bestela alde egin dezatela. Hori esatetik nator.

KATALIN.- Ezkutatzen badira, ordea, beren burua salatzen dute.

MAIXABEL.- Orratx! Ezer txarrik egin ez ta...

BIKARIOA.- Nik ederki dakit hori! Baiñan olakoetan, gerta oi da iltzailleak ezin atzi dituenean, bederen, su-emantzaille ta estalkiñai atzaparra gañera botako diela.

KATALIN.- Orduan, ezkutatzea obe dute. Eta gu ere ez gaude ondo kalean, illuntzen ari du-eta... Limosna ta eskupeko batzuek ematetik gatoz eta esaera zaharrak dionez....

MAIXABEL.- "Ai Mariak... etxera, apaldu ta oiera"...

BIKARIOA.- Ondo ikasia ez da ahaztutzen. Ez da komeni alkarrekin izketan ikusi gaitzaten. Ezpaña soñua nabaitzen det... *(Adi-adi oarturik)*

MAIXABEL.- Jende sail aundia datorrela dirudi..

KATALIN.- Ez dezagun luza egonaldia! Goazen etxera isil-isillik.

MAIXABEL.- Bai amatxo. *(Abiatuz)*.

BIKARIOA.- Onoko Aita apaiz au ere badoa ere. Iskillu soñua dirudi. Ez da hori nere bidea! Adio! Bada! *(Bijoaz)*.

Jendearen otsa ta danborraren orrua bertaratzen ari dira. Eta illunpetatik taldea azaltzen da: lenengo Aguazil batzuek eskuan lastargi ala zuziak pizturik daramazkitela. Ondoren Korrejidore, Domenjon eta Alkatea. Gerta leku erdira iritxirik talde guzia geldituko da Alkatea agintari

kideai biziki mintzatuz gertakaria onela adieraziko die).

ALKATEA.- *(Lekua erakutsiaz).* Emen gertatu zan Goan doakabearen Eiotza Korrejidore jauna!

KORREJIDOREA.- Txarkeri gaitza! Ez ahaztu Gaon Errege jaunaren ordezkaria zala. Ari egindako irain, laido ta ondamera gure Enrique IVari egin zaiola!

DOMENJON.- Okerrena da, nere ustez, gizona ta erregeren ordezkaria arailtzez gañera, gure aginduak oinperatu dituztela, guziok errespetat bear ditun legeak zapal-zapal egiñik gelditu dirala... odola gure buru gañera jaurtiaz.

KORREJIDOREA.- Bai! Ez bear orrek Tolosako erriari ondorengo beltzak ekarriko dizkio. Enrique IVa gure Erregearen aserrea guziok nozitu bearko dezute.

ALKATEA.- Gauzak ortaraño iritxi ez zitezen alegindu nintzala danok dakite. Ez al da ala Domenjon jauna?

DOMENJON.- Bai, noski! Eta zure izenean Errege jaunari egin berri diodan bixitak ere, ez zuan beste asmorik.

KORREJIDOREA.- Ez da aski jauna! Orain gaizkille ta laguntzailleak baitu ta preso artu bear dira Justiziaren eskuetara eramanez.

ALKATEA.- Ortan nabil, Korrejidore jauna, ta laister arrapatuak izango diralakoa nago. Beraz, Beorren baimenez eta nere aguazilla-kin batera, lan ortan jarraitzera noa.

KORREJIDOREA.- Bazoazke, alkate jauna. Domenjon eta biok, bitartean Erriko itzulia egingo degu.

ALKATEA.- Ez badu bada, ezer gehiago egintzen, laister arte!
(Burua makurtu ta eskuaz agurturik badoa bi aguazillek laguntzen diotela. Beste bi, lastargiak eskuan dauzkatena, bertan gelditzen dira Korrejidore ta Domenjon jaunekin)

DOMENJON.- Errege jaunari, errespetoz, esan nion, ta Beorri gauza bera aitortuko, jende xeha oso asaldatuta zenbillela, aspaldidanik Gaonen etorrera zala-ta. Gosearen sosegu-eza, Korrejidore jauna. Eta erantsi nai det, nere iritziz, Diru eskabide, "pedido"

hori ez dala ez egoki ta ez legezko.

KORREJIDOREA.- Errege jaunaren ordezkaria erailtzea gauza zuzen eta bidezkoa izan dala adierazi nai al didazu ala?...

DOMENJON.- Nolatan esan nezake bidegabekeria hori? Ez da inondik ere! Korrejidore jauna! Ezbearrik gerta ez zedin, zer nai iskamil eragoztearren, eta nekearen-nekez, Ondarribiruntz abiatu nintzaizun... Errege jaunarengana... Eta baita adierazi ere nere barruko kezka ta beldurra. D. Enrique IVren galdera guziai leialtasun osoz erantzun nien, nere iritzia azalduaz.

KORREJIDOREA.- Iritzia ez ezik Errege jaunari menpetasun eta morrontza zor zaio. Ta aukeratu zaizkiola eta emen gertaturikoa jakindakoan, bat batean suminduko da, ta ez dute beorren itzok ezer balio izango.

DOMENJON.- Baditeke. Eta alde ontatik det ez emen gelditua. Errian dedan itzalak eragotziko zuan nere txango ta itzekin, an Erregearen aurrean lortu ez nuana.

KORREJIDOREA.- Orain, naiz baterako eta naiz besterako berandu da. Ez dago beste egitekorik, gaizkilleok, goiko ta beheko, diranak dirala, zigortzea baizik. Urkamendira ordua dator. Onak du itza!

DOMENJON.- Ez noski argitasuna egin arte ta erruak norenak diran ondo berezi gabe.

KORREJIDOREA.- Auzitegiak erabakiko du. Au ez da orretarako lekua. (Jende taldearen otsa nabaitzen da) Jendea dator, ta gaua gañean degun ezkerreko babesera biltzera onena izango degu.

DOMENJON.- Andiako Torrea beorren etxea da, eta onratuko nau ostatutzat artzen badu. An, adiskidetik adiskidera, gure jardunaldia luzatzeko toki erosoagoa eskeiñiko digute.

(Abitzen dira, aguazil biek lastargiz inguratzen dituztela. Mutur batetik ezkuta ala gerta-lekua illunpean gelditzen da. Urrutira leloaren oiartzuna.

Korrejidorea Tati, Tati!

Gaon judua Kali, Kali

Beste aldetik jende zalaparta urreratzen da pi argitasuna piskanaka egiñez taldea egertzen da. Onen erdian Oxe eta Yurramendi, aurretik Alkatea dutela. Aguazil biek eskuan lastargiak daramazkite ta beste eskuak Oxe ta Yurramendiri besotik eusten die. Alako batean, gerta-leku erdira eldutakoan azken auek besoak azkatu, lastargiak lurrera bota ta itzaltzen dituzte. Aguazillen axolakaberi ta illunpearen laguntzaz igesi egiten dute zalaparta artean. Oiu ta deadarrak, entzun bitez:

Eutsi, Jo! Gogor kendu!

Azkenik alde egiten dute atzetik Alkate ta aguazillak jarrai doazkiela. Gerta lekua illunpe osoan gelditzen da. Urrutira betiko leloa:

Korrejidorea Tati, tati!

Gaon judua, Kali, Kali!

(Astiro-astiro oiala erortzen da.)

BIGARREN EKITALDIAREN AMAIRA.

III EKITALDIA

Lehenengo Gerta - Lekua

(Andia Torreko sala bat. Bigarren ekitaldiaren asiera azaldutako gerta Lekua bera izan ditek, baiñan orrituagoa: Erdian mai aundi bat eta inguruan alki eta eser lekuak Batzarrabiltzeko egokiak. Eriotzaren biharamona da. Oiala altxatukoan Ines bazter batean eserita kantari ari da, "laud ereskiñaz" lagunduta. Bat batean andre Katalin

eta Maixabel sartzen dira).

KATALIN.- Arren Inestxo! Isildu zaite! Atzo gertatutako ezbear negar-garrien ondoren, ez dago giro musikarako.

INES.- *(Xalo)*. Zergatik ez amatxo?

KATALIN.- Korrejidore jauna etxean deu-ta zer esan bear duan ere!

INES.- Eresia jo ta kantatzen ari nintzan. Ez det uste iñori kalterik egin diodanik.

KATALIN.- Utzi zazu jostallu hori pakean eta ikas lezioa "De las Claras y Virtuosas Mujeres" liburua irakurriaz.

INES.- Maisua ez zait etorriko-ta zertarako?

KATALIN.- Ez dezu aren bearrik. Aizpak lagun egingo dizu.

INES.- Beorrek esan bezela egingo det, ama! Aditzen Maixabel?

MAIXABEL.- Nik ez det ba zure maistra izateko gogo aundirik...

KATALIN.- Gogoz ala gogorik gabe gaurkoz egizute esandakoa. Zoazte, ixilik gora, zuen gelara. Emen erriko zaldun, errejidore ta agintariok Batzarrean bildu bear dute Korrejidore jauna buru dutela.

INES.- *(Aizpari)* Goazen aizpa!... *(Berekiko)*. Ganbaran jostatzen ibiliko gaitun.*(Abitzen asiaz)*.

MAIXABEL.- *(Jaramonik aizpari egiteke, amari)*. Egia al da Oxe eta lagunak iltzera kondenatuko dituztela? Urkamendia zutik jarri dutela?

KATALIN.- Ez zaidazu ezer galdegin, gauza ez da txantxetakoa-ta... Zoazte ta erreza zazute txarrena gerta ez dedin.

MAIXABEL.- Goazen bada, Inestxo, ezin badegu ezer jakin...

INES.- Aita jaunari erregutuko diogu, Agintari nagusia bera bait da... zera, preso artutakoak laga itzabela...

KATALIN.- *(Ben)* Olakorik ez! Inolaz ez! Zuek egin ebar dezutena da isillik egon eta otoitz egitea. Zoazte, bera goruntz; lanean jardun eta lezioak ikasteko garaia dezute.

INES.- *(Aizpari)* Errezatuko, bai eta gero... ganbarako leiotik plazara begira egon ere bai, ea zer gertatzen dan. *(Bijoaz)*.

KATALIN.- Gazte izatea pozgarri da, naigabez beterik gaudenean batik bat. (*Alabak doazela begiratzen ari dala, beste ate batetik Korrejidorea ta Domenjon agertzen dira. Agurtuaz*). Egun on! Korrejidore jauna! Goiz jeiki da? Ez al du bada ondo lo egin Andia Torreko aterpean?

KORREJIDOREA.- (*A.Katalini eskuan musu emanaz*) Egun on Andre! Ez det nai bezain lasa lo egin, baiñan tira! Gorputzak atsedean artu du ta naikoa da.

KATALIN.- Oitura ezak egiten du hori; oeatza berria ta estalki gutxi-txi agian?

KORREJIDOREA.- Oeak ez zuan aitzekirik, ta are gutxiago Holandako maindire zuri leunak eta oe-azal bigun eta berogarriak. Bear bada, gau-txori ta kanpoko beste piztien orruak esnaraizi naute. Isillan, ere, begiak itxiagatik olakotan, norberaren kezka ez ditugu loa baretzen uzten.

KATALIN.- Bartarratseko astindu ta zirradak dizu errua. Siestako lo kuluixkak on egingo dio, oradin zurrian...

DOMENJON.- Bai, baiñan, orain gosari on batekin gure barruari indar eman dezaiozun.

KATALIN.- Sukaldean gertutzen ari dira eta maniatu ta prets dagon ikustera noakizute.

KORREJIDOREA.- Gipuzkoako etxeoandreak eder eta maratsak dirala ondo dakigu Gaztel Errian. Ain zuzen, orain urte gutxi (1457) gure Errege Enrique IVak, Getariko ostatu artu zualarik, ango Torreko Damari, eskerronez mesede eta esku-erakutsi opa-roak egin zizkion.

KATALIN.- Eskerrik asko! Korrejidore jauna oso zaldun ao-zuri ta limurzale degu. Nik ez det orrenbeste merezi. Eskuzabal eta biotzbera izan nai badu, premian daudenentzako izatea eskatuko nioke.

KORREJIDOREA.- Gaitz izango litzake zure eskeari uzkur egitea. Eta Domenjonek benetan zoriontsu bear du emaztetzat onelako

- andre burutsu ta zentzuduna aldamenean dualarik.
- DOMENJON.- Bai, jauna, bai, pozik nagola ezin ukatu. Paregabea det nere andrea, eta gure etxeko erosotasuna beorrek ere txasta dezan, lendabizi gosari mamitsu bat ar dezagun.
- KATALIN.- Beon losintxak lotsarazten naute eta banoa sukaldean diñako jakirik dagon ikustera. (*Abiatuz*). Laister otsegingo diotet maiera deituaz. (*Bijoa*).
- KORREJIDOREA.- Bitartean, emen itxoin dezakegu, alkarrekin, adis-kide antzean mintzatuaz.
- DOMENJON.- Ondo derizkiot, eta obeto oraindik, Korrejidore jauna, patxadan eserita jarriko bagiña...
(*Aurrez- aurre eser bitez*).
- KORREJIDOREA.- Berdin zait, ala nai badu.
- DOMENJON.- Beste batzarkideak etorri aurretik, biok buruz-buru itzegitea ez da alperrikakoa izango.
- KORREJIDOREA.- Zeintzuek diran etortzekoak jakin nai nuke.
- DOMENJON.- Bada, Alkate jaun, eskribau ta errejidoreaz gañera, aide-nagusiai ere dei egin zaie. Bada ezbada, ere....
- KORREJIDOREA.- Neurri zuzena da hori. Eta... nor geiago?
- DOMENJON.- Ez det betarik izan beste askori otsegiteko, baiña Santa Maria Elizako Bikario jauna....
- KORREJIDOREA.- Eliz-gizonak ez dutela Gipuzkoako Batzarretan sarrerik izaten orok dakite-jakin. Ez da ala?
- DOMENJON.- Ez Eliz-gizon eta ez lege-gizonak, letraduok, alegia! Batzar au, ordea berezia degu ta Bikario jaunaren iritzia entzuteak ez liguke kalterik egingo, nere ustez.
- KORREJIDOREA.- Bat da, iritziak entzutea, eta bestea erabakiak artzea. Eta Errege jaunari egin zaion irain latza lehenbaitlehen zigortu dezagun, zuzen eta gogor, erabakiak artu bear ditugu. Otz eta motz!
- DOMENJON.- Zuzen bai, gañerakoak kontuz! Erru eta obenaren pisua arintzen duten zernola, ta zearrak kontuan arturik... Gaon doaka-

be orrek ez zuan zillegi Tolosara zerga eske ta diru billa etortzerik. Legez galerazita zeukan.

KORREJIDOREA.- Nola diteke hori?... Errege jaunaren ordezkaria izanik?

DOMENJON.- Errege ordezkoa ala bere borondatez jabetu diran beste zenbaitena...

KORREJIDOREA.- Ez ahaztu Domenjon jauna, Enrique IVak izendaturiko Korrejidorearekin itzegiten ari zerala.

DOMENJON.- Ez inola ere! Gogoan det. Eta Beorrena dan gure etxean dagon ezkerok, naiko nuke, Korrejidore jaunari baño Garcia Franco adiskideari itzezin; gizonetik gizonera mintza...

(A. Katalin atean agertuaz)

KATALIN.- Jaunak: Gosaria maiean dute eta arren, ea oztu baño lehen datozen. Zerbait bero artzeak on egingo die.... baraurik burua ere aul eta argal baitago...

KORREJIDOREA.- (*Jeikiaz eta gero orobat Domenjon*) Torrecko damak eskatzen digunez, jarduna etengo degu.

DOMENJON.- Bai, bai, gero ere beta izango degu.... ta gaia gañezka. (*Bijoaz barrura irurok. Unetxo baten ondoren beste ate batetik II Mirabeak sartzen da atzetik datorren Bikario jaunari bidea erakutsiaz bezala*).

II. MIRABEA.- Sartu bedi Bikario jauna. Nagusia ta Korrejidore jaunak gosaltzera joanak dira. Etxekoandreari dei egingo diot.

BIKARIOA.- Bere lanetan ariko da ta utzi zaiozu. Ikusia da etxetara ez ditekela goizegi etorri. Nere errezoak egiñaz itxoingo det.

II.MIRABEA.- Erreza bai, D. Permin, premian gaude-ta. Atzoko iska-mil eta eriotzaren ondoren ez dakigu zer gerta bear duan. Batzuek preso artu ote dituzten, besteak berriz, igesi joan ote diran... Ba-al dakigu? Zer berri dabil kalean, Bikario jauna?

BIKARIOA.- Onoko apaiz hau Elizatik dator eta ez du deus entzun, onuntz etortzeko gaztigua baizik, zuen Nagusiak bidalia... Ez dakit Andiaiko Torrean gaua pakean igaro dezuten ala ez.

II.MIRABEA.- Ez degu lo aundirik egin beintzat. Nagusi ta Korrejidorea aserre zebiltzela antzeman diogu. Etxekoandre ta alabak gelan negarrez... eta gu neskameok goizarte leiotik kale-ra begira.

BIKARIOA.- Erri guziarentzat ere amets gaiztoko gaua bart arratsekoa. Ez da eguna nai orduko ergitu, ta argizkilla ez det jotzen entzun. (*Aitaren egiñez breviariora irakurtzen asten da*). "Jam lucis orto siderius". Otoitz egin dezaigun Jaunari.

II. MIRABEA.- Konjurua bota beza bai, bikario jauna. Berori emen dagola etxekoandrerri esatera noa. (*Abiatuz*). Eseri bedi bitartean! (*Bijoa*).

BIKARIOA.- Otoitzak belauniko ala zutik obeto egiten dira. Zoaz nere kezkarik gabe.

(*Batetik bestera ibilliaz breviariora irakurtzen darrai, noizk beinka "Aitaren" egin ta burua makurturik. Etxekoandre Dama Katalin sarturik*).

KATALIN.- Egun on Bikario jauna! Ez nenkien gure etxera etorria zanik. Barkatu!

BIKARIOA.- Ez da ezeri, Jainkoak dizula goiz on, Andre Katalin, Mirabeak atea zabaldu dit eta doi-doi sartzea egin det. Eta breviariora esaten ari nintzaizun.

KATALIN.- Korrejidore jauna ta Domenjon gosaltzen ari dira. Beorrek ere zerbait artu nai badu garai ona da.

BIKARIOA.- Eskerrik asko, Andre, Meza esan ala nere betiko aomena artua det. Eta eguardi arte ez det beste ezer artzeko oiturarik.

KATALIN.- Nai duan bezela, D. Permin. Baiñan emen dagon ezkerro galdera batzuek egin nai nizkioke... (*Larri*). Estuasun aundi bat daukat barruan...

BIKARIOA.- Erri guztia alatsu dago. Estu ta larri, ta ni orobat. Ez da gutxirako.

KATALIN.- Izan ere, a zer nolako eguna atzokoa! Zer derizkio?

BIKARIOA.- Ba... Jainkoari eskerrik bizienak eman bearko dizkiogu-

- la, gaurko ez bada okerragoa gertatzen.
- KATALIN.- Jainkoak eta Ama Doloretakoak lagun gaitzatela!
- BIKARIOA.- Batzuen batzuek igesi egiten lagun dituzte-ta. Zerbait da.
- KATALIN.- Noruntz jo ote dute doakabeak! Erruki ditut!
- BIKARIOA.- Urruti ez, nere ustez. Uzturreko mendi aldera agian...
- KATALIN.- Ez al dira eroriko Justiziaren atzaparretan. Galduak dira bestenaz. Arrapatzen badituzte, Ene!
- BIKARIOA.- Bai, Legea gogorra da iltzaille... ta estalkiñentzat. Auek ere, auzia zertan gelditzen dan ikusi arte obe dute urrun egon.
- KATALIN.- Justizia osoa: Alkate, Korrejidore, Aide Nagusi, nere senar eta aguazillak oraintxe biltzekoak dira beorrek dakinez. Erriko etxe dan leku ontan. Eta beldur naiz, naigabeturik nago... *(Barruko ateruntz so-egiñez).*
- BIKARIOA.- Lasa zaite, Andre. Niri erri-gizon ez izan arren, Justizia bildu aurretik, epai-sententzia biguntzerik ba ote dagon alegiña egitea dagokit.
- KATALIN.- Jainko maitea! Olako zerbait lortuko balu.
- BIKARIOA.- Ez da nere egitekoa agintari auzietan sartzea, baiñan apaizok burruntzalia, nai ta ez, eltze guzietan sartu bear izaten degu, geiegi irakin ez dezaten. Kristauk ez al gaituzu munduko gatza? *(Ateruntz begiratuaz, isilago).* Gaonen auzia "gal-gal" dago eta ur otz pixka bat bota bear zaio epeltzeko.
- KATALIN.- Beorri mintzatzen entzun ezkerro, arnasa lasago artzen asi naizela esango nuke. Ai Ene! Bai ote? Barka bezait baiñan barrura noa, Etxeko jaunak nola gosaltzen ari diran ikustera. *(Abituaz).* Korrejidore jauna aurpegi garratzez jekia da goizean... Eta Domenjon nereaa...?
- BIKARIOA.- Bada emaezu ezti pixka bat talo-esneaz. Beazunaren kontrako erremedioa dezu.
- KATALIN.- Ala balitz... ontzi osoa ere emango nieke. *(Bijoa).*
- BIKARIOA.- Gero arte! Ta animo! Ni emen gelditzen naiz... errezoak

- esaten pakean uzten badidate.
(Berriz breviario irakurtzen darrai noiz beinka Aitaren egiñez. Unetxo baten ondoren Alkatea agertzen da)
- ALKATEA.- *(Sarturik)* Beorri dagonerako emen!
- BIKARIOA.- *(Liburutik begiak altxata, berekiko)* Bear genduen! *(Alkateari)*. Egun on Alkate jauna.
- ALKATEA.- Apaizak beti goiztar...
- BIKARIOA.- Alicuando... Esaera zaharrak dionez: Goiztarrai Jainkoak laguntzen omen...
- ALKATEA.- Baita gau-txori gaizkilleai ere, iñoiz Justiziaren eskuetatik iges egiten.
- BIKARIOA.- Ez dakit zer esan nai duan Alkate jaunak.
- ALKATEA.- Onuzkero adieraziko zioten, bai. *(Bikarioari zorrotz begiratuaz)*. Gaon gizarajoaren iltzailleak, bart arratsean Justiziari eskuetatik anka egin zutela. Baiñan eroriko dira. Eta orobat errian gordeta dauden beste su-emanztaille ta estalkiñak...
- BIKARIOA.- Erri guzia estalkintzat artzen badezu, Bikarioa ere tartetan izango da noski... Eta emen naukazu Tolosaren alde jokatzeko.
- ALKATEA.- Apaiz jaun batek hori aitortzea arrigarri zait. Ez al da bada izan igingarri, ta lotsa aundi bat Gaon erailtzea...?...
- BIKARIOA.- Bai, noski, gertakizun mingarria. Gizon guziai, naiz judua izan, bizia errespetatu bear zaie. Eta il da gero "Requiescat in pace" esatea kristauok beartuta gaude. Eta erresponsoa ondoren, alkate jauna, arren entzun bitza beste arrazoiak. Eser gaitetzen, lasaiago itzegiteko. *(Eser bitez)*.
- ALKATEA.- Zutik ala eserita... berdin da. Gizon bat iltzen dutenean, eta areago Erregearen ordezkaria zanean, Jainkoaren legea zapaltzen dala, uste det.
- BIKARIOA.- Egia mardula! Alkate jauna, naiz Testamendu zaharrean eta naiz berrian. Ebanjelioak irakurtzea besterik ez dago. Ez da zillegi iñor iltzea gure lagun urkoari bizia kentzea. Bostgarren

- mandamenduak agintzen digunez: Ez zau iñor il!
- ALKATEA.- Sermoi gutxi, emen Bikario Jauna, ez gaude Elizan-eta...
- BIKARIOA.- Elizan ez gaudelako eta bai Kontseju-etxean, esan bear diot, ordea, noiz, nola eta nun, beinik bein Jainkoaren legea baztertu diteken: Norberaren burua defenditzen eta Erriaren alde gogor jokatu bearra gerta dedinean...
- ALKATEA.- Hori Erriko agintarien egitekoa da. Guri dagokigu eta ez eliz-gizonai. (*Berotuaz*).
- BIKARIOA.- (*Jeiki ta ibilliaz*). Ez det ukatuko. Baiñan... zeñek neurtu dezake agintari ta menpekoen erantzunkizuna?.. Gure Elizama txit Santak. Aristotelesek eta gure Santo Tomas aundiak garbi erakutsi digute: "Potestas Populi" Almena errian dagola. Pakea Justiziaren alaba da eta ezbearra, liskarra ta eriotza sortzen diranean, aztertu bearra dago ea goikoak, ez ote diran bekoak aña errudun... katigu.
- ALKATEA.- (*Gogait eginda*). Ba, ba, ba Erretolikak... Salamankan ikasitako liburuetan.
- BIKARIOA.- Salamanka, Paris, Bolonian eta nun nai.
- ALKATEA.- Nik ez det beorrek aña eskola baiñan auxe da dakidana: Gaon Tolosan garbitu dutela, iltzailleak igesi joanaz. Eta Erregearen Valladolideko Kantzillerian nik aurpegi ez ezen ez nuke urkamendian nere lepoa arriskatu nai.
- BIKARIOA.- Bildur santua, birtute aundia da. Orregatik zuritu aurreti ez da iñor kondenatu bear.
- ALKATEA.- Legeak eskatzen duanez, auzia bereala ikusi bearra dago. Eta emen biltzekoak gera Korrejidore jaunarekin, Domenjon, Errejidore, eskribau, aguazil, aide nagusi testigutzat. Ni nazu Justizia buru errian eta orain bertan asiko degu gure lana. (*Nardaz*). Beorrek ez dezake parterik artu...
- BIKARIOA.- Hori esanez ni emendik bidali nai al nazu?... Joango naiz, bada, ez izan ardurarik. (*Abiatuaz*).
- ALKATEA.- Nik esan bearrik ez du, jakiteko, apaizak ez dutela

Kontseju etxean sarrerarik. Eta Santa Maria Elizako zaintzalle bakarra: "Unica merelaga" Tolosako erria dala...

BIKARIOA.- (*Burua azkuretuaz*). Ez daukat ahazturik. Ni etorria nazu, ordea Batzarra aurretik nere boza entzun araztera gerora... tolosarren batzuek urkamendin iltzen laguntzera joan bearrik izan ez dezadan. Tolosar guzien, aundi ta txiki, morroi naiz. Aita Santu Pio Bigarrena ta Iruñeko Apezpikuaren urrengo Erria da nere nagusi; ta Jaungoikoa jaun eta jabe. Nere iritzia entzun dezu ta... banoa. (*Abiatuz*)

ALKATEA.- Amen! Orain Auzitegia asi diteke bere lana egiten. (*Apaizaren ondotik kaleko atetik irtenaz kanpora otsegiten du*) Deia jo zatela danbor eta txistuak! Aurrera! Eskribau, Errejidore, Aide Nagusi ta aguazillak" (*Danbor eta txistu otsa entzun bedi eta bereala Eskribaua ta bi aguazillak sar bitez, gero aide nagusiak eta azkenik Korrejidore Domenjon Alkatearekin. Korrejidorea mai-buru dutelarik eskubi-ezker eser bitez Domenjon, Alkatea, ta Aide Nagusiak. Ertz batean Eskribaua ta zutik bi aguazillak*). (*Jeikiatz*). Jaunak! Justiziaren batzarrari asiera ematera goaz, Korrejidore jaunaren baimenaz. (*Eseriaz*).

KORREJIDOREA.- (*Zutituaz*). Tolosako agintari ta aide nagusiak, gure Jaun Errege IV Enriqueren izenean baimena ematen dizuet Justizia egin dezazuten. Eriotz lazgarria gertatu da erri ontan guziok dakizutenez. Gizon leial bat Erregearen mandataria zana itsuski erailla izana da Tolosako kalean. Isuritako odolak zigor gogorra eskatzen du, Legearen arabera. Eskribau jaunak irakur ditzala, beraz Fuero liburuaren aginduak. (*Eser bedi*).

ESKRIBAU.- (*Zutik irakurriaz. Ogeita amargarren Titulua*).

"Por ser tan abominable el vicio de la alevosia, con que en desprecio de la Fe pública se cometen muchos maleficios, cuando por la seguridad que debieran tener los hombres en virtud de la promesa de sus enemigos, o por pacto otorgado por ellos y con autoridad de la Justicia, viven descuida-

dos de que pueda sucederles alguna cosa mala; y porque en casos semejantes aya pena condigna a tan feo delito para el castigo de los malechores con público exemplo. (*Ozen ta sendo*) ORDENAMOS y MANDAMOS: que cualquiera que a otro feriere o prendiere o lisiare, o por él corriere con arma para lo ferir, o matar, sobre tregoa, puesta, otorgada por las partes, o puestas, por el alcalde, o mandada otorgar por las "parteas, aunque ellas o cualquiera de ellas no la otorguen: ¡QUE MUERA POR ELLO! (*Bi aldiz irakur beza*).

(*Ixilunea*).

KORREJIDOREA.- Eskribau jaunak irakurketa eten dezake batzarkideok ala nai izan ezker.

DOMENJON.- (*Jeikiaz*). Nik ere ala uste det. Guziok ondo jabeturik gaude gai ontan FUEROAK erabakita daukatena. Luze litzake jarraitzea. Emen, ordea garbi ikusten ez dana iltzailleak nortzuek izan diran eta nola gertatu zan eriotza. Ontan dago auzia. Ilunpe artan, erriko jendea, baserritar eta kaletarrak naspillaturik, zala-partan, bata eta besteak zer ari ziran ez zekitela, gaizkillea nor izan zan, erabakitzea gauza gaitza da guretzat. Ez du iñork bere burua, (gaizkilletzat) iltzailletazt aitortu. Au da lenengo zuritu bear dugun gauza. Orobat, esan bearra dago, Gaon Juduak Gipuzkoako Hermandadearen aginduz. Probintzi ontara zerga-eskabidea egitera etortzea galerazia zeukala. Epai setentzia eman aurretik xehetasunok gogoan artzekoak dira.

Azkenik, lekuko testiguiak dei egin bear zaie Justiziak ekatzen duan arabera. Orregatik, batzar au gerorako uztea obe dala derizkiot eta bakoitzak bere iritzia adierazi zala. (*Eser bedi*).

KORREJIDOREA.- Itzegin bezate txandaka batzarkideok, zaharrentatik asi-ta. (*Zaldibia aide nagusiari begiratuaz*).

ZALDIBIA.- (*Zalantzan jeikiaz*). Zaharra nazute, bai, eta zigorra zer dan ezagutu det. Nere larrutik ordaindu, gaiñera, zenbaiten bide-

gabekeriaz... Alare, mendekaz, ez diot iñori kalterik egin nai. Eta are gutxiago gaitzetsiko... Ez da nere egitekoa. Domenjon Andia Torreko nagusiaren asmoa ontzat artzen det: bat nator, Auzia ondo zuritu dedilla. (*Eser bedi. Korrejidoreak beatzaz Yartza siñalaturik*).

YARTZA.- Iritzi berdiñekoa nazute ni ere. Ez da nola nai gizonik zigortu ebar, naiz jende xehetakoa izan. Lenago auek gure bizkar par egin bazuten ere. Bear bada, errudunago dira beste batzuek...

KORREJIDOREA.- (*Aide nagusiai*). Beok kalean ziran eta ez al zuten ikusi iskamilla nola sortui ta bururatu zan? Ez al dakite Gaonen iltzaillea nor izan zan?

YARTZA.- Iskamilla sortu zanean alde egiñak giñan leku artatik.

ZALDIBIA.- Ala izan ez baledi ere ez gaituzute salataritzako jaioak. (*Arro*). Aide nagusiak egoskorrak izan bagiñan ez gera aguazillak.

KORREJIDOREA.- Ontar ezkerro, Justiziaren buru dan Alkate jauna degu itzaren jabe.

ALKATEA.- (*Zutik*). Ez itzaren jabe... eta are gutxiago, ikusten danez, Erriaren jabe. Guziok beren buruak garbitu nai dituzte... Bikario jaunarengatik asita, txalma nere bizkar gañera botiaz, beraz, Justiziaren zigor-makilla bestek ar dezala.

KORREJIDOREA.- Ez, alkate jauna, esku onetan dago ta azken arte eutsi bear diozu, ondo dantzatuaz. Justizia ez diteke utzi errekan, ez kale bazterrean erorita. Gaizkilleak gogor eta zuzen zigorti bear ditugu: ¡Que mueran por ello! Legeak agintzen digun beze-la. Urkamendia gertu euki bear da beti, naiz lanik egin arazi ez auzia zuritu ta garbi ipiñi arte. Buka zagun gaurkoz batzarra ta biar jarraituko degu testigutza berriak entzun da gero.

ALKATEA.- Emen degu bat zerbait ikusteko obligazioa zuana... (*Aguazillari ots egiñaz*). Zuk zer ikusi zenduan.

AGUAZILLA.- (*Izu ikaraz*). Badaki alkate jauna, ez nuan ezer ikusi gosari txikia egitera joan nitzalako. Nik... zera... urrutira leloa

besterik ez nuen entzun:

Gonzalo Moro Tati, Tati !

Gaon Judua Kali, Kali!

ALKATEA.- (*Aserre*). Zure egon lekutik anka egin zenduelako bi illa-beteko kartzela; ogi utsa jan eta ura edanaz! Eta besterik ez bada-go, jaunak, Batzar au amaitua degu.

(*Guziok beren lekuetatik altxatzen dira: Lenego Aide nagusiak eta gero Alkate, Eskribau ta Aguazillak kanpora ateratzen dira. Domenjon eta Korrejidorea bakarrik gelditurik. Kanpoan danbor eta txistu otsa entzun bitez asieran bezelaxe*).

DOMENJON.- Obe degu Batzarra eten degula, Korrejidore jauna: Justizia ez bait diteke laisterregi ta itoka bururatu ahal izan.

KORREJIDOREA.- Geiegi luzatzea ere ez bada onuragarri. Legea da Lege; eta Erregea, Errege. Odola isuri izan danean beste odolez garbitu bear da... Agintaritza errespetatua izan dedin.

DOMENJON.- Beorri letradu jantzia da ta Lopez de Ayalak ixkiriatu zuana, badaki noski:

"Clemencia es en los Reyes muy loada bondat".

KORREJIDOREA.- Baiki Domenjon jauna, baiñan adiskide zaitudanez, esan bear dizut Gure erregek inguruan aolkari ankerrak dituala. Eta egia garratza, zoritxarrez...

DOMENJON.- Bakarrik gauden ezkerro ta mintza nai didazunez, eserita erosoago ariko gaituzu jardunean...

KORREJIDOREA.- (*Eseriaz*). Ain zuzen, ere Valladolidetik datozen berriak adierazi nai dizkiot. Zerbait entzun al du? (*Erabat bigunduaz.*)

DOMENJON.- Kortean susmu txarrak dabiltzala gauza jakiña da. Ondarribin ere atzo entzun nituen. Enrique IVa gure errege doakabea, Vllena, Beltran, Lopez de Haro konde eta beste jauntxo-en mende dagoela eta Guyenako Printzearekin Juana, sasi alaba, jaio berria ezkondu nai lutekeela. Guri ezkon saria kenduaz. Ez

da ala?...

KORREJIDOREA.- Orretara joan da nunbait Urtubira Luis XIgana, ezkontza-kontratua egitera....

DOMENJON.- Obe litzake guretzat, Laburdin leneago bezela Enrique Plantajenet Inglaterrakoa agintzen balego. Bestela Prantzesak zapalduko gaituzte. Naiko gose ta samindurik dago jende xeha, bai Gipuzkoan eta baita Bizkaian ere.

KORREJIDOREA.- Eta orobat Gaztelan ere. Beorri uste osoko adiskidetzat daukat, eta aitortu bear diot Erreinu guzian, aitorseme danak, naiz iritar eta orobat nekazaria asper-asper egiten asiak dirala. Eta (*Isillago*) gure D. Enriqueren erregetza ez dala pakean bukatuko.

DOMENJON.- Gaztela Errian ala baldin badaude artalde, bei ta zamarriz aberats diran lurretan; ardo, ogi ta olio naro dituen zelaietan. Pentsa, nola arkituko diran arkaitz ta mendi arteko bizilagun beartsuok. Gure maizterrak mandioak utsik dauzkate, eta itsasorengaitik ez balitz goserik ilko giñateke...

KORREJIDOREA.- Andia Torre ontan ez det, bada urritasunik arkitu. Etxekoandre Dama Katalinek oparo ase gaitu.

DOMENJON.- Gure etxekoandreak, arrotza, alik eta ondoen, artzen daki. Eta are geiago beorri añako jaun altsu bat. Nik ez det gure ondasunez esparik... Jainkoak eta Erregek bear baño aberastasun geiago ornitu naute. Semeak Bristolen ditut, itsasoratuak, burnikarraioan. Gipuzkoa erreie xehe ta langilea da, urri ta beartsu dagoena.

KORREJIDOREA.- Batzar nagusiak dira Erriaren alde leia bear lutekeanak.

DOMENJON.- Ortan diardugu, jauna. Erregek neretzat eman zidan sakel-alkatetza, pozik Probintziaren esku utzi det, bere onerako, Gipuzkoako Anaiarte (Hernandadea) sendo dedin. Goseak lisakarra bait dakar, berekin eta Ondasunak pakea. Bestalde, Korteko jauntxuok, petxa ta zergaz josi ta gure marabedis apu-

rrak zurrupatzen ba-dizkigute... (*Bekozko illunez*) Beldur naiz, Korrejidore jauna, ez dala izango Gaonena azken isuriko dan odola.

KORREJIDORA.- Zernakuntza bat al da hori?

DOMENJON.- Ez da iñondik ere, aolkua baizik. Adiskideari egia zor zaio, ordea, ta emengo egoera entzun arazi nai izan diof Gaztelako agintariok jakin dezaten.

KORREJIDOREA.- Lenengo eriotzaren berri txarra eman bear diet: Justizia gogorra eskatzen duan gertakizun latza. Zigorra betetakoan, gañerako espak bear dan lekuan adieraziko ditut.

DOMENJON.- Bertatik bertara egia ikus dezan, kaletatik zear, alkarrekin itzuli bat egin genezake.

KORREJIDOREA.- Atsegin aundiz. Eguardi aurretik egurasteko gogoa daukat buruaustea aizatzeke...

DOMENJON.- Goazen, orduan, Gaztelako Atetik kanpora arnas artze-ra (*Abituaz*). Andik oi dator egoaizea.

KORREJIDOREA.- Ekaitzik ez balu ekartzen... (*Bijoaz*)
(*Bi mirabeak atetik zeletan*).

I. MIRABEA.- Nagusiak joan ditunan. Ez den iñor gelditu. Au lasatasuna! Ez ahal dituan laister itzuliko.

II. MIRABEA.- Ez zekiñat zer gerta bear duan emen. Nun ote ditunan gure mutillak?

I. MIRABEA.- Mutillak mendian, ta neskatzak lanean. Etxekoandreak esan zigunan, batzarra bukatu ala, mai ta alkiak jasotzeko ta baztertu egin bear dizkiñagu. Eutsi, bada...! (*Bien artean mai ta beste puskak jasotzen diartdute barnera eramanez arrastaka*) Pisu ederra diton!

II. MIRABEA.- (*Olgetan*) Astunago ditunan urkamendiaren abeak! (*Bana-bana sartu ta gero aundiena azkenerako utziaz*) Ea! orrela! Tajuz! Atzekoaldera!... (*Guziak sartu ondoren berriz agerturik. Une ontantxe plazan urkamendi zutitzen ari diran arotzen danbateko ta mailu otsak entzun bitez mirabe biak izutzen dituanak*).

- I. MIRABEA.- Kaleko atean norbait ote dan iruditu zaidan... (*Ateruntz begiraturik*) Ara! Orratx, mantoni!
- II. MIRABEA.- Bera besterik ez baldin baden, gaitzerdi!
- I. MIRABEA.- Sar zaite Mantoni! Ez dago beste inor gu baizik.
- II. MIRABEA.- Onek emango zigunan kaleko berri. (*Mantoni erdi negarrez sarturik*).
- MANTONI.- Jainko maitea! Berri txarrak! Aguazilla ere preso sartu dute-ta. Pentsa besteak nola artuko dituzten! Urkamendira eramango dituzte guziak!
- II. MIRABEA.- Ez dezu hori esango zure senarrarengatik?
- MANTONI.- Nik al dakit bada. Beste guziekin igesi joana bait da!
- II. MIRABEA.- Nora, ordea...?
- MANTONI.- Asama zazu! Etxean ez ezen Elizan ere ez da agertuta. Bikario jaunak dan azkarra izan da ere ez daki-ta. (*Malkoak dariela*). Goizeko argizkillarik ez du jo!
- I. MIRABEA.- Igesi joan bada nola joko zuan bada?... Ez larritu, mendian ibiltzeko sasoi ona dute.
- MANTONI.- Gazteok bai, baiñan nere Perutxo anketatik motela dago ta erraz arrapatu lezakete.
- II. MIRABEA.- Ez uste izan! Urkamendiaren beldurrak ankak arinduko zizkion. Ez zan atzean geldituko, ez!
- I. MIRABEA.- Ez noski, menditik nabaitzen badute tramankuloa jarri dutela...
- MANTONI.- (*Zingurinka*) Ezer okerrik egin al du bada gizarajoak! Kandelak piztu, mezak lagundu ta kanpaiak jo gaur ezezik.
- I. MIRABEA.- Atzo sua danean jotzen dan dandara larria genuen, gero ildakoen kanpaia. Ordez aingeruen "Txintxiña" jo Izan balu bederik.
- II. MIRABEA.- Atzo geiegi, gaur batere ez! Errua txikia da hori!
- MANTONI.- Domenjon eta Dama katalin jaun andreari barkazioa eskatuko nieke belauniko jarrita.
- II. MIRABEA.- Ixilik zaude emakumea! Erritan, guri egingo digu,

- goiz guztian ez degu lanik egi eta. Oraintxe, sala txukundu ta puskak baztertzea egin dugu ozta-ozta.
- I.MIRABEA.- Leiotik begira egoten eta ate atzean entzuten aski lan ez al genduen bada?
- II.MIRABEA.- Orregatik lanean jarrai bear degu, ta bagoaz, Mantoni. Geldi zaite emen, Etxekoandrea laister agertuko bait zaizu.
(Azken puskak eramanez barnera bijoaz mirabe biak).
- MANTONI.- Emen itxoingo det... errezatuaz. Etxe ontako nagusiok beti izan oi dira eskuzabal eta biotz-bera neretzat. Errukituko al zaizkit oraingoan ere. (*Malkoak txukatuaz*).
- BIKARIOA.- (*Bat batean azaldurik*). Zertan ari zera, emen, Mantoni? Bakarrik al zaude?
- MANTONI.- (*Izaturik, itz totelka*). Ikarez, dar-dar nago Bikario jauna. Pentsa beza...
- BIKARIOA.- Mingaiña toteldu zaizula, antzematen diot, baiñan bai zure buru ortan pentsamentu ta gogoetak egan darabilkizula ere. Gutxienez alargun nabaitzen dezu zure burua.
- MANTONI.- Ez bezait aitatu Bikario jauna! Atzotandik ez det ia, ez jan eta ez lorik egin ahal izan. Bear bada horixe berbera gertatuko zaio beorri ere...
- BIKARIOA.- Nik?... Jan eta lo gutxitxo, baiñan ibilli? Gelditutzeke; bat ikusi, besteari entzun, familiak lagundu ta malkoak txukatuaz. Eta Elizako lanak, mezaz gañera neronek kandelak piztu, kanpaiak jo... eta abar. Ai! Ene! Sakristau Perutxo! Perutxo!
- MANTONI.- Beorrek jakingo du nun dagoen kokatua. (*Gordeta*).
- BIKARIOA.- Ori Konfesioko Sekretua da, beraz ezkutuko gauza.
- MANTONI.- Preso?...
- BIKARIOA.- Eliza aterpea da ez kartzela...
- MANTONI.- Urrena ere beorregana konfesatzera joan araziko det, Perutxo, justiziaren eskuetan katigu erortzen bada.
- BIKARIOA.- Geldi itzazu mingain eta irudimena. Trumoi-ostotsa agian lertu gabe pasako da. Ez nuke kenfesorik entzun nai dato-

rrren urteko Pazku arte.

(Kaletik datorren zarata entzun bedi: zaldi-perra soñua ta jendearen otsa. Bat batean etxe barrundik I. Mirabea agertuko da arnas estuan).

I. MIRABEA.- Zera!... Zaldizko bat etorri omen da Erregeren mezu batekin... eta gañera... *(Guztiok)* Zer? Zer?

I. MIRABEA.- Berri txarrak!

BIKARIOA.- Zer ordea? Jakin al diteke? *(Txuku-mutxu alkarren artean)*

I. MIRABEA.- *(Bikario jaunari)* Sakristaua arrapatu dutela.

MANTONI.- *(Zerbait nabaiturik)* Nere gizona il dutela! Peru! Gizarajoa! Ai ene! Ama Doloretakoa" *(Naigabea emanik lurrera erortzen da)* Galdua da!

BIKARIOA.- Emakume! Ez da orrenbesteraño.

(Bikarioa ta Mirabeak Mantoni altxatzen dute ta bazterre-ra eramanez asertokian jarriaz).

BIKARIOA.- *(Mirabeari)*. Nundik jakin dezu, ordea berri ori?...

I. MIRABEA.- Leiotik begira nengola ta kalean zabaltzen ari diran berriak entzunez...

BIKARIOA.- Or dezute zuek sasi-eskola. Ez da naikoa, egia dan jakin bear degu. Sakristaua arrapatu? Nola eta nun ordea?

I. MIRABEA.- Isillago esango diot Mantoni esna ez dedin. Amarrandegin gorderik omen zegon, konfesionario barruan sartuta.

BIKARIOA.- Gizarajoa elizaren seme leial beti, goseak errendituko zuan. Au da lanbidea!

I. MIRABEA.- Kontuz! *(Mantonirengana urbilduaz)*. Begiak iriki nai dituala dirudi.

(Andre Katalin barrendik agertuaz).

KATALIN.- Baiña zer gertatzen da? Kalean istillua dabil eta emen karraxi egin dutela sumatu det.

I. MIRABEA.- Bai etxekoandre! Mantoniri txorabioak eman dio eta or

- dago korderik gabe.
- KATALIN.- (*Mantonirengana joanaz eta eskutik elduta burua altxa araziaz*). Mantoni! Ondo ezik al zaude? (*Mirabeari*). Ea sukal-detik zerbait bero ekartzen diozun.
- I. MIRABEA.- Ez dut ezer artzeko gogorik, naigabeak eman dio ta...
- BIKARIOA.- Ez da arritzekoa Dama katalin! Senarra arrapatu dutela entzun du, naiz gorra izan eta zerraldo erori zaigu, gaixoa!
- KATALIN.- Zer gertatzen da? Ez naiz jabetzen.
- BIKARIOA.- Ez ni ere. (*Mirabearengatik*). Onek esango dizu.
- I. MIRABEA.- Kanean zabaldu da berria... Sakristaua arrapatu dutela.
- KATALIN.- (*Aitaren egiñaz*) Jesus milla bider! Ez degu gaurko eguna ondo amaituko (*Mirabeari*) Zoaz sukaldera ta kamomilla beroa ekar zaiozu (*Mantoniri eskua artuaz*) Biotza sendo dabilki-ta zerbait artuaz laister etorriko da bere senara. Zoaz.
- I. MIRABEA.- Bai andre! (*Etxe barrenuntz abiatutik*).
- BIKARIOA.- Patar pixka bat nahasten badezu, lenago piztuko da oraindik.
- KATALIN.- Bikario jauna nere etxean eta nik jakin ez! Mirabei esana daukat onelakoetan dei egin zaidatela. Baiñan, bai zera! Gaur etxean baño, burua kanean eta plazan zer gerta jarria dute!
- BIKARIOA.- Ez da gutxigorako Andre Katalin. Tolosako Erriaren pakea, izen eta omena gaur plazan bait daude. Zerbait da orain ere!... (*Bat batean etxe atarian zalaparta sortzen da ta atetik albatan itxumustuan Eskribau jauna agertzen da*).
- ESKRIBAU.- (*Estu ta larri*). Egun on etxekoak! Eta barkatu baime-nik gabe sartu bait naiz.
- ESKRIBAU.- (*Totelka*). Bai andre... Ez andre! Nundira Domenjon eta Korrejidore jauna?... Erregearengandik presako parte bat zal-dizko batek ekarri du.
- KATALIN.- Laskorain aldera egurastera atera dira...
- ESKRIBAU.- Banoa bada. Bereala ikusi bear ditut.
(*Agerraldi au guzia dramakizunaren giltza izanik bizi ta*

*joku larriz azaldu bear da alik eta izuikara ta patetismo
geiena emanez).*

BIKARIOA.- Oraintxe eman digute berria igesi zebillen sakristaua
arrapatu ote duten. Ez da hori izango?

ESKRIBAUUA.- Ori besterik ez balitz! Askozaz txarragoa!

KATALIN.- Mesedez, eskribau jauna, itzegizu ixilago, Mantoni or bait
dago bazterrean naigabeak maskalduta...

ESKRIBAUUA.- Ori ez da ezer!

*(Une ontan I Mirabea atetik sar bedi eskuan kamomilla
bete katillua daramakila).*

KATALIN.- *(Mantonirengana joanez).* Ea artuarazten diogun.
*(Iru emakumezkoak an bazterrean biltzen dirala Mantoni
erdian dutela, Bikario ta Eskribaua bestaldean jardunean
ariko dira).*

BIKARIOA.- Andre gaixoa nola dagon ikusten dezu, egia al da ordea
Justiziaren eskuetan erori dala?

ESKRIBAUUA.- Orrek ez du alako ajolarik. Alkatearen egitekoa da ta
ez nerea *(Ozen)* sakristaua arrapatu dutela ta zer? Bada okerra-
gorik...

MANTONI.- *(Txurru bat artuta esnaturi).* Nere senarra! Ai ene!
Galduak gera. *(Eser lekutik altxa nai du ta A. Katalin ta I.
Mirabeak eusten diote).*

KATALIN.- Zaude geldirik Mantoni, Lasa zaitez. Ez zai ezer gertatu-
ko.

(Mantoni indar egiñaz jeikitzen da gizonezkoengana joanez!).

MANTONI.- Eskribau jauna! Arren, eta arren Jainkoagaitik esaidazu,
ea nere Peru kartzelan al dagon?

ESKRIBAUUA.- Presondegia baño toki txarragoak badituzu.

MANTONI.- *(Negarrez).* Egia da orduan, ez du ukatzen. *(Intzirika)* .
Ai ene! Doloretako Ama maitea! *(Bikario jaunari).* D. Permin
Bikario jauna lagun bezait! Nere senarra iltzera emango dute-ta.

BIKARIOA.- Ori iñundik ez mantoni, ni jarriko nintzake aren lekuan.

Ez izan kezkarik.

KATALIN.- Ikusten, Mantoni, zaude trankil eta eseri zaitez, ezazu larritu orrela zure burua. Alperrik!

MANTONI.- Azkenerako, betikoa, pobreak izango gaituzu pagatzaille. Errian ezbearra gertatu dala-ta aberaskume libre dabilta ta katigu bakarrak sakristau ta aguazilla. (*Negarrari emanenez*).

KATALIN.- (*Besotik arturik bazterreko eserlekura eramanez*). Ez emakume, isil zaitez, ez dakizu zer esaten dezun ta. Emen gaude gu, laguntzeko. (*Iru emakumezkoak berriz bilduaz*).

BIKARIOA.- Adierazi zaidazu garbi, Eskribau jauna, dakizun guztia. Zer berri ekarri du mezulari orrek?

ESKRIBAU.- (*Papera erakutsiaz*). Agiri ontan dago baiñan beorri esango diot. Naparrotik soñuak datozela Gipuzkoako muga alde-ra soldaduak datozen susmuak...

BIKARIOA.- Ez dut sinistatzen Eskribau jauna. Naparro aldetik etorri berria nazu ta ez dut uste andik ezer txarrik oraingoz sortu ditek-enik...

ESKRIBAU.- Bikario jauna! (*Papera berriz erakutsiaz Bikarioari*). Erregek bidalitako agiri onek diona ez det irakurri, baiñan mezu-lariak esan didanez, Tolosan bereala guda prestaerak egiteko agintzen omen du. Ta sasoiean dauden tolosar guzioi deia egin bearko zaie.

BIKARIOA.- Eta auzipean igesi joan diranai zer?

ESKRIBAU.- Gerra arriskua denean, guzien bearra dago soldauzka-rako eta ez da iñor zigortzen.

BIKARIOA.- Zure berriak ez ditugu orduan ain txarrak...

ESKRIBAU.- (*Urduri*). Geiegi itzegin det Bikario jauna. Ez niteke emen luzaroan egon Korrejidore ta Domenjon jauna aurkitu bear ditut oraintxe bertan. (*Agur egiñez*). Barkatu, etxekoak. Noan nagusiengana. Lanbide gaitza datorkit buru gañera! Ala fede! (*Bijoa lasterka*).

BIKARIOA.- (*Emakumezkoai alaikiro*) Entzun al dituzute? Albisteak

ditugu, albisteak! Gora biotzak Jerusalemgo alabak!

II. GIZASEMEA.- Ez det ondo aditu. Beorrek ez bait digu garbia esaten. (*Bikario jaunarengana urbilduaz*).

BIKARIOA.- Garbi ta argi eguzkia bezela... Ar zagun arnasa lasai. Ez beldurtu. Erregeren agirian gerrako arriskoa aitatu arren poz artzeko zorian gaude.

KATALIN.- Nolatan diteke, ordea, gerra susmurrak badira.

BIKARIOA.- Oriek urrutiko intxaurrak dira. Eta orain begiratu bear diogu bertakoai. Alegia, igesi joan diranak, (*Abotsa goratuaz*) auzipean daudenak eta kartzelan sartu dituztenak bat batean libre geldituko dirala. Eup! Mantoni! Esna amets txarrik egiteke!

MANTONI.- (*Esnatu ta begiak zabaldurik*). Nun nago? Meza nagusian?

KATALIN.- Ez, Andiako Torrean... Peru azaldu omen da.

BIKARIOA.- Bazoazke zure etxera, antze aurkituko dezu senarra.

MANTONIK.- Bizirik?... (*Altxa ta ibiliaz*). Nun da? Nun?

BIKARIOA.- Guziok libratzeko agindua etorri da.

MANTONI.- Au arintasuna nabaitzen det! Ez da sinistekoa.

KATALIN.- Ori bera gertatzen zait, eta Domenjonekin itzegin arte gaitz egiten zait...

BIKARIOA.- A! Fede gutxiko emakumeak! Ikusitakoa edozeñek sinisten du. Errege mezulariak ez zuan gezurrik esango.

KATALIN.- Ala baldin bada Jainkoari eskerrak eman bear dizkiogu gure otoitz eta opariak eskeñiaz.

MANTONI.- Ni kandela piztutzero noa aldareko Sakramentuari; eta gure auzoan berri ona zabaltzero. (*Abiaturik*).

BIKARIOA.- Gure Mantoni piztu zaigu.

KATALIN.- (*Mirabeari*). Etxeko alabai adierazi zaiezu ta datozela!

I. MIRABEA.- Bai Andrea. (*Bijoa*).

MANTONI.- (*Pozez malkoak dariela*). Utz zaidazu eskuan mun ematen etxera joan aurretik. (*A. Katalin aurrean belaunikaturik*).

KATALIN.- Altxa zaitez eta zoaz Jaungoikoarekin.

BIKARIOA.- Eta mokau gozo bat mania zaiozu Peruri gosetuxea etorriko zaizu gizarajoa.

(Bijoa Mantoni eta A. Katalin ta Bikario jauna gelditzen dira jardunean).

BIKARIOA. Nik ere Elizara joan bearko det zer gertatzen dan ikustera. Artzaia, artaldea zaintzera.

KATALIN.- Bego pixka batean D. Permin! Gu ere irrikitzen gaude zerbait jakiteko ta alabek ere, zer esanik ez, joan naiko dute. Nik Domenjoni itxoin bearko diot.

(Maixabel eta Ines burrundaran sarturik).

MAIXABEL.- Ama! Ama! Zer gertatzen da errian?

INES.- Plazan jende asko biltzen ari dala goiko ganbaratik ikusten da.

KATALIN.- Ez bilduritu ez da ezer txarrik. Erregeren zaldizko mezulari bat etorria dala...

BIKARIOA.- Berri onak ekarriaz. Gaonen auzia gelditzeko esanez.

MAIXABEL.- Eta igesi egin dutenok zer?

KATALIN.- Etxeratu ditezke nai dutenean.

BIKARIOA.- Orretarako deia alkate jaunak laister botako duala uste det.

MAIXABEL.- Guzti-guztiak?

INES.- Eta Oxez nere maisua ere bai?

KATALIN.- Bikario jaunak adieraziko dizute.

BIKARIOA.- "Induljentzi ta absoluzio osoa". *(Eskubiko eskuarekin bedeinkapena emanaz).* Batzuen batzuek merezi ez badute ere.

INES.- *(Gazte biak dantzatzeko jausika asten dira).* Au poza! Gaur egingo degu jai! Aupa! D. Permin.

KATALIN.- Ortarako edozein aitzeki on da.

(Atean Mirabeak agertzen diralarik).

II. MIRABEA.- Etxekoandre? Kalera irtetzeko baimenik emango al digu?...

A. KATALIN.- Goiz guztian ez dezute ezer egin.

I. MIRABEA.- Egia dio Dama Katalin, baiñan eguadirako bukatuko

ditugu lan guziak.

MAIXABEL.- Neskameak baldin badijoaz gu ezin geldituko gera etxean.

INES.- Ni ez beintzat, Amatxo. Naiko lezio ikasi dut! Musika! Nai det.

KATALIN.- Zoazte! Zoazte, baiñan aguro itzuli. (*Bikarioari*). Gazteok laister aztutzen dituzte naigabeak.

(*Mirabe ta etxeko alabak bijoaz aintxintxika. Une ontan Elizako kanpai otsa entzun bedi*).

BIKARIOA.- Onela da mundua. Onuzkero Tolosako erri guztian zabaldu da. Goibelaren ondoren eguzkia...

KATALIN.- (*Malkoai ezin eutsiaz*) Ala da!

BIKARIOA.- Trixte zaudela dirudi? Dama Katalin!

KATALIN.- Semeok etxetik urruti dituan ama batek beti dizu kezka barruan. Atzoko nazpillan ez emen izateak ez nindun goibeltzen, baiñan gaurko pozak gogorazten dit itsasoko arriskoen dabiltzala Inglaterrako Bristol bidean...

BIKARIOA.- Jainkoak gordeko al ditu, gu gorde gaitun bezela.

KATALIN.- Gaztetasuna zeñen eder eta zoriontsu dan! Gazteok ez jakiñean, ajolakabe; zarrak jakiñez illunbe.

(*Berriz kanpaien dandara jai bezperakoak bailiran*).

BIKARIOA.- Poza zabaltzen ari da. Goruntz biotzak, Etxekoandre! Trajeria uxatu degu konjuruaren indarrez. Gauza motza izango zan bengantza!... Jainkoagan Fede ta Maitasun daukagunontzat saria da Esperantza... Gizonok sortu al dezakete izen gozoagorik?... Esperantza!!

(*Kanpai otsa darriola astiro astiro oiala erortzen da*).

AZKEN ZATI -EPILOGOA-

(Estali-Oiala altxa gabe dagolarik Oxez ertz batetik agertuaz)

Jaun-Andre, jende maitagarri zeratenok! Emen gatzazute igeslari ta sasi-letradu au lenengo. Etixeratu gera, bai larri xamar ibilli ta gero. Ikusi dezuten zoritxarreko gertakizuna amaitu da; ez zazutela ahaztu ordea. Gaonen eriotza Historia biurtu da. Zer gerta zan gero, jakin naiko dezute noski eta zuen gogoa asetzera, natorkizute azken aldiz.

Bear gorriak eraginda; goseak aña, gorroto ta griñak bultzata, beste iritziz, gertakari odoltsua sortu zan. Errizaletasunitsuak eriotz lazgarria bururatu arazi ziguna.

Baiñan Eriotz artatik, ala bearrez gure Erria gelditu zan bizirik. Domenjon Andia izan degu salbatzaile ta gidari. Bere gizontasun, aozuri ta jakituriaz Gipuzkoako Anaiarte ta Tolosako Erria zutik eta indartsu atxiki zituan korrejidoreari esanez: Gure txit altsu ta agurgarri dan Errege Jaun Enrique IVari, jakin arazi bazaio Gaon Gazteizko Judua bere erru ta kulpaz erailla izan dala Tolosako Erriari, zuzen kontra zerga ta petxak jaso izan nai zitalako gure eskubideak ukatuaz.

Adierazi izan arren, eta gaztigatu ez zuala zillegi gure oiturak zapaltzea entzungor egin zigun eta bere zima gaiztoen gogor leia zan ezkerera erailla izan zan.

Au ezan gertatuko, maite degun Errege jaunaren aurka joatetik, gure Erri-ta legearen alde jokatzegatik baizik. Beraz, gaizki egin ta esandakoak barka bezaizkigu eta ez dezala, orregatik inor zigortu erregutzen diogu. Jainkoak gorde beza Erregearen bizia urte askotan eta Bere esku doatsuetan umilki mun egiñez gelditzen gatzazio beti morroi ta zerbitzari, DOMENJON GONZALEZ de ANDIA. Orain bada, entzule-ikusle maiteok oiur egizute gurekin batera Domenjon Andia ta "aundiaren omenez erriak sortutako bertso kanta auxe".

Sagar eder gezatea
Gerrian ezpatea
Domenjon de Andia
Gipuzkoako Erregea

(Ezkuta-oiala berriro altxatzen da I. Ekitaldiko gerta leku berbera azaltzen da, ots! Plazanagusia, bertan jardun lagun ta antzezleri guziak sailka agertzen diralarik. Sail batean: Andre Katalin, Domenjon, Bikarioa, Alkatea, Eskristaua, ta Aide Nagusiak; bestean Maixabel, Ines, Oxe, Santxo Yurramendi; Auntaxeago Mantoni, Perutxo sakritaua, Mirabea eta emakumezkoak; Jende xea, kaletar eta baserritarrok inguruan sakabanaturik. Guziok alkarrekin kanta bezate "Sagar eder gezatea" edota bestela norbaitek bakarrik bertsolari eran abestu beza, gañerakoak txalo ta oiuz erantzunez).



Bukatutakoan Oxe, plaza erdian dagon Domenjonengana urbilduko da deadar egiñez:

"DOMENJON! BEORRI DEGU GIPUZKOAKO ERREGIA"
(Guziok oiuz ta algaraz erantzungo dute).

Bai, Bai, Hori! Hori! Gora! Viva! Domenjon!

DOMENJON.- *(Ixil araziaz)* Ez! Ez! Ni ez! Gipuzkoako Erria da gure Errege.
(Poz eta alaitasun osoan Oiala geldiro erortzen da).

AMAIA



BIBLIOGRAFÍA

Antonio Maria LABAYENen liburu eta Artikuluak Antzertiari buruz.

- 1.- "Euskal Antzert'tzaz", Euskal Esnalea, 1923, XIII, 101-104,121-123.
- 2.- "Itzaurrea", Toribio Alzaga, Bost urtian, Tolosa, Euskaltzaleak, 1929.
- 3.- "Gregorio de Mujika, propulsor del teatro vasco", Euskalerriaren Alde, 1931,XXI, 303-307.
- 4.- "Euskal antzertia'ren edestirako apur batzuek", Tolosa, L. Mendizabal, 1933, 18 or.
- 5.- "Zumalakarregi" o la Muerte del Heroe", F. Seybold. Yakintza,1933, Y, 29.37.
- 6.- "Euskal antzerti'runtz. Gure teatro errikoi nolako", Yakintza, 1935, III 243-256.
- 7.- "Teatro breton" Yakintza, 1936, IV, 99-104.
- 8.- Antzerti, euskal antzertiaren illerokoa. 1-53-54. L. Mendizabal, 1932-1936.
- 9.- "Embajada artistica. Duguna" Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 1951. VII, 461-463.
- 10.- "Reposición de Amaya", Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País,1951, 604-606.
- 11.- "Temporada invernal 1952-1953 de teatro lirico (vasco)"Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País", 1953, IX, 131-135.
- 12.- "Itz-aurrea" Lizardi'tar X., Ezkondu ezin ziteken mutilla. Egan, 1953, 1-4, 25-27.
- 13.- "Euskal teatroa dala-ta" Egan, 1956, Y, 32-33.

- 14.- "Oleskari zarra", Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 956, XII, 98-99.
- 15.- "Gure teatroaren inguruan", Egan, 1957, X, 358-360.
- 16.- "Euskal teatroa", Egan, 1958, XI, 229-231.
- 17.- "Gure teatroa ta beste", Egan, 1959, XII, 159-161.
- 18.- "Etxaniz, N., Euskal antzerkiak", Egan, 1959, XII, 95-99
- 19.- "Erri-teatroa", Egan, 1960, XIII, 73-75.
- 20.- "1960'ko teatro sariak" Egan, 1960, XII, 207-209.
- 21.- "Pedro Barrutia Mondragoiko Eskribauaren Gabonetako Ikuskizuna" Egan, 1961, 4-6, 249-252.
- 22.- "Atzoko ta gaurko teatroaz esamesak" Egan, 1962, XX, 172-179.
- 23.- Teatro euskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco, Tomo I, San Sebastian, Auñamendi, 1965.
- 24.- Teatro euskaro. Entrevistas, reseñas, crónica. Catálogo de obras dramáticas. Tomo II San Sebastian, Auñamendi, 1965.
- 25.- "Zigor", Egan, 1956, XXIV, 150-152
- 26.- "Aspaldiko teatro zale bat oraingo teatroaren aurrean", Egan, 1966, XXV, 3-19.
- 27.- "Aur-teatroa edo antzerkiak umeentzat", Egan, 1967, XXVI, 177-179.
- 28.- "El misterio de San Gillen y Santa Felicia en Obanos", Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 1971, XXVII, 380-385
- 29.- Teatrigintza eta Yakintza. Zarautz, Itxaropena, 1973.
- 30.- "Euskal teatrigintza" Revista Internacional de Estudios Vascos, XXIX, 1984, 247-260.

Antonio Maria Labayenen Antzerkiak

- 1.- Gizon bizarpeituti eta emazte bizartsuti. 1920 Idtzia. Antzerti 43, 1933. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 169or.
- 2.- Txinparta Buruzagi edo Irugarren Karlatar-Gudatea. 1920. Urteko indar-neurketeetan saritua. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 35 or.
- 3.- Ostegun Gizena. Tolosa, Navarro, del Teso y Cia., 1930. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 19 or.
- 4.- Euskal Eguna, Tolosa L. Mendizabal, 1931. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 57 or.
- 5.- Maya, (Ballet), Antzerti 2-3. Tolsa, 1932.
- 6.- Mateo txistu, Tolosa, Antzerti 4. Tolosa, 1932.
- 7.- Iparragirre, Antzerti, 17-18, Tolosa 1933. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 119 or.
- 8.- Iruñexeme, Antzerti, 53-54, Tolosa, 1936. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 195 or.
- 9.- Muga, Eusko jakintza, 1951, V, 293-308 1952, VI, 194-206. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 251 or.
- 10.- Lurrikara, Euzko Gogoa, 1955, VI, 115-138. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 282 or.
- 11.- Jostuna, Euzko Gogoa, 1956 VII, Iraila-Urrila 20-40, Azila-Gabonila VII, 20-40, Ilbeltza-Otsaila, VII 12-28
- 12.- Petrikillu, Egan 1956, 3-4, 112-127. Teatro Osoa Euzkeraz T. I, 1977 Bilbao, 357 or.
- 13.- Jokua ez da errenta, Itxaropena, 1960, Zarautz. Teatro Osoa Euzkeraz T. II, 1977 Bilbao, 9 or.
- 14.- Galtzaundi, Egan, 1961, 4-6, 290-306. Teatro Osoa Euzkeraz T. II, 1977 Bilbao, 165 or.
- 15.- Malentxo alargun!, Itxaropena, 1962, Zarautz. Teatro Osoa Euzkeraz T. II, 1977 Bilbao, 18or.

- 16.- Domenjon de Andia, Gipuzkoako erregia. Itxaropena, 1965, Zarautz. Teatro Osoa Euzkeraz T. II, 1977 Bilbao, 299 or.
- 17.- Pestaburu, Teatro Osoa Euzkeraz T. II, 1977 Bilbao, 9 or.
- 18.- California... Ku-Ku!, Itxaropena, 1969, Zarautz. Teatro Osoa Euzkeraz T. II, 1977 Bilbao, 15or. 1967. urtean "Agora"k eratutako Gipuzkoa-Teatro saria irabazi zuan.
- 19.- Agar'en seme... Ismael, Teatrogintza eta Yakintza, Itxaropena 1973, Zarautz. Teatro Osoa Euzkeraz T. II, 1977 Bilbao, 161 or. 1970. urtean "Agora"k eratutako Gipuzkoa-Teatro saria irabazi zuan. 1971. urtean martxoaren 28an Urnietako Egi-Billa antzerki taldeak taularatu zuen.
- 20.- Muñagorri, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa probintziala, 1978, Donostia.

Itzulpenak:

- 1.- Berezi, Henriette, Charasson'en "Seoaration" Prantzesez idatzitako antzerkitik euskeraz. Antzerti, 31 1934, Tolosa.
- 2.- Irri-Itzaldia, Antziñako "Joyeux Sermon de Mariage" batetik euskerara itzulia, Antzerti 31, 1934, Tolosa.
- 3.- Bai esalea, Ez esalea, Bertolt Brecht-en itzulpena, Olerti, 1963.
- 4.- Neskatiila ezkongai, Eugéne Ionesco-ren itzulpena. Egan 1964, 1-6 123-128.
- 5.- Su ta gar, prantzesetik antolatua. Egan 1966, 1-6, 155-164.
- 6.- Su-emalleak, Max Frisch-en itzulpena. Egan, 1966, 1-6, 165-215.
- 7.- Perretxiko-Jatea, Alemanetik antolatua. Egan, 1967, 1-6, 180-189.
- 8.- Lapikoa, Plautoren itzulpena, olerti, 1969.
- 9.- Agureak maitamindu bear ez, Alfonso Castelaoren itzulpena, Antzerti, 70, Donostia, 1984

Argitaratu gabeak:

- 1.- Mesner, Rosseau´ren "Le devinder village" itzulpena.
- 2.- Bastian eta Bastiana.



E U S K A L A N T Z E R K I T O P A K E T A K

A Z P E I T I A

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.
• ARKOTXA ANAIK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI.
"GARBIÑE"
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.
Maria Arizmendi/Janamari Malhariau/Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).
Antzerkiak: Laño ta Izar.
Bi aizpak.
Ezkondutik ezin zitekeen mutilla.
- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE.
OROITUZ.
• AITA JOSE ANCHIETA
(S.J.) Dohatsua.
- 1998 • A. ARZELUS eta A. M^a LABAYEN
Belaunaldiko antzerkilariak